


Hezkuntza formalean, aisialdi-antolatua eta ludikotasuna ardatz, euskarazko hizkera informala ikas-irakaskuntza. Zailtasunen gainetik onura anitz.

eman ta zabal zazu



Egilea: Odei Guirado Irasuegi

Ikasturtea: 2023-2024

Zuzendaria: Alaitz Santos

Masterra: Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Masterra.

Laburpena: Ondorengo orrialdeetan euskararen biziberritze-prozesua, hizkera informala, aisialdi-antolatua, hezkuntza formala, motibazioa, atxikimendua eta komunikazio-antsietatea lotzen dituen marko teorikoan kokatutako ikerketa-lana aurkezten da. Hala, metodologia ludikoa eta aisialdi antolatua tarteko, hizkera informala hezkuntza formalean lantzeak euskararekiko motibazioan, atxikimenduan eta komunikazio-antsietatean haurrengan utzitako bizipenak aztertzen dira eta baita esku-hartze horiek bideratzean irakasleek eta hezitzaileek izan dituzten zailtasunak, erraztasunak eta beharrak ere. Ikerketa-lana metodo mistoan eta diseinu konkurrentearen baitan garatua izan da eta bertan parte hartu dute euskarazko hizkera informala aisialdi antolatuaren eta jarduera ludikoen bitartez lantzen ari dinen Nafarroako bi ikastolatako haurrek ($n= 86$), irakasleek ($n= 4$) eta hezitzaileek ($n= 2$). Emaizak datu kualitatiboak eta kuantitatiboak triangulatuz aztertu dira eta ateratako ondorioen artean, besteak beste, ondorioztatu da haurren euskararekiko motibazioa eta atxikimendua sustatzen eta garatzen dela, eta, era berean, komunikazio-antsietatea jaitsi. Aztertutako laginaren baitan, ezberdintasun esanguratsuak topatu dira H1aren eta generoaren arabera. Irakasle eta aisialdiko hezitzaileei dagokionez, aldiz, jasotako formakuntzaren eta eskura izandako programaren balioa azpimarratu da, horrekin batera ondorioztatuz beharrezkoa izan daitekeela hizkera informala lantzeko irakasleentzako eta hezitzaileentzako etorkizunerako prestakuntza espezifikoak.

Gako-hitzak: hizkera informala, jolasa, motibazioa, atxikimendua, komunikazio-antsietatea

Abstract: The following pages present a research study framed within the theoretical framework that takes into consideration the revitalization process of Euskera, informal language, organized leisure, formal education, motivation, adherence and communicative anxiety. The aim of the study is to analyze students' perceptions about motivation, attachment to Basque and language anxiety through informal language, playful methodology and organized leisure. In addition, teachers were asked about the difficulties and facilities they experienced through the program. The study is based on a mixed method and it is developed within a concurrent design, in which children from two ikastolas ($n= 86$) participated. Teachers ($n= 4$) and educators ($n= 2$) who through organized leisure and leisure activities work informal language inside and outside the classroom also participated in the study. The results have been analyzed by triangulating the qualitative and quantitative data. Among the conclusions drawn, it can be underlined, that through informal language the motivation and attachment of children to the Basque language is encouraged and developed, as well as the reduction of communication anxiety. Significant differences were found taking into consideration students' L1 and gender. Regarding to teachers and educators, they found that it is necessary to work on informal language, therefore specific training is needed.

Keywords: informal language, play, motivation, adherence, communicative anxiety

Aurkibidea

1. Atarikoa.....	1
2. Oinarri teorikoa.....	3
2.1. Eskola, euskararen irakaskuntza eta euskararen erabileraren bilakaera.....	3
2.2. Hizkuntza, hizkuntza estandarra, hizkera-komunitateak, herri-hizkerak, hizkuntza-erregistroak eta hizkera informala.....	6
2.2.1. Hizkuntza estandarra.....	7
2.2.2. Herri-hizkerak eta hizkera-komunitateak.....	7
2.2.3. Testuinguruaren arabera hizkuntza-erregistroak eta hizkera informala.....	8
2.3. Gutxiagotutako hizkuntzak eta testuinguru soziolinguistikoak	10
2.3.1. Elebitasuna, eleaniztasuna eta diglosia	10
2.3.2. Gazteak euskaratik erdarara, zergatik eta zertarako: kode-alternantzia eta translanguaging ikuspegiak.	13
2.4. Hizkuntzaren ikaskuntzan eta sozializazioan testuinguruari begiratzearen beharrak	18
2.4.1. Hizkuntza, testuinguru soziala eta hizkuntza-sozializazioa.....	18
2.4.2. Testuinguru emozionala, atxikimendua, motibazioa eta hizkuntza- hautua.....	21
2.5. Antsietatea, hizkuntza-antsietatea eta bigarren hizkuntzaren (H2) jabeakuntza.	23
2.6. Heziketa soziolinguistikoa eta ekolinguistikoa.....	26
2.7. Aisialdia: jolasa, komunitatea, bizipen positiboak, motibazioa, erabilera	28
2.7.1. Jolasa ahozotasuna lantzeko hizkuntza-estrategia gisa.	31
2.8. Ahozotasunaren lanketa, hizkera informala eta pedagogia soziolinguistikoa	32
2.9. Hizkera informalaren ikas-irakaskuntza ikertu beharraz.....	34
3. Ikerketa-lanaren iker-objektua, helburuak eta ikerketa-galderak	34
3.1. Helburuak	35
3.2. ikerketa-galderak	35

4. Metodologia	36
4.1. Parte-hartzaileak	37
4.1.1. Haur parte-hartzaileak	38
4.1.2. Irakasle eta asialdiko hezitzaile parte-hartzaileak.....	39
4.2. Datuak biltzeko teknikak, eta instrumentuak	40
4.3. Datuen prozedura eta analisia.....	43
4.3.1. Estandar etikoak	44
5. Emaizak	45
5.1. Programak ikasleengan sustatutako euskararekiko atxikimendua eta motibazioa.....	45
5.2. Euskarazko hizkera informala: aisialdi-antolatuaren eta jarduera ludikoen bitartez egindako lanketa eta haurren komunikazio-antsietatearen pertzepzioa.....	53
5.3. Hizkera informala programaren bitartez lantzeko irakasleek eta aisialdiko hezitzaileek topatu dituzten erraztasun eta zailtasunak.....	60
6. Eztabaida eta ondorioak	64
7. Mugak, indarguneak eta etorkizuneko erronkak	69
7.1. Mugak eta indarguneak	69
7.2. Etorkizuneko erronkak.....	70
Azken hitza	70
Esker ona	71
Bibliografia	72
Eranskinak	87
1. eranskina: Bereziartua eta bestek (2023) behatutako esamoldeak	87
2. eranskina: Haurrek irakasleari egindako oparia.....	88
3. eranskina: Haurren elkarrizketa bideratzeko prestatutako galderak	88
4. eranskina: Irakasleek elkarrizketa bideratzeko galderak	90
5. eranskina: Hezitzaileen elkarrizketa bideratzeko galderak.....	91

6. eranskina: H1 euskara eta gaztelania duten haurren elkarrizketaren transkribapena.....	93
7. eranskina: H1 erdara duten haurren elkarrizketaren transkribapena.....	107
8. eranskina: Irakasleen eta hezitzaileen elkarrizketen transkribapenak.....	120
9. eranskina: irakasle eta hezitzaileen Ad Hoc galdetegia.....	129
10. eranskina: Haurren Ad Hoc 1. pilotaje-galdetegia.....	132
11. eranskina: Haurren Ad Hoc 2. pilotaje-galdetegia.....	137
12. eranskina: 2. galdetegiaren pilotajearen analisi estatistikoa: EEAMA galdetegi-eskalaren analisi faktoriala, fidagarritasuna eta baliagarritasun analisia	144
13. eranskina: Emaitzen fidagarritasunaren analisi estatistikoa: EEAMA galdetegi-eskalaren analisi faktoriala eta fidagarritasuna	151
14. eranskina: Haurren elkarrizketetatik eratorritako informazioa kategorizatuta	157

Irudien aurkibidea

1. Irudia: Ahozko hizkuntza-gaitasuna arabera multzo metatuak. 16 urtetik gorako hiztunak Euskal Herria, 1991-2016 (%).....	4
2. Irudia: Triangulazio-estrategiaren irudi-adierazpena.....	36
3. Irudia: Haur parte-hartzaileen hizkuntza-hautuaren arrazoiak.....	38
4. Irudia: 11. eta 13. itemak: Jolasaren bitartez euskara ikasteko eta euskaraz hitz egiteko motibazioa.....	49
5. Irudia: 14. eta 15. itemak: jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez euskararen bilakaera eta komunitatearen parte sentitzearen eragina euskararekiko atxikimendua eta motibazioan.....	50
6. Irudia: 12. eta 19. itemak: euskara ikasteko erraztasuna eta komunikazio-antsietatearen beherakada.....	56
7. Irudia: 28. eta 29. itemak: komunikazio-antsietatea hizkera informala lantzen den testuinguruaren arabera.....	58

Taulen aurkibidea

1. Taula: Hizkuntza, hizkuntza estandarra, hizkera informala, hizkuntza-erregistroak, hizkuntza- eta hizkera-komunitateak.....	10
2. Taula: Elebitasuna, eleaniztasuna eta diglosia.....	13
3. Taula: Kode-alternantzia, translanguaging eta tarteko ikuspegiak.....	15
4. Taula: Gazteek euskarazko lagunarteko hizkera informalean baliabide linguistiko erdaldunak erabiltzeko arrazoiak.....	17
5. Taula: Brofenbrenneren teoria ekologikoaren sistemak.....	20
6. Taula: HMOean jasotzen denaren arabera ikastoletako jardun pedagogikoan egon biharko liratekeen lan-arloak.....	33
7. Taula: Haur, irakasle eta hezitzaile parte-hartzaileak.....	40
8. Taula: Elkarriketatuak.....	41
9. Taula: EEAMA galdetegiaren Alfa de Cronbach koefizientearen emaitzak osotasunean eta dimentsioka.....	43
10. Taula: Informazioaren tratamendua egiteko sortutako kategoriak.....	44
11. Taula: Motibazioa eta atxikimenduaren haurren pertzepzioak jasotzeko itemen emaitzen datu estatistikoak.....	49
12. Taula: U de Mann-Whitney probaren datu estatistikoak: Motibazio eta atxikimenduaren itemen sumatorioarekin eta H1 aldagaiarekin.....	51
13. Taula: Atxikimendua eta motibazioa: itemka eta H1aren arabeko mediak.....	51
14. Taula: Atxikimendua eta motibazioa: itemka eta generoaren arabeko mediak.....	52
15. Taula: Motibazioa eta atxikimenduaren haurren pertzeptzioak jasotzeko itemen emaitzen datu estatistikoak.....	55
16. Taula: U de Mann-Whitney probaren datu estatistikoak: Motibazio eta atxikimenduaren itemen sumatorioarekin eta H1 aldagaiarekin.....	58
17. Taula: Komunikazio-antsietatea: itemka eta H1aren arabeko mediak.....	59
18. Taula: Atxikimendua eta motibazioa: itemka eta generoaren arabeko mediak.....	60

19. Taula: Irakasleek eta hezitzaileek programazioak eta formakuntza-mintegiak suposatu duten erraztasunaren inguruan egindako balorazioen mediak.....	61
20. Taula: Irakasleek eta hezitzaileek hizkera informala lantzeko izandako zailtasunaren balorazioaren media.....	63
21. Taula: Irakasleek eta hezitzaileek hizkera informala lantzeko formazioaren inguruan egindako balorazioa.....	64

1. Atarikoa

Ondoren aurkezten den ikerlana *Gizarte- eta hezkuntza-esparruetako ikerketa-masterraren* Master Amaierako Lanerako garatutako lana da. Bertan txertatzen da masterrean zehar ikasitakoa, eta, nolabait, bertara ekarri dira bizitza pertsonalean, lagunartekoan eta profesionalean lana garatu duen pertsonaren ardatza, kezka, motibazio-iturri eta gogoaren diren euskara, haurrak (edo haurtzaroa), jolasa, eta hezkuntza. Ahaztu gabe, nola ez, pedagogia bera, hezkuntza ikertzen duen zientzia eta gure pasioa.

Hala, ikerlan honetan, Euskaltzaindiak, Ikastolen Elkarteak eta Mondragon Unibertsitateak elkarlanean euskarazko hizkera informala lantzeko abian jarritako programa batean jartzen da begirada, hain justu, Arikala egitasmoan. Hain zuzen ere, aisialdi antolatuaren eta jarduera ludikoen bitartez, hezkuntzaren eremu formalean, euskarazko hizkera informala lantzen ari diren bi ikastolatako parte-hartzaileen eta euren bizipenengan. Programa 2022-23 ikasturtean abiatu zen, eta 2023-24 ikasturtean, parte-hartzaile berdinak mantenduz izan du bigarren aplikazio-aldia; guk geuk prozesu horretan parte hartu dugularik.

Bada, ezaguna dugun egitasmo baten baitan garatutako ikerlana da ondorengoa. Bere helburua duena hezkuntza formalean aisialdi antolatuaren bitartez haurren hizkera informalearen ezagutzan eragin daitekeen aztertzea. Horretarako, gela barruan eta kanpoan eragiteko programak garatzen dira eta, horien aplikazioaren aurretik eta ostean, euskararen erabilera neurtzen da; bide batez, landu den hizkeraren presentzia atzematen den eta erabilerak gora egin duen (edo ez) aztertzeko. Ikerlan honetan, ordea, harago begiratzen da. Abiapuntua atzendu gabe, beste aldagai, ikerketa-galdera, eta helburu batzuekin; gure ustez behintzat aintzat hartzea ezinbestekoak direnak, testuinguru bakoitzeko gogoeta behar den tokitik abiatu, hizkuntza-helburuak zedarritu euskara informalearen lanketaren garrantzia eta onurak (ekarpena) azpimarratu eta esku-hartze pedagogikoen diseinuak doitzeko.

-Lanaren kokapena: Euskararen biziberritze-prozesuan gaur egun eskolak dituen erronkei heltzeko eta estrategia berriak diseinatzeko gakoak topatzeko ikerketa-lana da hau. Kasu honetan, aipatutako programan parte hartzen ari haurrek, irakasleek eta hezitzaileek euskarazko hizkera informalearen baitako ikas-irakaskuntza eta hezkuntza-prozesuan izan dituzten bizipenetatik abiatuz esku-hartzearen eragina aztertzeko; bai motibazioan, bai atxikimenduan, eta bai komunikazio-antsietatean. Betiere testuinguruari eta H1ari (ama hizkuntza) erreparatuz. Modu horretan, xedea

izanik hizkera informaletik eta jolasa zein jarduera ludikoen bitartez aldagai horietan sustatu daitekeena aztertzea.

-Marko teorikoa: ikerketa-lan honen marko teorikoaren garapenean lehenik, euskarak Euskal Herrian, eta bereziki hezkuntzan, egun duen egoeraren analisi bat egiten da; azpimarra horren erabilera eginez. Bigarrenik, aditu eta autore ezberdinen literatura arakatuta, hurbilpen teoriko bat egiten da: hizkuntza, hizkuntza-estandarra, herri-hizkera, hizkera-komunitateak, hizkuntza-erregistroak eta horiei, gutxiagotutako hizkuntza baten testuinguruan, eragiten dioten aldagaiei erreparatuz; bai bere ikaskuntza-prozesuan eta bai horren sozializazioan ere. Hirugarrenik, hizkuntzaren jabekuntzan testuinguru sozialak, H1ak (ama hizkuntza), hizkuntza-mailak, motibazioak, atxikimenduak eta komunikazio-antsietateak duten garrantzian sakontzen da. Eta, azkenik, eskola-testuinguruan kokatuta, adituen ekarpen teorikoak eta ikerketen emaitzak arakatuz, aisialdi-antolatua eta jarduera ludikoen bitartez eman daitekeen erantzun pedagogikoaren oinarria garatzen da; bai euskararen ikas-irakaskuntza prozesuak integralak izateko –euskal hiztun osoak diren pertsona euskaldunak garatzeko– eta bai horren erabilera sustatzeko.

-Metodologia: Ikerlan hau, metodologia misto bat erabiliz, paradigma pragmatikoan kokatzen da. Hala, ikerketa diseinua eredu konkurrentearen baitan garatu da metodo kuantitatibo eta kualitatiboak uztartzuz.

-Lan-prozesua: Lehenik iker-objektua definitu da. Horren ostean, lagunen arteko hizkera informala lantzen ari diren ikastolekin hitz egin da (baita Euskaltzaindiarekin ere), Master Amaierako Lana izango den ikerketaren asmoen berri emateko eta hori egikaritzeko aukera mahaigaineratzeko. Behin oniritzia jasota eta iker-lerroarekiko horien benetako interesa berretsita, oinarri teorikoa osatu da.

Hurbilpen teorikoaren lanketa sakona izan da. Askotarikoak izan dira luze eta xehe irakurritako literatura-iturriak: adituak, arituak, ikerketa-emaitzak, ikuspegi soziala eta soziolinguistikoa, curriculumak, aisialdi hezitzailea eta abar eta abar. Hala, oinarri teorikoa zedarrituta ikerketa gauzatzeko instrumentuak zein izango diren, nola sortuko diren eta landa-lana nola bideratuko den erabaki da. Ondoren datu eta informazio-bilketaren prozesuarekin hasteko. Azkenik jasotako datuak eta informazioa tratatu, aztertu eta interpretatu dira, egindako markoarekin elkarrizketan jarri eta ondorioak ateratzeko.

2. Oinarri teorikoa

Ondorengo atala ikerketa-lana kokatzen den oinarri teorikoaren garapena da.

2.1. Eskola, euskararen irakaskuntza eta euskararen erabileraren bilakaera

Berrogeita hamar urte luze pasa dira euskal-komunitateak euskarazko aldaera estandarra sortzeari ekin ziola, besteak beste, funtzio formalak beteko zituen aldaera bateratua eratzeari; hots, euskara batua sortzeari. Halarik ere, 1998. urtean izan zen Euskaltzaindiak Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua onartu zuen unea. Hala, bakarra ez bada ere, eskola izaten da hizkuntza estandarra (*standard language*) lantzeko eta zabaltzeko bide nagusia eta gaur arte lanean aritu da euskal hezkuntza, beste euskalgintzako eragileekin batera euskararen biziberritze-prozesua sustatzen (Perez eta Azkarate, 2020).

Amonarrizek (2015) azaltzen du soziolinguistikaren inguruko lehen biltzar nagusia Getxon izan zela; zehazki, 1984. urtean. *Iruñean sortu* aktaldea sustatutako enkontru bat izan zen. Antolatzaileen artean zeuden: Joan Mari Torrealdei, Mari Jose Azurmendi, Pakita Arregi, Txillardegia eta Amonarriz bera ere. Parte-hartzaileen artean zeuden, halaber, Sánchez Carriónen, hau da, "Txepetxen" gisako pertsona esanguratsuak. Garrantzitsua iruditzen da bilkura hori aipatzea, bertan euskararen biziberritze-estrategiak sustraitzen ari zirelako. Tartean, eskolari zegokiona, gure interesekoa dena, eta gaur egun arte iparrorratz izan dena, alegia.

Amonarrizek (2015) berak bilkura horretan landu zen *Euskara eta Eskola* ponentziaren testuaren zati bat ekartzen du gogora, nolabait, erakusteko ahozkotasanaren gaia ez zela orduko kezka eta lehentasuna: "ezin diogu eskatu eskolari, gaur-gaurkoz behintzat, jolaserako, kaleko berriketarako, adarra jotzeko euskara ere erakustea" (106. or). Horri gehitzen dio ez dela harritzekoa une horretan ahozkotasanaren gaia alboratuta egotea, benetan aurreikusten eta sinesten baitzen haurrek euskara ikasiz gero, kalean ere euskaraz mintzatuko zirela. Hau da, euskara formalaren ikaskuntzak informala bere horretan ekarriko zuela pentsatzen zen. Fishmanen (1993) hitzei so egiten badiegu, konturatzen gara nazioartean aditu ezberdinek aditzera ematen zituzten ideiak oinarri zituztela Euskal Herrikoek: "hizkuntzak komunikazio eta identifikazio lanetan oinarritzko zeregina duelako, eskola bidez eskuratutako hizkuntzotan hitz-etorri erraza lortzeak eta hartan irauteak gehiago zor die azkenean eskolaz kanpoko eta eskola urteak bukatu ondoko faktoreei eskola barneko faktoreei beraiei baino" (40. or).

Bada, eskolak euskararen biziberritze prozesuan euskara batua irakatsi du. Hau da, euskararen aldaera estandarra (*standard language*). Eta euskararen ezagutza zabaltzeko horrek egindako ekarpena kolosala izan bada ere, emaitzak ez dira espero ziren bezain onak, besteak beste, ezagutzak erabilera informala ekarriko zuela pentsatzen zelako (Amonarriz, 2015). Haatik, euskara, eguneroko hizkera informalarari dagokionez, egunez egun ahultzen joan da (Zalbide, 2020) eta erdararen presentzia gero eta handiagoa da ahozko harreman informaletan (Aleman, 2023).


Alabaina, euskararen erabileraren aferan haizea kontrako norabidean dugu, eta, hain zuzen ere horregatik, haur eta gazteak euskaraz eremu informaletan komunikatzeko gai izan daitezen alde ditugun espazioetan lanketa egin behar da (Amonarriz, 2015; Olasagarre, 2023), baita ikastoletan eta eskoletan ere (Aleman, 2023).

2.1.1. Euskararen ezagutzaren eta erabileraren bilakaera.

Iurrebasok (2022) bere doktorego tesian azterketa zehatza egin du euskaraz bere ezagutzan, gaitasunean eta erabileran izan duen bilakaeraren inguruan. Ondorengo grafikoan ikerketa-lan hori baliatuz 1996tik 2016. urtera euskarazko ahozko gaitasunaren bilakaera aurkezten da:

1. Irudia

Ahozko hizkuntza-gaitasuna araberako multzo metatuak. 16 urtetik gorako hiztunak Euskal Herria, 1991-2016 (%)



Iturria: Iurrebaso, (2022). Norberak egina.

Bada, azkar ikusten da ezagutza hazi bai, baina ongi hitz egiteko gaitasunaren igoera apala izan dela, euskaraz erdaraz bezain ondo moldatzen direnen igoera, soilik, 1,8 puntu igo baita 24 urtetan eta euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen direnak (euskal elebidunak) berriz jaitsi; zehazki 0,4 puntu. Eta horrek erabileran eragin zuzena dauka, noski. Hori antzeman daiteke 2016. urtean hitz egiteko gai zirenen (% 28,4) eta euskara

erabiltzen zutenen artean (% 13,6) ageri den arrakalari erreparatzen bazaio (Altuna et al., 2021). Bada, ahozko hizkuntza-gaitasuna eta erabileraren artean lotura badagoela ikus daiteke, euskaraz eta erdaraz modu bertsuan hitz egiteko gai zirenak % 15,8 baitziren eta euskaraz erdaraz baino hobeto hitz egiten zutenak % 7,4. Nolabait, ahozko hizkuntza-gaitasun ona dutenen (gutxienez erdaraz hitz egiteko dutenaren parekoa) eta erabiltzen dutenen kopurua gertuago dago hitz egiteko gai diren eta erabiltzen dutenena baino.

Horrez gain, ezagutza eta gaitasunaren antzera erabilerak ez du gorako joera mantendu, haatik, behera egin du nabarmen. Izan ere, euskararen erabilerak 1989tik 2006ra izandako gorakada eten egin zen 2016an, erabilera % 13,7 tik % 13,6ra jaitsiz, eta 2021eko erabileraren kale-neurketan euskaraz hitz egiten dutenen ehunekoa mantendu bazen ere, eremu euskaldunetan erabilerak atzera egin duela ondorioztatu zen (Altuna et al., 2021). Joera hori nabarmena da eskola-eremuan ere, eta hor ere agerikoak dira kezkatzeko arrazoiak. Arrue Proiektuaren¹ baitan eskuratutako emaitzek, adibidez, LH4ko ikasleen arteko euskararen erabilerak (2011tik 2017ra) behera egin duela erakutsi zuten; zehazki 1,2 puntukoa (Martinez de Luna eta Suberbiola, 2018). Datu kezkagarriak zalantzarik gabe, are gehiago jakinik LH4ko ikasleak izan ohi direla euskara gehien erabiltzen duenak, euskararen erabileraren abiapuntuko indargunea (Amonarriz, 2015). Martinez de Luna eta bestek (2023) egindako ikerketa-lanean aurkeztutako emaitzak ere ildo bertsutik doaz eta jolasgaraietan egiten den euskararen erabileraren inguruan emandako datuek kezkatzeko arrazoiak eman dituzte. Izan ere, ikasgela barruan haurrek egiten duten euskararen erabilera asko jaisten da bertako gune eta une informaletan egiten den erabilerarekin alderatzen bada. Kasu horretan, gainera, H1 euskara dutenen eta ez dutenen artean dagoen ezberdintasunari erreparatu diote, ondorioztatuz ezberdintasunak daudela horien artean. EAEko testuinguruan H1 erdara dutenen artean, soilik, ikasleen % 12 izanik jolasgaraietan euskara bakarrik erabiltzen duena eta % 13 euskara erdara baino gehiago darabilena. Alabaina, autoreen arabera, gogoan eduki behar da, oro har, H1 erdara dutenek euskaraz sozializatzeko aukera bakarra edo bakarrenetarikoa eskola izaten dutela.

Beraz, euskararen ezagutza-maila eta hitz egiteko gaitasun erlatiboa hazten joan den bezala, horren erabilerak ez du gora egin (Ramos, 2023) eta euskara bidegurutze batean aurkitzen da, bulkada eta estrategia berrien beharrean (Amonarriz, 2019). Hala, eztabaidaren erdigunean daude erabilera nola sustatu asmatzea eta hizkera informala

¹ EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan, 2011-2017. Txosten exekutiboa.

eskolan lantzearen beharra (Amonarriz, 2015). Izan ere, soilik uniformetasuna sustatzeak, nolabait, hizkuntza-baliabideen pluraltasuna desagerraraztea dakar (Zuazo, 2014), eta, horrekin batera, baita gazteek egunerokoan lagunekin erabiltzeko dituzten hizkera informalerako baliabide linguistikoaren galera ere (Bereziartua et al., 2023).

Euskarak gutxiagotutako hizkuntza bat izanik, eremu formaletan erabiltzeko hizkuntza-estandarraz gain, bere hizkera informala garatu eta hizkera-komunitateak garatzeko espazioak behar ditu. Bestela, haur, nerabe eta gazteek euskarazko hizkera informala eraikitzekeko gune askerik ez badute, dibergentzia eta adierazkortasun bila erdarako *jerga* garatzen dute. Bien bitartean euskara eskolarekin, arau zurruneekin eta zuzentasunarekin lotuz (Zabaleta, 2007).

2.2. Hizkuntza, hizkuntza estandarra, hizkera-komunitateak, herri-hizkerak, hizkuntza-erregistroak eta hizkera informala

Hizkuntza definitu duten autore asko topa daitezke. Hala, lan honetan, hizkuntzak barnebiltzen dituen dimentsio ezberdinetan murgiltzeko horietako batzuk aipatuko dira; esanguratsuenak iruditu direnak.

Fishmanentzat (1993) hizkuntza komunikatzeko tresna bat da, bere baitan, halaber, nortasun soziala eta identitate pertsonalaren osagai garrantzitsu bat dena. *Soziolinguistika Eskuliburuan* hizkuntzaren honako definizio hau egiten da: “gizatalde bateko kideek elkarrekin komunikatzeko duten hitzezko adierazpidea”. (Zarraga eta al., 2010, 26. or). Pinzonek (2005), aldiz, gehiago xehetzen ditu aurreko definizioak eta hizkuntza gizarte-talde batek garaturiko komunikazio-iturri gisa definitzen du; historia, kultura, etnia eta geografia konkretu baten baitan sortua izan dena. Bada, hizkuntza guztiak bakarrak dira, gizarte-talde baten ondare kulturala eta horren erraien isla edo adierazle. Sarasuak (2013) ildo beretik, hizkuntzak kulturen bihotza direla aipatzen du eta “komunitateen existentzia sozialari oinarria ematen dioten eraikin kultura sofistikatu” (22. or) gisa definitzen ditu. Beraz, kultura, hizkuntza eta komunitatea hertsiki loturik daudela esan daiteke eta hizkuntza dela horiek iruten dituen haria. Bata bestearen ezinbesteko osagaia dira, eta biziraupenerako, hots, “existentzia sozialerako” bidaide; bereziki gutxiagotutako hizkuntzen eta kulturen testuinguruan. Izan ere, horien etorkizuneko errepresentazio soziala ez dago bermatua (Iztueta, 2014).

Hala, komunitate eta kulturen hari-lotura diren hizkuntza horiek idazteko, hitz egiteko, eta komunikatzeko garaian, testuinguru ezberdinetan izan duten bilakaera eta funtzioaren arabera forma eta molde ezberdinak garatzen dituzte. Hala nola, hizkuntza estandarrek eta herri-hizkerak eta horien aldaerak.

2.2.1. Hizkuntza estandarra

Hizkuntza bat eta bere testuingurua aldagai konplexuak dira. Hala, hizkuntza eta horrek testuinguruaren arabera hartzen dituen komunikazio-forma ezberdinek analisi zehatz bat eskatzen dute (Gregory eta Carroll, 2019).

Zalbidek (2020) hizkuntza estandarra (*standar language*) azaltzeko herri-hizkeratik (*folk speech*) bereizten du. Azaltzen du munduko hiztun-komunitate askotan bereizten direla, besteak beste, bakoitzak funtzio ezberdinak betetzen dituelako.

Valverdúk (1986) hizkuntza estandarra hizkuntza jasoaren eredu orokortu gisa azaltzen du, funtzionalki irakaskuntzan, komunikabideetan, administrazioan eta, oro har, publikoa den edozein eremu formalean erabiltzen dena. Makhanek (1991), hizkera eta idazkeraren zuzentasunari erreferentzia eginez, hizkuntza estandarra pertsona ikasiaren hizkuntzatzat definitzen du, zuzentasunaren eta kalitatearen eredu dena. Horrek ere, halaber, irakaskuntzari erreferentzia egiten dio, nolabait, hizkuntza estandarra eskolatzearen emaitza dela azalduz.

Hizkuntza estandarrak kodifikazio-arautze egoki bat edukitzen du eta bilakaeraren aurrean malgua bada ere, egonkorra izaten da (Zalbide, 2020). Horren erabilera testuinguru formaletara mugatu ohi da, eskolan irakasten da eta, beraz, intelektualizatua egoten da. Autore beraren aburuz honako funtzio hauek betetzen ditu: "batasun-iturria, erdal hizkuntzekiko bereizketa hesi, prestigio-iturri, eta erreferentzia-marko izatea" (26. or).

Hala, gure testuingurura etorrira, esan dezakegu euskara batua dela euskaldunon hizkuntza estandarra. Izan ere, kodifikatuta dago, hau da, zuzentasun-arauak ditu; irakurketa idazketa errazteko sortu zen; eguneroko hizkeren gainetik harreman-sare handia du; eskolan irakatsi eta ikasten da; eta erregistro formalean pentsatuta garatu zen (Zalbide, 2020).

2.2.2. Herri-hizkerak eta hizkera-komunitateak

Herri-hizkerari dagokionez, aldaera asko izan ohi ditu. Labovek (2006a) hizkuntza-komunitatea eta hizkera-komunitateak bereizi zituen, nolabait, herri-hizkerak aldaera ezberdinak izaten dituela azalduz. Lehenak, hizkuntza bat partekatzen duen pertsona orori egiten dio erreferentzia, eta, bigarrenak, aldiz, hizkuntzaren barietate bera partekatzen duen talde sozialari. Ildo beretik, Iurrebasok (2022) hizkuntza-komunitatea hizkuntza bat partekatzen duen pertsona multzoari erreferentzia egiteko erabiltzen den kontzeptua dela azaltzen du. Hizkera-komunitate adiera, aldiz, hizkuntzaren azterketa

xeheagoak egiteko, hizkuntza baten bariedade lokalizatuagoi erreferentzia egiteko, alegia. Horren guztiaren adibide izango lirateke euskara batua, euskalkiak, edo herriz herri horiek garatu dituzten aldaerak.

2.2.3. Testuinguruaren arabera hizkuntza-erregistroak eta hizkera informala

Hizkuntzak izan ditzakeen aldaera-sorta (*speech repertoire*) edo bariedade ezberdinez harago, hizkuntzaren erabilera egiteko, hots, hitz egiteko, erregistro-mota ezberdinak daude. Hau da, testuinguruaren arabera erabiltzen diren hizkera ezberdinak daude (Barrios et al., 2008).

Hizkuntza-erregistroak hizkuntza baten adierazkortasunak hartzen dituen forma ezberdinak dira, ekintza komunikatiboa gertatzen diren egoerak baldintzatuta aldatzen direnak. Beste modu batera esanda, erregistroak hizkuntzaren formaltasun-mailari (edo informaltasunari) egiten dio erreferentzia (Travalia, 2008). Hizkuntza-erregistroa transmititu nahi den mezua kokatzen den testuinguru sozialaren arabera moldatzen da (Fantini, 1982), eta, erabiltzen den hizkera, elkarrizketan parte hartzen duten pertsonen arteko harremanaren emaitza da (Gregory eta Carroll, 2019).

Labovek (2006b) testuinguruaren eta pertsona/pertsonekin dugun harremanaren, hots, betetzen duen funtzioaren arabera, hiru erregistro hauek bereizi zituen: testuinguru formal batean erabiltzen den hizkuntza zaindua; testuinguru formaletik kanpo erabiltzen den aldizkako hizkuntza; eta lagunartean erabiltzen dena; bat-batekoa, alegia. Hala, testuinguru informaletan lagunekin edo familiarekin erabiltzen den hizkerari, eguneroko mintzamolde (*everyday speech*) deitu zion. Zalbidek (2020) ere eguneroko mintzamolde arrunta erabiltzearen aldekoa da, eta horretarako hiru motibo hauek agertzen ditu:

Zergatik darabilgu esapide hori, eta ez beste bat? Hiru motibo hauengatik: a) Axularrek, orduko euskaldunen hizkuntza-aldiera bereziak zirela-eta, mintzamolde ezberdinez jardun zuelako (...); b) Horrela darabil gure arteko zenbait espezialistak ere, egungo egunean (...); c) euskal itzulpen egokia delako atzerriko adituen *everyday ordinary speech* adierazteko (46. or).

Halarik ere, autore berak eguneroko mintzamolde arruntaren inguruko azalpen osatu eta adosturik ez dagoela azaltzen du, halaber, zehaztuz, dakiela behintzat, ez dagoela euskara edo euskal hizkuntzari dagokionez horren definizio zehatzik. Hala, Barrios eta bestek (2008), eguneroko mintzamoldeari erreferentzia egiteko hizkera kolokiala (*colloquial speech*) terminoa erabili zuten; Muñoak (2020) hizkera gazteak (*Youthful speech*), edo hizkera ez-formalak (*non-formal speech*); eta, Amonarrizek (2015) aldiz, lagunarteaz eta gazte hizkeraz ari denean hizkera informala (*Informal speech*) eta

hizkera kolokiala (*colloquial speech*) biak ala biak erabiltzen ditu.

Beraz, Zalbideren hautua ulertuta eta jakinik ere aldaerez eta erregistroez gain testuinguru bakoitzari egokitzen zaizkion mikro-erregistroak daudela, hurbilpen teoriko honetan gazte hizkera (*Youthful speech*) eta hizkera informalaren (*Informal speech*) terminoak erabiliko dira. Izan ere, haur eta gazteen lagunarteko hizkeraren erregistro zehatzean kokatzen da marko hau, eta, horregatik, testuinguruari gehien gerturatzen zaion kontzeptua dela baloratu da.

2.2.4. Hizkera informalaren ezaugarriak

Taustek (1998) afektibitatea azpimarratzen du hizkera informalaren ezaugarri nagusizat. Rosenblatek (1969, in Travalia, 2008), aldiz, afektibitatearekin batera hizkera informalak dituen bat-batekotasuna eta izaera naturala. Orreaga (2020) harago doa hizkera informalaren ezaugarriak zerrendatzean. Horren ustez gaurkotasuna, bat-batekotasuna, adierazkortasuna, etxekoa, naturala eta berezkoa izatea dira ezaugarri horiek. Halaber, azpimarratzen du hizkera informalak duen arau-eza gazte hizkeraren, hots, lagunarteko hizkera informalaren oinarria dela talde soziala identifikatu eta hertsiki lotzen duena; kideak definituz eta nabarmenduz. Bada, esan daiteke Labovek (2006a) egindako ekarpenetara itzuliz, hizkerak komunitatea ezaugarritzen duela, eta, nolabait, horrekiko atxikimendua sustatu (eta alderantziz). Hala, Guirado eta Ruak (2023a) hizkera-komunitate jakineko kide izatearen, erabiltzen den hizkeraren, eta talde sozial horrekiko atxikimendu emozionalaren elkarrekikotasuna azpimarratzen dute.

Hizkera informalaren helburua, nagusiki, esan nahi den hori modu azkar batean esatea da. Hots, hitz gutxitan bestearengana iristea. Beraz, erabiltzen diren terminoak oso adierazkorak izan behar dira, unean-unean pentsatzen den moduan esandakoak. Askotan, erabilitako hizkuntza estereotipatutakoa izaten da, biraoak edo sexu-erreferentziak, adibidez (Orreaga, 2020).

Makazagak (2010), aurreko autoreek aipatutako hizkera informalaren ezaugarriak ondorengo dimentsioetan banatzen ditu: eguneroko elkarrizketetako ahozko jardunean erabiltzen diren esaerak, esapide eginak, interjekzioak eta hitz adierazgarriak. Azken batean, hizkuntzaren adierazkortasuna aberasteko balio duten baliabideak ulertterazak, sinpleak eta naturalagoak.

Hala, 2.2. atalaren laburpen bat egite aldera, hurrengo taulan kontzeptu nagusien sintesia jasotzen da:

1. Taula

Hizkuntza, hizkuntza estandarra, hizkera informala, hizkuntza-erregistroak, hizkuntza- eta hizkera-komunitateak

	Ezaugarriak
Hizkuntza estandarra	<ul style="list-style-type: none">- Kodifikazio-arautze egoki bat edukitzen du,- egonkorra izaten da,- erabilera testuinguru formaletara mugatzen da,- eskolan irakasten da.
Hizkuntza-erregistroa	Hizkuntzak izan ditzakeen aldaera-sorta ezberdinez harago, hitz egiteko erregistro-mota ezberdinak daude. Horiek, transmititu nahi den mezua kokatzen den testuinguruaren arabera moldatzen dira eta parte hartzen duten pertsonen arteko harremanaren emaitza izanik.
Hizkuntza-erregistro informala (hizkera informala)	<ul style="list-style-type: none">- Arau-eza,- gaurkotasuna duena,- afektiboa,- egunerokoa,- bat-batekoa,- adierazkorra,- naturala.
Hizkuntza-komunitatea	<ul style="list-style-type: none">- Hizkuntza-komunitatea: hizkuntza bat partekatzen duen pertsona multzoa da.
Hizkera-komunitatea	<ul style="list-style-type: none">- hizkuntzaren barietate bera: herria, laguntaldea...partekatzen duen talde soziala da.

Iturria: Zalbide (2020); Labov (2006a); Gregory eta Carrol (2019); Muñoa (2020); Tauste (1998); Oreaga (2020); Makazaga (2020). Norberak egin.

2.3. Gutxiagotutako hizkuntzak eta testuinguru soziolinguistikoak

Gutxiagotutako hizkuntza baten testuinguruan, hiztun-komunitateari eta hizkuntzari eragiten dioten faktore ezberdinei erreparatzea garrantzitsua da, besteak beste, hizkuntza horren nolakotasunean eragingo duelako. Ez da berdina hegemonikoa den eta hizkuntza bakarra hitz egiten den testuingurua, edo hiztun-kopuru esanguratsua duten bi hizkuntzek partekatzen dutena. Normalean, bat hegemonikoa izaten dena eta bestea minorizatua, gainera (Siguan, 1976).

2.3.1. Elebitasuna, eleaniztasuna eta diglosia

Euskal Herriko jendartea eleaniztuna dela ez da kontu berria, gutxiagotutako hizkuntza eta kultura baten testuinguruan bizi dena hain zuzen ere (Gartziarena eta Altuna, 2021). Tokian toki testuinguru soziolinguistiko bakoitzak dituen muga

politikoekin, lurralde bakoitzak dituen eskumenekin eta herritarrek egiten dituzten hizkuntza-hautuekin askotariko hizkuntza-errealitateak dituen (Gorter eta Cenoz, 2017).

Elebitasunaren (*bilingualism*) eta eleaniztasunaren (*plurilingualism*) inguruan definizio ezberdinak topa ditzakegu. Izan ere, kontzeptu horiek ikuspegi kontrajarriak dituzte eta horiek definitzeko garaian desadostasuna gailentzen da. Hau da, hiztun bat eleaniztuna den edo ez ulertzeko modu ezberdinak daude (Gartziarena eta Altuna, 2021). Batzuen arabera elebitasunaren printzipioak bi hizkuntza ezberdinetan modu antzekoan adierazteko gai diren pertsonen egiten die erreferentzia (Ferguson, 1959; Siguan 1976). Beste batzuen arabera, ordea, elebiduna izateko ez da zertan hitz egiten diren hizkuntzen arteko maila berdina eduki behar, ez-eta eleaniztuna izateko ere (Cenoz, 2021; Cenoz eta Gorter, 2021; Cenoz, 2022; Lasa, 2023; Ramos, 2023). Ikuspegi horren arabera, bi hizkuntza edo gehiago dakizkien pertsonak, nahiz eta hizkuntza horiek hitz egiteko gaitasun ezberdina eduki, komunikazio-egoeraren arabera hizkuntza bat edo bestea erabili dezake. Hala, hiztun eleaniztunek hizkuntza-errepertorio bakarra dute eta hizkuntza ezberdinen elementuak erabiltzen dituzte euren gaitasun orokorrekin bateratuz eta testuinguru informal ezberdinetan estrategia ezberdinak erabiliz (Lasa, 2023). Hau da, hizkuntza-kompetentzia dinamikoa eta aldakorra da, eta ikaskuntza-prozesuan dagoen pertsona elebiduna edo eleaniztuna izan daiteke; "Plurilingüe emergente" (Cenoz, 2021, 199. or) deritzona.

Baina nola ezberdindu orduan pertsona elebakarra, elebiduna, eta eleaniztuna? Gure ustez, Cenozen (2009) zein Gartziarenaren eta Altunaren (2021) hitzekin bat eginik, hizkuntzen ezagutzan eta erabileran oinarrituta. Hala, elebitasuna eleaniztasunaren adierarik txikiena izango litzateke.

Modu batera edo bestera ulertu beraz, esan daiteke elebiduna edo eleaniztuna izatea norbanakoren ezaugarri bat dela. Bada, bakoitzak bi hizkuntza edo gehiago ulertzeko eta hitz egiteko duen gaitasunari egiten dio erreferentzia (Iurrebaso, 2022).

Diglosia (*diglossia*) kontzeptuak pertsonen gaitasun elebidunen edo eleanitzen gainetik egiten den irakurketatik harago darama begirada. Izan ere, elebitasuna (edo eleaniztasuna) errealitate kolektibo bat den heinean, nekez izango dute elkarrekintzan dauden hizkuntzek estatus bera (Siguan, 1976). Beraz, bi hizkuntza edo gehiago hitz egiteko gaitasunak norbanakoaren ezaugarriari erantzuten dio eta diglosiak fenomeno sozialari (Zalbide, 2011).

Diglosia kontzeptua modu ezberdinean ulertu izan da urteetan zehar (Iurrebaso, 2022). Oinarri toriko honen helburua horretan sakontzea ez bada ere, garrantzitsua iruditzen da kontzeptu horretara hurbiltzea. Izan ere, ikuspegi soziolinguistikotik euskarak bizi duen egoera minorizatua ulertzeko eta aurre egiteko aukera ematen du eta baita hizkuntza gutxiagotuari eragiten dioten fenomenoetara gerturatzeko ere.

Ferguson izan zen diglosiaren kontzeptua ezagun egin zuena (Siguan, 1976; Iurrebaso, 2022). Fergusonen (1959) arabera diglosia hizkuntza-aldaera anitzak erabiltzen diren komunitateen hizkuntza-errealitateak azaltzen dituen kontzeptua da. Hau da, hizkuntza estandarren hizkera jasoak eta herri-hizkerak bien arteko elkarbizitzan betetzen dituzten funtzio ezberdinak azaltzeko. Baina Siguanek (1976) ongi azaldu zuen gisan, hizkuntza jasoak eta herri-hizkera hizkuntza beraren barietateak izan daitezke edo ez. Lehenaren adibide bat Zalbidek (2011) diglosia aztertzen zuen lanean topa dezakegu. Bertan, aleman-hizkera duen Suitzaren adibidea jartzen du. Horren esanetan, hango biztanleek guztiz normaltzat dute herri-hizkeraren eta hizkuntza jasoaaren konpartimentazio soziofuntzionala. Aldiz, hizkuntzak ezberdinak diren diglosia-egoera azaltzeko adibide garbi bat latinak Europan bete zuen funtzioan topatzen dugu. Une historiko batean beste hizkuntzen gaintik kokatzen zen hizkuntza estandar eta jasoaaren tokia bete zuena (Siguan, 1976).

Bada, hizkuntza-bariedadez harago testuinguru batean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten diren errealitateak daude. Eta jendarte batean hiztun-kopuru esanguratsua duten bi hizkuntzek (edo gehiagok) testuinguru bera partekatzen badute, posibleena da pertsona horietako askok biak ala biak hitz egiteko gaitasuna izatea (Siguan 1976). Modu horretan, testuinguruaren arabera hizkuntza bat edo beste erabili ohi da eta arestian aipatu den gisan, oro har, bakoitzak funtzio eta estatus ezberdinak betetzen ditu. Horregatik, Fishman (1967) ustez, diglosia-egoera bat dagoela baieztatzeko, bi kode linguistikoaren erabilera sozialaz gain, konpartimentazio soziolinguistikoa eta egonkortasuna² egon behar dira. Hau da, testuinguru berdinean bi hizkuntzek funtzio sozial ezberdinak betetzen dituzten egoera egonkorrari, hots, fenomeno sozial horri, deitu zion diglosia. Hala, ahuldutako hizkuntzek euren esparruak eta funtzioak bereganatzeko aukera dute. Nolabait, horiek indartzeko aipatutako funtzioei erreparatuz eta horietan eraginez (Iurrebaso, 2022): "Fishmanen iritziz, beraz, diglosia ahuldutako hizkuntzari eusteko eta bizirik jarraitzeko formula iraunkor-sendoa da" (92.or).

² Fishmanen arabera hiru belaundali edo gehiago irauten duen egoera soziolinguistikoa da diglosia

Interesgarria iruditzen da beraz diglosiaren ulerkera hau, izan ere, etorkizuneko erronkak zehazteko leioa zabaltzen du, minorizatutako hizkuntzaren funtzioak aztertu eta gutxika-gutxika berreskuratu nahi diren horiek (funtzioak) zein diren zedarrizteko. Zalbidere (2011) arabera bada, ikuspegi horri jarraituz, Euskal Herrian euskara ez legoke diglosia egoera batean. Herri eta testuinguru konkretu batzuetan izan ezik (horietan soilik esan daiteke diglosia-egoera bat dagoela), ez baititu indarrez betetzen hizkuntza batek bizirik egoteko beharrezkoak dituen funtzio sozialak. Beraz, ezin daiteke esan, orokorrean behintzat, euskara diglosia-egoera batean dagoela, haatik, funtzio sozialak eskuratuz hori lortzea litzateke helburua. Gutxienean, hau da, diglosia egoerara iristea.

Alabaina, Fishmanen ikuspegitik urrun, gutxiagotutako soziolinguistikak ere diglosia adiera erabiltzen du. Kasu honetan, ordea, gailentzen den hizkuntzaren ordezkapen-prozesuaren lehengo urrats bezala azalduta. Hala, Herrialde Katalanetako soziolinguistika ikuspegiaren influentziaz Euskal Herrian horrela ulertu izan da diglosia egoera (Zalbide, 2011).

2. Taula

Elebitasuna, eleaniztasuna eta diglosia

	Ezaugarriak
Elebitasuna eta eleaniztasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Norbanako bakoitzaren ezaugarri indibiduala da eta bi hizkuntza edo gehiago hitz egiteko gaitasunari egiten diote erreferentzia. Bi ikuspegi nagusi daude, elebiduna edo eleaniztuna izateko hitz egiten den hizkuntzetan maila bertsua izan behar dela pentsatzen dutenena eta ez duela zertan horrela izan behar defendatzen dutenena. - Elebitasuna eleaniztasunaren adierarik txikiena izango litzateke.
Diglosia	<ul style="list-style-type: none"> - Fenomeno sozial bat da. - Bi ikuspegi nagusi daude: <ol style="list-style-type: none"> 1) Diglosia-egoera bat dagoela baieztatzeko, bi kode linguistikoen erabilera sozialaz gain, konpartimentazio soziolinguistikoa eta egonkortasuna egon behar dira. 2) Diglosia gailentzen den hizkuntzaren ordezkapen-prozesuaren lehengo urratsa da.

Iturria: Zalbide, 2011; Iurrebaso, 2022; Ferguson, 1959; Siguan 1976; Cenoz, 2021; Lasa, 2023. Norberak egina.

2.3.2. Gazteak euskaratik erdarara, zergatik eta zertarako: kode-alternantzia eta translanguaging ikuspegiak.

Fishmanen (1965) arabera hizkuntza zein modutara erabiltzen den erreparatzea garrantzitsua da. Nork, norekin, zer eta zein testuingurutan hitz egiteko. Izan ere,

elebidunak edo eleanitzak diren hiztunek hizkuntza bat ala bestea aukeratzea ez da ausaz gertatzen den zerbait, adibidez kode-alternantziaren fenomenoan edo hizkuntza interferentzietan (Zalbide, 2011).

Bi hizkuntza edo gehiagok elkarri eragiten diotenean, hau da, hizkuntzen arteko ukipena³ dagoenean, fenomeno ezberdinak gertatu ohi dira. Hala, gehien ikertua izan den fenomenoa kode-alternantziarena (*code-switching*) izan da (Bereziartua, 2013). Nazioartean hainbat ikertzaile esanguratsu daude *code-switching* delakoa ikertu dutenak, tartean, aski ezaguna den Poplack (1979). Autore horrek kode-alternantzia diskurtso berdin batean bi hizkuntzen erabilera egiteari (batetik bestera pasatzeari) erreferentzia egiteko erabili zuen: "Code-switching is the alternation-of two languages within a single discourse, s'entence, or constituent". (7.or). Hasiera batean aleatorioa zela pentsatzen bazen ere, ikerketek erakutsi dute hizkuntzen arteko txandaketa hori arau ezberdinek gobernatzen dutela, erabiltzen den hizkuntzarekin bete nahi den funtzioaren arabera, alegia. Hau da, kode-aldaketaren fenomenoak alderdi gramatikalagatik gerta daiteke, baina baita eragin soziolinguistikoagatik ere (Oritk, 2015; Fantini, 1982). Alde batetik, hizkuntza baten edo bestearen hautu kontzientea legoke, eta bestetik hizkuntza ongi menderatzearen afera. Zabalondok (2012) gehixeago zabaltzen du kontzeptua bera eta hizkuntza minorizatuen testuingurura ekartzen du. Horren aburuz, hitz egiten ari denak erabiltzen duten estrategia bat da, komunikazio teknika bat, zapaltzen duen hizkuntza eta minorizatua dena harremanetan dauden testuinguruetan askotan gertatzen dena.

Azken urteetan kode-alternantziatik harago doan ikuspegi eta marko teoriko bat ere garatu da; *translanguaging* deritzona. Hasiera batean kode-alternantziaren ikuspegia horren barruan zegoela kontsideratzen zen (Cenoz eta Gorter, 2021), baina beste autore batzuk ideia kontrajarriak direla azaltzen dute (Garcia eta Li, 2014). Horien aburuz, *translanguaging* fenomenoak ez da soilik hizkuntza batetik bestera aldatzeko joeraz mintzo, baizik eta hiztunek garatutako diskurtso konplexu eta originalak, non, garatzen den hizkera ezin den erraz atxiki hizkuntza bati edo besteari. Vogel eta Gaciak (2017) adibidez, azaltzen dute kode-alternantzia eta *translanguaginga* espistemologikoki kontrajarriak direla. Izan ere, kode-alternantziaren teoriak bi hizkuntza-sistema edo gehiago daudela babesten du eta *translanguagingak*, aldiz, integratutako hizkuntza-sistema bakarra dagoela defendatzen du. Hala, *translanguaginga* espazioa irabazten joan

³ Gizarte berean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten direnean, hizkuntza horien artean sortzen den erlazioari esaten zaio hizkuntza-ukipena (UZEI, 2010).

den ikuspegia da, eta teoria eta pedagogia berrien garapena ekarri du, tartean *pedagogical translanguaging* deritzona (Li, 2011).

Halarik ere, badira bi ikuspegien tartean kokatzen diren autoreak ere. Alabaina, Cumminsek (2017) hizkuntza eraikuntza soziala dela babesten du, non bere mugak arbitrarioak diren. Baina era berean hiztunek hizkuntza bakoitzari ezberdindua den tratua ematen diotela azaltzen du, hizkuntza horiek identifikatzeko gai direla azpimarratuz. Hau da, autorearen ustez (Cummins, 2017) pertsonak elkarrizketak hizkuntza batean edo besteak gertatzen diren identifikatzeko gai dira, baita testuinguru sozialaren arabera mugak zurrinak edo lausotuak direnean ere. Ildo bertsutik, Canagarajek (2013) ere bi hizkuntzen erabilera arrazoi praktikoengatik dela justifikatzen du. Eta azaltzen du, hizkuntza-baliabideak dinamikoak eta aldakorak badira ere, testuinguru sozialaren arabera etiketa eta identitate ezberdinak atxikitzen zaizkiela eta baita horien baitan erabili ere. Bada, laburbilduz, modu honetan jaso genitzake aipatutako kontzeptuak eta horien ezaugarriak (ikus 3. taula):

3. Taula

Kode-alternantzia, translanguaging eta tarteko ikuspegiak

	Ezaugarriak
Kode-alternantzia (code-switching)	- Diskurtso berdin batean bi hizkuntzen (edo gehiagoren) erabilera egiteari (batetik bestera pasatzeari) egiten dio erreferentzia. Bi hizkuntza-sistema edo gehiago daudela babesten du.
Translanguaging	- Ez da soilik hizkuntza batetik bestera aldatzeko joeraz mintzo, baizik eta hiztunek garatutako diskurtso konplexu eta originalerik, non, garatzen den hizkera ezin den erraz atxiki hizkuntza bati edo besteari. Integratutako hizkuntza-sistema bakarra dagoela defendatzen du
Tarteko ikuspegia	- Hizkuntza eraikuntza soziala da eta bere mugak arbitrarioak dira. Hitztunek hizkuntza bakoitzari tratua ezberdindua ematen diote, askotan aipatutako mugen arabera. Hau da, hizkuntza-errepertorio bakarra izan badaiteke ere, hizkuntza bati edo besteari ezberdindua den tratua ematen zaio, eta beraz, hiztunak gai dira hizkuntza batean edo bestean hitz egiten ari diren atzemandeko. Beste modu batera esanda, hizkuntza bakoitza sistema gisa pentsatzeko.

Iturria: Poplack (1979); Orit (2015); Garcia eta Li (2014); Vogel eta Garcia (2017); Cummins (2017). Norberak egina.

Euskaldun gazteen hizkera informalarik zedarrituz, Muñoak (2002), euskaratik erdarara pasatzeko arrazoen artean honako hauek azpimarratzen ditu: esapideen

adierazkortasuna bilatzea, konnotazio negatiboak leuntzea, autoritatea ematea, eta egoera kontestualizatuak adieraztea. Hau da, gazteek testuinguru edo espazio sozialaren arabera hizkuntza egokitu egiten dute (Bereziartua, 2013). Bereziartua eta bestek (2023), aldiz, gazteen artean euskararen erabilera gertatzen den hizkuntza aldaketa azaltzeko, hautazkoa den erabilera ahortzi gabe, adierazkortasunean izan daitezkeen hutsuneak betetzeko egiten den erabilera jartzen dute azpimarra. Azalduz, hori hizkuntza-maila baxuaren eragina denean ez dela hautatzen den zerbait, beharrazatik egiten dena baizik. Arrazoi batengatik edo besteagatik ohikoa izaten da erdarazko interjekzioak, lexikoa, preposizioak, esamoldeak, sintaxia eta antolatzaileak erabiltzea (Igartzabal, 2014)

Gazteen arteko hizkera informalarik erreparatzen bazaio, nabaria da adierazkortasunaren bila igarotzen direla erdarara. Izan ere, hizkera informala dituen bat-bateko espresioetan, emozioak adieraztekoan eta abar, erdarara jotzen dute hutsune hori betetzeko. Zalbidek (2011) hori horrela adierazten du: "euskal hiztun askoren gaitasun-maila ahulduz joan da oro har, eta egungo egunean egiten den euskara hori erdal interferentziaz hornitua ageri ohi zaigu sarri" (21.or). Sarasuak (2013) ere, ildo beretik euskararen potentzia espresibo urria eta horren ahultasuna aipatzen du. Eta Juaristik (2008) gazteek euskarak berezkoak dituen baliabideak gero eta gutxiago ezagutzen dituztela, halaber, aipatuz, euskara sendotu eta erdararen interferentziak gutxitzeko beharra.

Hala, erdararen interferentzia gero eta handiagoa da euskal hiztunen eguneroko hizkeran, bereziki hizkera informalean, bat-batekoa eta emozionala den horretan. Barrios eta bestek (2008), euren kezka azalduz gaztelaniak euskarazko hizkeraren behe-mailako⁴ funtzioak naturaltasunez betetzen dituela diote. Naturaltasunez jotzen dela erdarara adierazkortasuna nahi bada. Halaber, belaunaldiz belaunaldi joera hori azkartzen ari dela azaltzen dute. Erdaretako lexikoa, esamoldeak eta sintaxia erabiltzea, ohikoa bihurtu da, beraz (Bereziartua et al., 2023). Amonarrizek (2015) guzti horrengatik, "euskañol" eta "frantseuskera" deitzen dion horren erabilera sistematikoa dela dio eta hortik eratorria dela gazteen hizkera informalaren inguruan areagotutako kezka. Esanez, askotan, zaila bihurtu dela erdarez kutsatutako euskara ote den edo alderantziz.

Bereziartua eta bestek (2023) hain zuzen ere, haurrek kode-alternantzia eta erdarara adierazkortasun bila jotzeko joera hori – izan beharrazatik, estiloagatik edo aurretik

⁴ Goi-mailako funtzioak: hizkera zaindu, landu eta jasoari egiten dio erreferentzia. Erdi-mailakoak, hizkuntza arauak betetzeari garrantzia ematen zaion hizkera, baina era berean naturaltasunez eta modu ulerterrazean. Eta Behe-mailako funtzioak dira hizkera arruta, arduragabea, hizkuntza arauetatik kanpo daudenak (Barrios et al., 2008).

aipatu diren beste arrazoiengatik – noiz, zenbat eta nola gertatzen den aztertzeke ikerketa bat egin zuten 2022-23 ikasturtean. Bada, Euskal Herriko 10 ikastolatan⁵ LH4ko ikasleen euskararen erabilera eta erdararen interferentzia aztertu zuten, jolasgaraian eta bazkalosteko une eta gune informaletan, hain justu. Hala, haurrek euren elkarrizketa informaletan erabilitako⁶ esamoldeen inguruan aurkeztutako emaitzetan, agerikoa da erdarara adierazkortasun bila jotzeko joera. Izan ere, jasotako 957 esamoldeen % 61,97 (593) erdaraz izan dira, euskarazkoen gainetik ia 24 puntu (% 38,03). Interesgarria da, halaber, ikerketa horretan antzemandako esamoldeetan espresioak, biraoak eta irainak nagusitu direla. Dena dela, ez da nabarmendu euskalkien baitako formularik, eta euskalkirik ez duten ikasleekin euskarazko lagunarteko hizkera informala landu eta zabaltzeko aukera ikusi dute (Bereziartua et al., 2023).

Hori horrela, interesgarria iruditu zaigu arestian garatutako lerroetan aditu ezberdinek erdararen interferentziak gertatzeko emandako arrazoiak laburbiltzea. Izan ere, euskara informala lantzeko eta horren ikas-irakaskuntza-prozesuak bideratzeko orduan horiek aintzat hartzea garrantzitsua izango da. Unean-unean non, zertan eta zertarako eragin nahi den aintzat hartzeko, alegia.

4. Taula

Gazteek euskarazko lagunarteko hizkera informalean baliabide linguistiko erdaldunak erabiltzeko arrazoiak

- Hizkuntza-maila baxua,
- gazteek euskarak berezkoak dituen baliabideak gero eta gutxiago ezagutzea,
- adierazkortasunean izan ditzaketen hutsuneak betetzea,
- testuinguru edo egoera sozialera hizkera egokitu nahia,
- esapideen adierazkortasuna bilatzea,
- konnotazio negatiboak leuntzea,
- autoritatea ematea,
- egoera kontestualizatuak adieraztea.

Iturria: Muñoa, 2002; Bereziartua, 2013; Sarasua, 2013; Juaristi, 2008; Barrios et al., 2008; Zalbide, 2011; Amonarriz, 2015; Bereziartua et al., 2023. Norberak egina.

Alabaina, Cenoz eta Santosek (2017) euskara bigarren hizkuntza dutenen komunikazio-antsietatearen inguruan egindako ikerketa-lana aipatzen amaituko dugu atala. Izan ere, euren ikerketan orain arte aipatutako behar linguistiko horrek, hau da, hizkuntza-maila baxuak, hizkuntza-antsietatea eragiten duela ondorioztatu zuten; bereziki H1 gaztelania dutenek sentitzen dutena. Horregatik, euskal hiztun asko urduri

⁵ Ikastola parte-hartzaileak: 2 ikastola Xilaban, 2 Gipuzkoan, 2 Nafarroan, 2 Araban eta 2 Bizkaian.

⁶ Behaketan jasotako esamolde eta esapide zehatzak (ikus 2. eranskina).

eta lotsatuta sentitzen da euskaraz hitz egiterakoan, deseroso; eta komunikazio gaitasun-eza oztopo handia da euskararen erabileran. Bada, esan daiteke, adierazkortasun baliabide falta asetzeko erabiltzen dutela gazte askok kode-alternantzia, eta, nolabait, baita komunikazio-antsietatea txikiagotzeko ere. Dena dela, hizkuntza-maila baxua ez da hizkuntza baten jabekuntzan eta erabileran antsietatea garatzeko faktoreen artean aipatzen duten bakarra. Horregatik, testuinguruak eta hizkuntzarekiko esposizioak duen eragina ere azpimarratzen dute.

2.4. Hizkuntzaren ikaskuntzan eta sozializazioan testuinguruari begiratzearen beharrak

Hizkuntza bat ikasteko prozesua diziplina ezberdinek ematen duten ikuspegietatik aztertu izan da, hala nola, soziologiatik, psikologiatik edo antropologiatik (Etxeberria, 2003). Marko honetan, dimentsio sozialak duen eragina aintzat hartuta egingo da horrekiko hurbilpena, betiere ikuspegi pedagogiko batetik.

2.4.1. Hizkuntza, testuinguru soziala eta hizkuntza-sozializazioa

Hizkuntzen baitan sortzen diren harremanek, elkarrekintzek, zein arau edo formek egituratzen dute errealitate soziolinguistikoa. Izan ere, hizkuntzen erabilerak, hau da, praktika berak testuinguru soziolinguistikoa eratzen du (Apodaka eta Morales, 2017), eta alderantziz, testuinguruak berak baldintzatzen du praktika hori (Guirado eta Rua, 2023a). Hau da, hizkuntza ez da inoiz erabiltzen hutsune sozial baten testuinguruan. Beraz, hizkuntzaren eta elkarrekintza sozialen artean harreman zuzena dago, baita horren jabekuntza-prozesuan ere (Vygotsky, 1960; Fantini, 1982; Etxeberria, 2003; Cenoz, 2021; Guirado eta Rua, 2023a). Hala, komunikatzearen xede nagusia giza harremanak eraikitzea da, hots, komunikazioaren bitartez egiten gara gizarte edo talde sozial konkretu baten kide, eta harreman horiek, batez ere, hizkuntzaren bitartez garatzen dira (Ramos, 2023). Esan daiteke, beraz, hizkuntza gertaera soziala dela eta gizartean parte hartzeko zubi nagusia (Lasa, 2023).

Haurrek helduei eta inguruan dituzten pertsoneri entzuten eta horiekin elkarrekintzan ikasten dute hitz egiten (Etxebarria, 2003; Cenoz, 2021). Ondoren, hizkuntza-maila gero eta handiagoa izatearekin batera, testuinguru kulturalak moldatzen du, nolabait, ikasitako hizkuntza horren erabilera: aldaerak, hizkerak, erregistroak...eta beharrezkoa suertatzen den kasuetan (batik bat minorizatutako hizkuntzen testuinguruan) baita hizkuntza hautua ere (Fantini, 1982; Barrios et al., 2008; Gregory eta Carroll, 2019; Arratibel et al., 2021). Marko honetan bada, aipatzen gatozen hizkuntzaren ikuspegi soziokulturalean kokatuko gara, modu horretan hizkuntzak hezkuntza-prozesuetan

betetzen duen papera ulertzen saiatzeko. Besteak beste, hizkuntzaren bitartez garatzen dugulako ezagutza eraikitzeko eta partekatze adimen kolektiboa (Lasa, 2023). Hala, horretarako ezinbestekoa da Vygotskyren (1960) lanari so eginez abiatzea, izan ere, bera izan zen hizkuntzak betetzen duen funts soziala azpimarratu zuena, eta baita horren jabekuntza soziala azaldu zuena ere.

Vygotskyren (1960) ikuspegi soziokulturalaren arabera, eragin sozialaren ondorioz ikasten dugu eta gizabanako bakoitza bere prozesu historiko eta sozialaren ondorioa da. Hala, sozializazioan garatzen diren askotariko ikaskuntzek garapen pertsonala dakarte, eta, garapen horretan, hizkuntzak funtsezko funtzioa betetzen du (Magallanes et al., 2021). Horregatik, testuinguru soziokulturalarekin batera, pentsamendua eta hizkuntza eskutik doaz, eta ikas-irakaskuntza prozesuetan bata bestearekin hertsiki loturik daude. Hau da, alde batetik, goi-mailako prozesuetan gertatzen diren eragiketa mentalak daude, hizkuntzaren bitartez eraikitzen den pentsamendua, hori artikulatu eta forma ematen diona – hizkuntzaren funtzio intelektuala –. Eta, bestetik, testuinguru sozialaren eraginez gertatzen den ikaskuntza, tartean hizkuntzak berebiziko garrantzia duena – hizkuntzaren funtzio soziala – (Vygotsky, 1978).

Beraz, esan daiteke, hizkuntzarekin batera barneratzen dela kultura (aipatutako eragin soziala medio) eta hizkuntzaren ezagutza eta erabilera talde sozial bereko beste pertsonekin komunikatzeko oinarria dela. Hau da, hizkuntza bere egitura linguistikoez harago doan zerbait da eta testuinguru soziokultural bakoitzean garatzen den elkarrizketa bakoitzean erabiltzen jakitea ezinbestekoa da (Etxeberria, 2003; Lasa, 2023; Ramos, 2023). Agerian geratzen da, beraz, testuinguruak hizkuntza baten jabekuntzan duen garrantzia, eta hori gutxiagotutako hizkuntza baten testuinguruan aintzat hartu beharra dago. Izan ere, testuinguruak ikaskuntza-prozesuan ez ezik horren erabileran, hizkuntza ohituretan eta hizkuntza-hautuan eragiten du (Arratibel et al., 2021).

Brofenbrennerek (1977) ere begirada soziokonstruktibistatik testuinguru sozialak norbanakoaren garapenean duen eragina aztertu zuen, testuinguru soziala modu zehatz batean deskribatu nahian sistema sozialen ikuspegi ekologikoa proposatuz. Cortesen (2004) arabera testuinguru sozialak garapenean duen eragina ulertzeko psikologia kulturalari egin zaion ekarpen garrantzitsuenetarikoa, zalantzarik gabe. Ikuspegi horren arabera, pertsona bat mugitzen den testuinguru sozial bakoitzak (sistema), pertsona horri bere garapenean modu ezberdin batean eragiten dio. Alde batetik, ezberdina delako norbanakoak horietako bakoitzean duen parte hartzea; eta, bestetik, zeresan

handia duelako horietako bakoitzean pertsonari inguratzen dion giro ekologikoak (Orengo, 2014).

Brofenbrennerek (1977, in cortes, 2004), testuinguruak pertsonen garapenean duen eragina azaltzeko, lau sistema nagusi bereizi zituen: mikrosistema, mesosistema, exosistema eta makrosistema. Horren arabera, sistema bakoitzak bere ezaugarri fisikoak, sozialak eta idiosinkrasiakoak barneniltzen ditu; eta sistema horien arteko interakzioa da, dinamikoa den elkar-eraginean pertsona une oro baldintzatzen duena.

5. Taula

Brofenbrenneren teoria ekologikoaren sistemak.

<ul style="list-style-type: none">● Mikrosistema: Pertsonak esperimentatzen dituen jarduera-multzo, harreman eta rol ezberdinek definitzen dute.
<ul style="list-style-type: none">● Mesosistema: pertsona mugitzen den bi testuinguru (mikrosistema) edo gehiagok osatzen dute eta pertsona parte-hartzaile aktiboa da bertan.
<ul style="list-style-type: none">● Exosistema edo ekosistema: pertsonak parte hartzen ez duen, baina horrengan eragin zuzena duten bat edo bi testuinguruk osatzen dute.
<ul style="list-style-type: none">● Makrosistema: beste sistemek (mikro, meso, exo) euren artean dituzten korrespondentziei egiten die erreferentzia, eta, halaber, subkultura edo kultura orokorrari ere; baita horien baitan egon eta aipatutako korrespondentziaren euskarri diren sinesmen-sistema edo ideologia ezberdinei ere.

Iturria: Cortés (2004). Norberak egina.

Hizkuntzaren aferara itzuliz beraz, esan daiteke erabilera sistema horien arabera baldintzatzen dela. Hala, sistema bakoitzean nagusi den giro ekologikoak eta garatzen diren harremanek erregulatzen dute erabiltzen den hizkuntza-erregistroa. Hizkera informalak, adibidez, gertuko eta konfiantzazko giroan (ekosisteman) komunikatzeko papera betetzen du (Guirado eta Rua, 2023a). Konstruktibismoak hori ere ikertu du, eta esanguratsua da hizkuntzen ikuspegi sistemikoari egindako ekarpena. Izan ere, hizkuntza bat edo beste hitz egiteak sistema oso bat aldatzen du (Jauregi eta Suberbiola, 2018). Hala, Von Bertalanffyren (1976) Sistemen Teoria Orokorrak eta Watzlawickenen (1983) hizkuntzen ikuspegi sistemikoak giza komunikazioaren garapenari erreparatu zioten, azaltzen ari garen ildotik, hizkuntzaren, komunikazioaren eta sozializazioaren arteko harremana azaltzeko asmoz. Beraz, hizkuntza-ekosistemez ere hitz egin daiteke, arestian azaldutako sistema horietan hitz egiten den/diren hizkuntzaren arabera (Baraibar eta Bereziartua, 2021).

Hala, euskararen erabilera ere testuinguruaren arabera influentziatua dago eta eskola

testuingurura zedarrituz, gela barruko testuingurua (ekosistema) da euskararen presentzia handiena izaten duena. Hau da, ikasgelatik harago hizkuntzaren sozializazioa, askotan, ez da euskaraz garatzen. Alabaina, ikerketa ezberdinen arabera hizkuntza bat erabiltzen den neurrian, horrekiko atxikimendua ere garatzen dela frogatu da. Horregatik da garrantzitsua minorizatutako testuinguru batean H2 euskara dutenek euskaraz hitz egiteko ekosistemak eduki eta horietan euskaraz sozializatzeko aukera izatea (Martinez de Luna et al., 2023).

Hala, oinarri teoriko honetan, hizkuntzaren transmisioaz hitz egin beharrean, hizkuntzaren sozializazioaz mintzatuko gara. Hau da, hizkuntza bat erabiltzen hasten den haurrari, bere garapenean komunitate baten parte izateko ezagutzak, jarrerak, eta joerak bereganatzeko prozesuan (Kasares, 2014). Modu horretan, bata bestearekin loturik dauden aldagaiak aintzat hartzen dira: бага, norbanakoaren garapen pertsonala testuinguru sozial (ekosistema) bakoitzean eta testuinguru sozialarekiko; biga, hizkuntzaren ikaskuntza; eta, higa, ezagutza soziokulturalaren jabetzea. Bada, erdigunean jartzen da haurrak nola diren sozializatuak hizkuntzaren bitartez, eta baita haurrak hizkuntza bat erabiltzeko nola diren sozializatuak.

2.4.2. Testuinguru emozionala, atxikimendua, motibazioa eta hizkuntza-hautua

Pertsonen jarrerak eta jokabideak bakoitzak dituen iritziek, sinesmenek eta balioek eraginda gidatzen direla pentsatu ohi da. Halarik ere, psikologia sozialak aspaldi azaldu du testuinguruak eraginda mugitzen garela eta horrek egokitzen duela, nolabait, gure jokabidea (Ramos, 2023).

Gizakien dinamikaren baitan harremanek garrantzia handia dute. Hau da, pertsonen arteko elkarrekintza eta harremanetan elkartasuna, intimitatea eta plazera eskuratzeko joerak indar handia du norbanako bakoitzaren eta, oro har, jendartearengan. Hala, joera horiek oinarrizkoak diren hiru behar-multzotan banatzen dira (Lopez, 1993): 1) baldintza gabekoak eta iraunkorrak diren lotura afektiboak eratzeko beharra (atxikimendua); 2) pertsonen harreman-sare bat izateko dutena, hots, talde bateko partaide sentitzeko beharra; eta 3) plazera sentiarazten duten kontaktu fisikoen beharra. Alabaina, oinarrizko behar horietatik atxikimendua da bizitza guztian zehar iraunkorra eta sendoena dena (Yáñez, 1994).

Atxikimendua pertsona batek garatzen duen lotura emozional sakon eta iraunkorra da (Lopez, 1993; Yáñez, 1994; Zamalloa, 2021). Hizkuntzaren ikaskuntza eta erabilerari so eginik zeresan handia duena, batik bat minorizatutako hizkuntzen testuinguruan. Hau da, hizkuntza bat edo beste erabiltzearen hautua erdigunean dagoenean. Izan ere,

inguratzen gaituen testuinguruan garatzen den atxikimenduak zeresan handia izango du hizkuntzaren ikaskuntzan, motibazioan eta erabileran; bai hizkuntzarekiko zein testuinguruarekiko garatzen denak (Guirado, 2021; Guirado eta Rua, 2023a). Horregatik, hizkuntza bat ikasi eta erabiltzen den espazio ezberdinetan sentitzen denak eta zein diren testuinguru sozial horrekin lotzen diren bizipenak (emozioen prozesaketa) berebiziko garrantzia dute hizkuntzarekiko garatzen den atxikimenduan (Ivaz eta Duñabeitia, 2016; Vilches et al., 2019; Guirado eta Rua, 2023a; Guirado eta Rua, 2023b; Barandiaran, 2023). Hori berretsi zuten Ivaz eta Duñabeitiak (2016) kognizioa, garuna eta hizkuntza aztertzen dituen Basque *Centre on Cognition, Brain and Language* zentroan egindako ikerketa batean. Hau da, hitz egiten den hizkuntza, hizkuntza hori ikasi den testuingurua, eta bizipen horiekiko egiten den emozioen prozesaketa hertsiki loturik daudela ondorioztatu zuten.

Beraz, emozioak bulkada kultural gisa ulertuta eta horiek estruktura sozialei atxikituz, imajinario kolektiboan izan dezaketen eragina erraz uler daiteke. Horregatik, hain zuzen ere, emozioek, testuinguru sozialek eta bertan gertatzen diren fenomenoek erlazio zuzena dute pertsonen hizkuntza-jarrerekin (Luna, 2010) eta horiek guztiek motibazioarekin (Barandiaran, 2023).

Euskalgintzan eta baita euskalgintzatik kanpo ere aski ezaguna den Sánchez Carrión "txepetx"ek hizkuntzaren ikaskuntza-prozesuan hori errazten duten faktore nagusiak hiru direla zehaztu zuen: ezagutza, motibazioa eta erabilera (Zapata, 2007). Motibazioa hizkuntza baten ikaskuntza eta hizkuntza horren dimentsioan jarraitzeko nahi edo interes gisa ulertuta. Ezagutza, hizkuntza baten funtzioez jabetu, horiek ulertzeko gaitasuntzat. Eta erabilera, une historiko konkretu batean hizkuntza batek dituen funtzio guztiak erabiltzeko gaitasun bezala (Sanchez, 1991).

Gaur egun asko dira "Txepetx"ek hizkuntzaren ikaskuntza-prozesua eta horren erabilera irudikatu eta azaltzeko erabilitako hurbilpen teorikoa aintzat hartuz garatutako lanak (Antero, 2007; Zapata, 2007, Olasagarre eta Mugertza, 2015). Era berean, azpimarra eginez motibazioaren aldagaiak duen garrantziari. Adibidez, Olasagarre eta Ramosek (2021) hiru zutabe horietan, motibazioa ezagutzaren eta erabileraren arteko erregaitzat jotzen dute. Nolabait azalduz, horrek (motibazioak) askatzen duen energiaren bitartez norbanako bakoitzaren jokaeraren iparra eta intentsitatea zehazten dela.

Motibazioa pertsona edo talde sozial jakin bat zerbait egitera –kasu honetan hizkuntza bat ikastera eta hitz egitera– daraman emozio-iturria da (Gardner,1985; Sanchez, 1991; Yan eta Howitz, 2008; Barandiaran, 2023). Eta, oro har, motibazioan bizipen positiboek eragin zuzena dute (Gutierrez 2014; Olasagarre eta Ramos, 2021; Guirado eta Rua, 2023b). Bada, motibazioa kategoria psikologiko bat da eta pedagogiarekin hertsiki loturik dago, hain zuzen ere horrek ikas-irakaskuntza prozesuetan duen garrantziagatik (Maquillon eta Hernández, 2011; Triana et al., 2016)

Hala, hizkuntza baten ikas-irakaskuntza prozesua ikaslea motibatuz eta hizkuntzarekiko atxikimendua sustatuz bideratzea garrantzitsua izango da, ezinbestekoa izango den bezala hori guztia bizipen positiboekin konektatuz egitea (Guirado eta Rua, 2023a), batez ere bigarren hizkuntzaren jabekuntzan. Izan ere, komunikazio-antsietatea garatzen bada, ondorioak izango ditu horren ikaskuntzan eta zeresanik ez erabileran (Dewaele, 2005). Ildo horri jarraituz, Ramosek (2023) hizkuntza batean eroso hitz egiteak, hots, komunikatzeko gaitasunak duen garrantzia gogoratzen digu, azpimarra eginez horrek ere zeresan handia izango duela hizkuntzarekiko garatzen den atxikimenduan.

2.5. Antsietatea, hizkuntza-antsietatea eta bigarren hizkuntzaren (H2) jabekuntza.

Ondorengo atalean H2aren jabekuntzan eragiten duen hizkuntza-antsietateari erreparatuko diogu. Izan ere, horrek lotura zuzena dauka lantzen gatozen testuinguru sozialaren eta emozionalaren eraginarekin eta hizkuntza baten jabekuntzan, motibazioa eta horren erabileran aldagai oso garrantzitsua da. Zer esanik ez gutxiagotutako hizkuntza baten testuinguruan.

Euskal Herria, adibidez, euskararen biziberritze-prozesu betean dago (Antero et al., 2023) eta pertsona asko dira euskara bigarren hizkuntza gisa jaso dutenak (Cenoz eta Santos, 2017). Horren adibide garbia da Euskal Autonomia Erkidegoan euskara eta gaztelania hitz egiteko gai diren elebidunen % 54,8ren H1 gaztelania izatea (Eusko Jaurlaritza, 2016). Eskolari dagokionez, Martinez de Luna eta bestek (2023) azaltzen dute 2011 eta 2019 urteen artean jaso ziren datuen arabera, EAEko hezkuntza-sistemetan D ereduan ikasten zuten ikasleen erdiak baino gehiagok zutela H1 gisa erdara; zehazki ikasleen % 62ak 2011. urtean eta % 52ak 2019an. Gainera, autoreek argitaratutako ikerketaren emaitzek H1 euskara dutenen eta ez dutenen artean ezberdintasun nabariak erakutsi dituzte batzuen eta besteen hizkuntza-mailan, H1 euskara dutenak izanik maila altuena dutenak. Eta ondorioz, horrek ere eragin zuzena duela erabileran eta hizkuntzarekiko atxikimenduan.

H1 haurrak jaso duen lehen hizkuntza da, hurbileko familia eta komunitatearena eta lehengo hiru urteetan ikasten dena (Nafarroako Gobernua et al., 2017). Bigarren hizkuntza (H2), atzerriko hizkuntza edo lengua-meta gisa ere ezagutzen dena, ordea, H1aren ostean ikasi eta barneratutakoa da (Bruzal, 2007). Hala, hizkuntza-antsietatea batez ere H2ren edo H1aren ondoren ikasten diren hizkuntzen jabekuntzan, ikaskuntza-prozesuan eta horren ekintza komunikatiboan gertatzen den fenomeno da (MacIntyre eta Gardner, 1991; Santos, 2023), nolabait, horren jabekuntza kaltetu eta hizkuntza-jarrera ezkorrak sustatzen dituen (Dewaele, 2005)

Horregatik, euskararen (hizkuntzaren) sozializazioan alderdi afektiboa oso kontuan izatea komeni da, bi hizkuntzen artean erabaki behar bada logikoa da eta antsietatea eragiten digun hori alboratzea. Horregatik, gutxiagotutako hizkuntzen kasuan H2aren jabekuntza-prozesua eta bertan sentitzen diren emozioak bereziki garrantzitsuak dira (Martinez de Luna et al, 2023). Cenoz eta Santosek (2017) EAEn H1 gaztelania duten hiztun⁷ helduen euskararekiko antsietatea ikertzean adibidez, komunikazio-antsietatea eragiten duten sei faktore identifikatu zituzten: akatsak egiteko beldurra; hizkuntza-maila; solaskidearen jarrera; besteekiko alderaketa, hizkuntzaren garrantzia gizartean; hizkuntzaren garrantzia lantokian.

Antsietateari dagokionez hori definitzea ez da lan erraza. Horregatik, ezaugarri ezberdinak aintzat hartuz asko izan dira autore ezberdinek emandako definizioak (Santos, 2017).

Antsietatea beldurrarekin nahasi ohi den kontzeptu bat da, eta garrantzitsua da horiek bereiztea, ez baitute berdin eragiten nahiz eta askotan elkarrekintzan egon ohi diren. Horregatik, hain justu, Spielbergerek (1976) ezberdindu egin zituen bi kontzeptuak, azalduz, beldurra arrisku erreal batekiko dugun erreakzio (emozio) naturala dela. Hau da, beldurra unean-unean gertatzen den egoera batekin sentitzen den zerbait da, eta antsietatea, aldiz, aurreikusi ezin diren egoerengatik eta etorkizuneko estimuluengatik sortzen da (Santos, 2017).

Bigdelik eta Baiek (2009) adibidez, *The Triunal Model of Unberstanding Anxiety gisa* ezagutzen den ikuspegia proposatu zuten. Ikuspegi horrek, antsietatearen begirada multidimentsionala du eta dimentsio ezberdinetan banatzen du: fisiologikoa, psikologikoa eta filosofikoa. Alderdi fisiologikoari dagokionez, antsietatearen sintomak

⁷ Ikerketa hau Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan eta hezkuntza-erakundeetan lanean ari ziren profesional gazteen parte-hartzearekin egin zen. Bada, pertsona helduak izan ziren parte-hartzaileak.

identifikatu beharri egiten dio erreferentzia, hala nola, dardarak edo izerdi isuria. Dimentsio psikologikoak, aldiz, antsietatearen sustrai psikologikoak aztertzen ditu. Horien ustez norbanako bakoitzaren esperientziak eragiten du antsietatea eta testuinguru soziokultural konkretu baten baitan funtzionatzen du. Azkenik, alderdi fisiologikoa legoke, sinesmen eta balioetan azpimarra jartzen duena, non emozioek duten eraginari ere arreta jarri behar zaion.

Beste autore batzuek antsietatea honako kategoria hauetan banatzen dute (Cattell eta Scheier, 1961; Spierlberger, 1972): baga, antsietate-egoera. Iragankorra eta intentsitatean aldakorra dena, nolabait, unean uneko emozio errealei erantzuten diona (Wrisberg, 1994); biga, izaera-antsietatea. Norbanako bakoitzaren izaerarekin lotuta dagoena, hau da, denboran iraunkorra eta nortasunaren alderdi egonkorra dena; eta, higa, egoerari lotutako antsietate espezifikoa. Kasu honetan, unean uneko egoera zehatzei erantzuten dien antsietate mota litzateke. Adibidez, publikoaren aurrean hitz egin, elkarrizketak erantzun edo ahozko komunikazioaren azterketek eragin dezaketena. Hala, H2aren jabekuntza-prozesuan eta horren erabileran esperimentatzen denak egoerari lotutako antsietate espezifikoaren adibide garbia ematen du; hots, hizkuntza-antsietatea edo *language anxiety* deritzona (Santos, 2017).

Bada, antsietatea hizkuntzaren ikaskuntzan eta horren erabileran eragiten duen aldagai afektibo bat da (Marcela, 2019). Batzuen ustez, antsietatea orekatua bada, eragin positiboa izan dezakeena (Young, 1990; Rueda eta Chen, 2005; Marcela, 2019) eta beste askoren ustez kontrakoa. Dena dela, Santosek (2017) orain arte egin diren ikerlan gehienak ondorio negatiboek mintzo direla azaltzen du.

Horwitzek eta bestek (1986) hizkuntza-antsietatea emozioen prozesaketa egiteko eta sentitzeko modu bat dela azaldu zuten, horrekin batera H2arekiko hiru antsietate iturri zedarriz: komunikazio-antsietatea, azterketen aurreko antsietatea, eta azterketen eta ebaluazioaren aurreko antsietatea. Alabaina, hainbat dira hizkuntza-antsietateari eragiten dioten faktoreak. Faktore indibidualak, sozialak, generoari lotutakoak, linguistikoak edo-eta testuinguruarekin lotzen direnak, besteak beste (Van eta Horwitz, 2008).

Cenozen eta Santos (2017) arabera motibazioak eta hizkuntza-mailak zeresan handia dute, horien ustez hizkuntza ikasi eta erabiltzeko zenbat eta motibazio gehiago izan errazagoa izango da bai jabekuntza eta baita erabilera ere, halaber, hitz egiteko zenbat eta maila hobea izan orduan eta antsietate gutxiago sentitzen delarik. Dena dela,

garrantzitsua da gogoan izatea horietako bakar bat ere ez dela faktore isolatu bat (Santos, 2023).

Testuingurua eta hizkuntza baten eraginpean egotea aldagai garrantzitsuak dira hizkuntza baten ikaskuntza-prozesuan. Hala, aintzat hartu beharreko bi testuinguru nagusi daude: alde batetik, testuinguru naturala, eta, bestetik, eskolakoa, ikasgela barrukoa. Izan ere, komunikazio-antsietatea modu bertsuan senti daiteke bi testuinguruetan, bai ikasgela barruan eta bai kanpoan garatzen diren harremanetan (Jiménez Catalán eta Ruiz de Zarobe, 2009). Horregatik, hezkuntzan, hots, hizkuntzaren irakaskuntzan, alderdi afektiboa bereziki zaindu beharreko zerbait da (Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua, 2009).

Hizkuntza-antsietateak lau gaitasun linguistikori eragin diezaioke: hitz egiteko gaitasunari, irakurtzeko gaitasunari, idazteko gaitasunari edo-eta entzuteko gaitasunari (Santos, 2017). Oinarri teoriko honetan bada, hitz egiteko gaitasunari egingo zaio azpimarra. Izan ere, bertan lantzen ari garen hizkuntzaren erabilera informalekin hertsiki loturik dagoen gaitasuna da, eta, halaber, antsietate gehien eragiten duen ekintza komunikatiboa. Eskola testuingurura begiratuta, ahozkoasuna lantzeko ariketetan sarritan ikusi daiteke hori: entonazioa erreproduzitzeko ezintasunean, hitz egiteko erritmoan, edo hitz egiteari ezezkoa eman eta ikasleak isilik mantentzen direnean (Young, 1991). Horregatik guztiagatik, hain justu, motibazioa eta antsietatea harremanetan daude, elkarrekintzan; besteak beste, antsietate-maila jaisten den bezala, H2arekiko motibazioa igo egiten delako (Van eta Horwitz, 2008).

Bada, azken lerroetan hizkuntza baten ikas-irakaskuntzan testuinguruak, alderdi emozionalak, afektiboak, eta motibazioak duten garrantzia ikusi dugu, baita hizkuntzarekiko edo horren ekintza komunikatiboa gauzatzeko garatu daitekeen antsietatean ere. Hala, hurrengo ataletan heziketa soziolinguistikoak testuinguruaz jabetu eta hizkuntzara beste modu batera hurbiltzeko eskaintzen duen markoari egingo diogu so (Camardons, 2011) eta baita jolasek, jarduera ludikoek eta emozio positiboek hizkuntzaren jabetuntzan, horrekiko motibazioan, eta erabilera informalean eragiteko eskaintzen dituzten baliabide pedagogikoei (Esnaola eta Egibar, 2007; Guirado, 2019; Baraibar eta Bereziartua, 2023; Guirado eta Rua, 2023a; Guirado eta Rua, 2023b; Barandiaran, 2023).

2.6. Heziketa soziolinguistikoa eta ekolinguistikoa

Orain arte idatzitakoan ikusi dugun gisan hizkuntza, kultura, testuinguru soziala eta emozionala hertsiki loturik daude.

Soziolinguistikak testuinguru sozialean eta ekosistemetan gertatzen diren hizkuntzarekin lotutako fenomeno sozialak azaltzen ditu. Ekolinguistikak, aldiz, hizkuntzen ukipenen eta elkarbizitzaren aurrean gertatzen diren oreken eta desoreken gaineko diskurtso eta marko teorikoa ematen du (Antero, 2007).

Gaur egun, mundu zabalean 6.000 eta 7.000 hizkuntza hitz egiten dira, baina horietako bakoitzaren erabiltzaileen arteko desoreka nabarmena da, izan ere, aipatutako hizkuntzen %94 soilik hiztunen % 6ak erabiltzen du. Hau da, hizkuntza gehienak hiztun gutxi batzuei mugatzen dira. Horren arrazoiak askotarikoak dira, kokapen geografikoa, politika, arrazoi ekonomiko eta sozialak, ingelesa komunikazio-hizkuntza gisa lehenestea eta abar. Modu batera edo bestera, gero eta gehiago dira arriskuan dauden hizkuntza kopurua eta hizkuntzen pluraltasuna eta horien oreka arriskuan dago. Hau da, hizkuntza-aniztasuna, dibertsitate biologikoa bezala, oreka ekologikoaren erakusgarri da eta garrantzitsua da oreka horri erreparatzea; minorizatutako hizkuntzak bizirik irauteko ez ezik baita horien normalizazioari ekarpena egiteko ere (Du, 2020).

Hizkuntza-ekologia Biologiaren eremutik eratorritako kontzeptutik egindako metafora da. Hau da, ekolinguistikak aniztasun linguistikoaren, aniztasun kulturalaren eta aniztasun biologikoaren arteko harremana aztertzen du (Mühäuslerrek, 1995; Du, 2020). Adibidez, hizkuntzen eskubideen deklarazio unibertsean hizkuntza bat desagertzeak eta horren ordezkapen-prozesuak dakarren galera azaltzeko ekolinguistikaren orekari egiten diote erreferentzia (CSDU, 1998):

Con cada lengua que desaparece se altera el equilibrio ecolingüístico del mundo, y la rapidez y proliferación de los procesos de sustitución puede traer consecuencias imprevisibles que ya se empiezan a detectar en diversas patologías colectivas (13. or).

Bada, ezin da ahanzi gero eta pluralagoa den jendartean bizi garela eta azken urteetako migrazio-prozesuek Euskal Herriko testuinguru soziolinguistikoak eta soziokulturalak aldatu dituztela (Guirado eta Rua, 2023a). Beraz, Espainiako eta Frantziako estatu-nazioen lurraldeetan sakabanaturik gero eta gehiago dira Euskal Herrian elkarbizitzen duten hizkuntzak eta kulturak. Eta ekolinguistikak testuinguru berri horiei so egiteko ikuspegi berri bat ematen du. Alde batetik, tokian tokiko hizkuntza bizirik mantentzeak dakarren aberastasuna mahai gaineratuz, eta, bestetik, uniformizazioak berarekin dakarren galeraz ere bai (Antero, 2007).

Hezkuntzari dagokionez, pedagogia soziolinguistikoak hizkuntza bat gramatika bat baino gehiago dela erakusten du eta hori transmititzeko tresnak ematen ditu; hizkuntzara beste modu batera hurbiltzeko aukera (Camardons, 2011). Eta garrantzitsua

da hori, besteak beste, egingo den hizkuntza-hautuan eragin zuzena izango duelako (Erize, 2016). Lan egiteko marko orokorra emango digu, hizkuntzatik testuingurua begiratzeko eta testuingurutik hizkuntzara (Ramos eta Olasagarre, 2022). Hau da, euskara irakastearekin batera ikuspegi soziolinguistikoa eta bere baitan duen begirada komunikatiboa txertatzeak bidea zabaltzen du, eta hizkuntzarekin garatzen den harremana erakargarriagoa egin, gainera (Antero, 2007).

Pedagogia ekolinguistikoak, halaber, aipatzen gatozen fenomenoetan hizkuntzen arteko elkarbizitza orekatua planteatzeko markoa ematen du (Antero et al., 2023), diskurtso bat eta begirada bat. Ezinbestekoa hori ere, hezkuntzak berebiziko garrantzia baitu hizkuntzen arteko harremana nolakoa den eta gizarteen ondare kulturalak zaintzeko hiritar kontzienteak garatzeko orduan (Daniel, 2002).

Beraz, orain arte autore ezberdinen ekarpenekin ikusitakoa aintzat hartuz, hizkera informalak horretarako lanabesa ez ezik – komunitate hurbilera gerturaten du, harreman afektiboetan oinarritzen da, lagunartekoan, eta lotura zuzena du tokian tokiko kulturarekin eta baita hizkuntza-komunitatea osoarekin ere – , bere arau-ebak gozamenerako bidea zabaltzen du, baita sormenerako leihoa eta hizkuntzarekin jolasteko aukera ere. Ikusi den gisan euskarak badu horretarako premia, beste aro bat zabaltzeko beharra. Ezagutza hedatzeko irakaskuntzatik haurrak euskalduntzeko eta erabileran eragiteko hezkuntzara jauzi egiteko beharra; bi bideak eskutik, noski.

2.7. Aisialdia: jolasa, komunitatea, biziaren positiboak, motibazioa, erabilera

Hezkuntza ez-formalak aisialdi-antolatuen eta jolasaren bitartez hizkera informala garatu eta erabileran eragiteko erreminta pedagogikoa eskaintzen du (Guirado eta Rua, 2023b). Motibazioan eragin, hizkuntzarekiko atxikimendua sustatu (Olasagarre eta Ramos, 2021) eta hizkera informala garatzeko sormenerako espazio zabal eta askeak eskainiz (Zabaleta, 2007).

Une bakoitza gozagarria izango bada ludikoa izan behar da, zalantzarik gabe (Esnaola eta Egibar, 2007). Eta aisialdia bere horretan horixe da, gure denbora librean, nahieran, gozatzeko egiten dugun oro (Coyos eta Baxok, 2011). Berastegi eta bestek (2017) gainera, haratago doan jauzia egiten dute aisialdiaz mintzo direnean, azalduz, aisialdia betebeharrak profesionalengatik, familiarrengatik edo sozialengatik askatzeko egiten den borondatezko ekintza dela, oro har, ondo pasatzeko, ikasteko edo komunitatean parte hartzeko gauzatzen dena. Aisialdi hezitzailea, aldiz (edo horrez gain), aipatutako aisialdi une horiek bideratzeko antolatzen den ekintza hezitzailea da (Sindic de Greugesen, 2014; Baraibar eta Bereziartua; 2023; Barandiaran, 2023).

Baraibar eta Bereziartuak (2023) jolasa aipatzen dute aisialdi hezitzailea antolatu eta bideratzeko berariazkoa den erreminta pedagogiko nagusitzat. Izan ere, horren bitartez emozio positiboak sustatzen dira (Dosil et al., 2023) eta jolasean ari den pertsonaren dimentsio biologikoa, kognitiboa, emozionala eta erlazionala islatzen ditu eta baita horiek adierazteko espazio askeak ere (Millares et al. 2017).

Ez da erraza jolasa definitzea, aldagai asko ukitzen dituen kontzeptu konplexuegia baita definizio batean jasotzeko (Extremera eta Montero, 2016). Johan Huizingak (1938, Aizengcangek aipatua, 2005) adibidez, jolasa fenomeno kultural gisa azaldu zuen. Horren aburuz, jolasaren egintzak berak, horrek dakarren prozesuak, edo hausnarketak garrantzia bera dute eta imajinario kolektiboaren parte dira. Hau da, jolasa fenomeno soziala da, dibertitzeko, denbora pasatzeko, entretenezko edo festarako adierazpen bat baino gehiago (Benítez, 2009).

Jolasa bera hezitzailea da eta horren transmisioak, aisialdi hezitzailearen bitartez, komunitatera gerturatzeko, komunitateak sortzeko eta horiek kohesionatzeko aukera ematen du; eta, baita eraldaketa sozialerako ere (Dosil et al., 2023), azkenean jolasa bera komunitatearen historiaren parte baita (Falcettoni, 2020). Hortik jolas batek herri batean hartzen duen aldaera, edo beste batean topatzen duguna, guztiz ezberdinak izatea. Izan ere, herri bakoitzaren idiosinkrasiaren arabera transmititzen dira belaunaldiz belaunaldi (Ramos eta Maya, 2022). Fenomeno hori etnoludikotasun bezala ezagutzen da (Baraibar eta Bereziartua, 2023).

Baraibar eta Bereziartuak (2023) hizkuntzak etnoludikotasunaren isla izaten direla azaltzen dute. Euskaraz, adibidez, jolasa eta jokoa ezberdintzen dira. Lehena (jolasa), parte-hartzailea, gozamenera zuzendua eta sortzailea dena litzateke, besteak beste. Eta bigarrena (jokoa) aldiz, lehiakortasuna erdigunean duena, irabazlea/ak eta galtzailea/k dituen. Gaztelaniaz, haatik, hizkuntzak berak ez ditu bi adiera horiek. Argi ikus daiteke, adibidez, Falcettonik (2020) emate duen azalpenean, non, jolas lehiakorra (*juego competitivo*) edo parte-hartzailea (*juego participativo*) ezberdintzen dituen.

Jolas eta joko bakoitza jarrera motore ezberdinak eragiten dituen sistema praxiologikotzat har daiteke. Eta jarrera motore horiek dira, era berean, jolasaren bitartez emozio gehien estimulatu dituztenak (Jaqueira et al., 2014). Bada, jolasa emozio positiboen iturri da, eta esperientzia positibo horiek motibazio intrintsekoa sustatzen eta garatzen dute (Gutierrez, 2014). Jolasa edo jokoa haurren, nerabeen edo helduen hezkuntza-prozesuetan garapen ebolutiboaren arabera erabiltzen dira, heldutasun-mailak aurrera egin ahala jokoa gero eta gehiago integratuz. Halarik ere, Baraibar eta

Bereziartuak (2023) jolasak bizitza guztian zehar presente egotearen garrantzia azpimarratzen dute, horrek bizipen positiboen bitartez norbanakoaren eta kolektiboaren osasunean egiten duen ekarpenagatik.

Jolasek, oro har, antzekoa den patroia bat jarraitzen dute apendizai sistema interpersonean garatzea ahalbidetuz. Horregatik, hezkuntza formalaren zein ez formalaren testuinguruetan, hezitzaile-ikasle eta berdinen arteko elkarrekintzaren bitartez, haurrak inguratzen dituen testuinguru kulturalak eskaintzen dizkion baliabide kognitiboak eta komunikatiboak eskuratzen ditu (Mogrovejo et al., 2019). Hala, jolas eta jokoen barruan hizkuntzaren ikas-irakaskuntza prozesuak bideratzeko askotarikoak dira horiek baliatzeko aurkitzen diren formak: jolas kooperatiboak, jolas musikatuak, gorputza adierazpena lantzeko jolasak, imitazio jolasak, ahozko jolasak edo lehiakortasun gehiago edo gutxiago sustatzen duten jokoak –euren funtzio sozialaren arabera kirola izan daitezkeenak edo ez–; besteak beste (Baraibar eta Bereziartua, 2023).

Euskal Herrian euskarak duen egoera minorizatuari so eginik eta arestian aipatutako horregatik guztiagatik hain zuzen ere, berebiziko garrantzia hartzen du eskolan eta eskolaz kanpoko aisialdiaren kudeaketak. Izan ere, eskolaz kanpoko jardueri dagokienez batik bat, bertan euskararen presentzia oso ahula da eta haurren arteko interakzio linguistikoa eta soziala ikasgela kanpoko paretetatik garatzea zaila egiten da. Bada, hizkuntzaren sozializazioa ez da gertatzen aisialdiak eskaintzen dituen espazio natural eta positiboetan eta horrek hizkuntza ohituretan eragin zuzena dauka (Martinez de Luna et al., 2023).

Euskarak aisialdi-antolatuan duen presentzia urria aipatzea gain, interesgarria iruditzen da aisialdia eta euskararen aferaz hitz egitean genero ikuspegia txertatzea. Izan ere, Oruesagasti eta bestek (2014) azaltzen duten gisan, euskaraz garatzen den aisialdi-antolatuan, urria izanik ere, genero arrakala egon ohi da eta horrek eragina du batzuen eta besteen euskararen erabileran. Neskek aisialdi-eremu euskaldunenetan, izan kultura-jardueretan, dantzan, edo musikarekin lotutako beste hainbatetan, parte-hartze handiagoa izaten dute eta horrek, autoreen arabera, bere isla duela hizkuntza-hautuan: “neskak dauden tokietan, aisialdi arautu horretan, hizkuntza-irizpideak askoz arautuagoak eta garatuagoak daude” (76. or). Era berean azaltzen dute batez ere neska gazteek, euskara gehiago hitz egiten dutela eta, oro har, euskararekiko atxikimendu-maila altuagoa adierazten dutela.

2.7.1. Jolasa ahozketasuna lantzeko hizkuntza-estrategia gisa.

Egoki bideratutako jarduera ludikoekin, jolasaren bitartez, hizkuntzaren jabekuntza-prozesuan eta horren erabileran ikaslea motibatzen ditugu, bide batez, egoera errealean horizontalagoak diren harremanak sustatuz eta elkarrekin bizitzen ikasteko beharrezkoak diren gaitasunak garatuz (Mogrovejo et al., 2019).

Jolasaren bitartez ikasleen arteko elkarrekintza sustatzen da eta sortutako egoera informalean eskuratutako baliabide linguistikoak partekatzeko espazioak sortzen dira, ondoren familia eta ikastolaz-kanpoko lagunekin ere partekatu daitezkeenak. Izan ere, jolasak eta jarduera ludikoak ikasgela barruan zein kanpoan dira aplikagarriak eta testuinguru errealeara gerturatzen gaituzte (Ramos eta Maya, 2022).

Ahozketasuna lantzeko jolasak hizkuntza bat ikasi eta horren erabilera sustatzeko erreminta pedagogiko bikaina dira. Rodríguezen (2021) arabera ahozko jolasak lexikoa aberastu eta ahozketasunaren garapenean eragin positiboa dute. Gainera hizkuntza lantzea helburu duten jolasek, hizkuntzaren ikas-irakaskuntza prozesua motibagarriagoa, aktiboagoa eta interesgarriagoa egiten dute. Horregatik, curriculumaren diseinuan kontuan izan beharreko ekintza pedagogikoa da jolasa, bereziki hizkuntzen ikas-irakaskuntzan, izan ere, H2aren jabekuntza-prozesua errazteko baliabidea da (Díaz, 2012).

Jolas eta jokoen, bereziki testuinguru bakoitzera egokitzen diren tradizionalek, hizkuntzaren didaktikan erabiltzeak honako abantaila hauek ematen dituzte (Ramos eta Maya, 2023, 573.or):

- 1) Ikaslea ikaste-prozesuan motibatzen dute.
- 2) Sormena eskatzen duten erronken aurrean ikasleari ekintzarako bidea errazten diote.
- 3) Hizkuntza-maila baxuagoa duten ikasleei lagundu eta elkarren atean kolaboratzeko aukera ematen dute.
- 4) Emozionalki lagungarriak dira, antsietatea eta frustrazioa bezalako esperientzia psikologikoak ekiditeko.

Beraz, orain arte aztertutako guztiarekin, esan genezake, jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez eremu formalean euskarazko hizkera informala garatzeko sormen espazioak eratu eta esku-hartze pedagogikoak bideratzeko aukera dagoela (Zabaleta, 2007). Haurren aisialdiaren testuingurura zedarrituz, horiei esperientzia positiboak eskainiz eta motibatuz; euskaraz hitz egiteko, ekiteko, ikasteko, harremantzeko eta

gozatzeko (Olasagarre eta Ramos, 2021). Izan ere, aisialdiak motibaziotik erabilerara dagoen zubia eraikitzen du (Guirado eta Rua, 2023b).

Bada, eskola edo ikastola testuingurura etorrira aisialdi gune eta une ezberdinak topatzen ditugu, eta bertan ikaste-orduetan edo testuinguru informal ezberdinetan aisialdi hezitzailea antolatu eta espazio horretan euskararen ikas-irakaskuntza bideratu eta erabileran eragiteko abagunea topatzen dugu; euskararen arnagune diren euskarazko ekosistema osasuntsuak eratuz (Aire, 2023; Baraibar eta Bereziartua, 2023).

2.8. Ahozkotasunaren lanketa, hizkera informala eta pedagogia soziolinguistikoa

Gutxiagoturako hizkuntza baten erabileran eragiten duten faktoreak hainbat dira eta horiek aintzat hartzea ezinbestekoa da euskararen ikas-irakaskuntza prozesuak prestatzeko. Faktore horien artean daude: ama hizkuntza (H1); hizkuntza-maila ona ez edukitzeak komunikatzeko dakartzan zailtasunak (hiztun osoak sortzearen beharra); testuinguru sozialak hizkuntzaren erabileran duen eragina; hizkuntza ikasi den testuinguru emozionalak eta horrekiko garatzen den harreman afektiboak duen garrantzia; hizkuntzarekiko atxikimenduak eta motibazioak hizkuntza hautuan (*language choice*) jokatzeko duten ezinbesteko papera; eta hizkuntza-ideologia deritzona (Cenoz eta Santos, 2017; Guirado, 2021; Arruti eta Prieto, 2022). Bada, ikaskuntza-prozesuaren nolakotasuna eta erabilera bera hertsiki loturik daude, eta euskarak izaera akademikotik harago doan funtzio soziala betetzeko, tartean lagunartean eta testuinguru informaletan haur eta gazteek erabiltzen duten hizkuntza bilakatzeko, ezinbestekoa izango da hezkuntzak aldagai horiei erreparatuz lan egitea.

Nazio Batuen Erakundeak 2030eko agenda onartu zuen 2015eko Batzar Orokorrean. Bertan etorkizuneko erronka nagusiei so eginik 17 helburu definitu zituen. Antero eta bestek (2023) 17 horiei 18. bat gehitu diete Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra idaztean, eta horrek, gutxiagotutako hizkuntzak aintzat hartuta, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna zaintzeko eta garatzeko beharraren helburuari erantzuten dio.

Ikastolen HMO⁸ean euskararen biziberritze eta horren ikas-irakaskuntza prozesuetan orain arte egindakoari so egin ostean, horren normalizazioaren bidean Euskal Herriko hezkuntzak aurrean dituen erronka nagusiak zehazten dira. Horien artean egonik euskal hiztun osoak diren pertsonak garatzen laguntzea. Hala, euskara estandarra edo akademikoa irakastearekin batera, ikastolen egungo jardun pedagogikoan hiru lan-ildo

⁸HMO: Hezkuntza Marko Orokorra

edo arlo hauek egon behar direla zehazten da: curriculum soziolinguistikoa eta ekolinguistikoa garapena; euskarazko hizkera informalaren bitartez mintzoaren adierazkortasuna edo ahalmen espresiboaren lanketa egitea; eta euskal kulturgintza modu sortzailean bizitzeko baliabide eta testuinguruak erraztea (ikus 3. taula).

6. Taula

HMOean jasotzen denaren arabera ikastoletako jardun pedagogikoan egon biharko liratekeen lan-arloak

Curriculum soziolinguistikoa eta ekolinguistikoa	Bai curriculum soziolinguistikoa, hizkuntza eta gizartearen arteko harremanean gertatzen diren fenomenoak ulertzeko, eta ekolinguistikoa, hizkuntzen arteko elkarbizitza orekatu baterako baldintzak planteatzeko.
Mintzoaren adierazkortasuna edo ahalmen espresiboa	Gure tanga edo deposituak galtzen duen likidoaren zati batean euskarak duen potentzia espresiboa joate ari zaigu. Askoz ere potentzia komunikatibo handiagoa eskaintzen diete gazteei gaztelaniak eta frantsesak. Euskarak badu horretarako gaitasuna, baina gazteek desberdin hautematen dute, besteak beste, helduengan ere ez dagoelako errotuta. Ahalmen espresiboa indartzeko ahozko euskalkiak erabili behar ira, bizirik dauden eremuetan. Gainerako eremuetan berriz, nork bere hizkera erabili behar du. Hala, eremu horietan zenbat eta gehiago egin, orduan eta hizkera berri gehiago sortuko dira, betiere batutik gertu.
Euskal kulturgintza modu sortzailean bizitzeko baliabideak	Haur eta gazteei kulturgintza modu sortzailean eta parte-hartzailean aritzeko baliabideak eskaintzea garrantzitsua da. Bertsogintzara eta literaturara bideratzeko testuinguruak sortu ditugula esango genuke, baina urrats bat gehiago eman beharrean gaude.

Iturria: Antero et al. (2023, 36-38. or)k. Norberak egina.

Bada, pertsona euskaldunak hezteko hiru ardatz nagusi zehazten dira. Eta etorkizuneko euskararen ikas-irakaskuntza prozesuetan horiek presente izatea garrantzitsua izango da.

Horretarako, hau da, hiru ardatzen lanketa bideratzeko, ikastolen Hizkuntz Proiektuak gela barruko zein kanpoko eremu pedagogikoak baliatzen ditu (Elorza et al., 2009), eta garrantzitsua iruditzen da marko honetan ikastola-testuinguruan bi espazio horiek, eta horietarako aurrezartzen diren hizkuntza-helburuek duten garrantzia azpimarratzea (Antero 2023; Baraibar eta Bereziartua, 2023; Elorza et al., 2009). Besteak beste, ikastolako eremu formalak zein ez-formalak baliatzen dituen hizkera informalaren ikas-irakaskuntza prozesuan jarri nahi delako begirada.

Modu berean, irakasleek eta hezitzaileek haurren aurrean euskarari ikas-irakaskuntzari dagokionez, duten rolaren garrantzia handia da, euren hizkuntza-jarrerek, sustatzen dituzten hizkuntza-ohiturek eta euskararekin egiten duten erabilera

erreferentea baita. Izan ere, haurrek euren hizkuntzaren jabeakuntza prozesuan, entzunez eta imitazioaren bitartez (ere) ikasten dute (Etxeberria, 2003). Gainera, erreferentzialtasun horrek ondoren egingo duten erabilera garrantzia handia dauka (Artola, 2013; Eizmendi et al., 2007; Martinez de Luna et al., 2023).

2.9. Hizkera informalaren ikas-irakaskuntza ikertu beharraz

Ikerlan honetan bada, pertsona euskaldunak hezteko pedagogia soziolinguistikoa ardatz izanik euskarazko hizkera informalaren lanketa egiten duen proiektu batean jarriko dugu arreta. Izan ere, Euskaltzaindiak egungo euskal komunitatearen garapenerako galdegai nagusietako bat hizkera informalaren afera dela aipatzen du, eta, hizkera informalak gazteen ahozko komunikazioaren % 80 inguru betetzen badu ere, horren inguruan gutxi ikertu dela azaltzen du (Euskaltzaindia, 2023), are gutxiago eskolan eta haurren hitza eta bizipenak aintzat hartuz. Guk behintzat ez dugu modu sistematiko eta iraunkor batean hizkera informala lantzen duen eta ebaluatua izan den esku-hartze pedagogiko orokorturik topatu⁹.

Horrez gain, ikerketa honen helburua ere bada hezkuntza arautuan hizkuntzaren funtzio soziala balioan jartzea; hots, lagunarteko hizkera informala lantzeak eta horren bitartez euskararekiko eta komunitatearekiko atxikimendua eta motibazioa sustatzeak duen garrantzia azpimarratzea. Besteak beste, hizkera informalak hitz egiten dutenen artean harreman afektiboa garatzeko aukera ematen duelako, bai haurren arteko harremanetan, baina baita ikasle-irakasle harremanean ere (Guirado eta Rua, 2023a).

Ikastolan eratzen diren hizkuntza-ekosistemak gune erabakigarriak dira hizkuntzarekiko garatzen den harremanean eta atxikimenduan, eta, beraz, ardura handia du bide horretan (Gartziarena eta Altuna, 2022). Hau da, orain arte bata bestearekin lotuz azaltzen gatozen – hizkera informala – komunitatea – testuingurua – atxikimendua – motibazioa – erabilera – amalgaman. Hala uste dugu guk behintzat.

3. Ikerketa-lanaren iker-objektua, helburuak eta ikerketa-galderak

Atala honetan ikerketa-lanaren iker-objektua, helburuak eta ikerketa-galderak azaltzen dira, hain justu hurrenkera hori jarraituz.

⁹ Hizkera informala lantzeko programa batzuk aurkitu dira, adibidez, Urtxintxaren "Gazte hizkerarekin jolasean". Hala ere, ez da topatu horren aplikazioaren informaziorik, ez-eta egindako ikerketen emaitzik ere. Galdetu ahala jakin da ez dela horren aplikazio sistematiko eta orokorturik egin.

Ikerlan honen iker-objektua Nafarroako eremu mistoan kokatzen diren bi ikastolatan, hau da, hezkuntza formalean, heziketa soziolinguistikoa ardatz eta jolasa erreminta pedagogiko gisa erabilia euskarazko hizkera informala lantzen ari diren haurren eta irakasleen bizipenak ezagutzea eta ulertzea da. Modu horretan, prozesuak berak parte-hartzaileengan utzitako bizipenak aztertzeke eta ondorioak ateratzeko.

3.1. Helburuak

- Hizkera informala, jolasa eta jarduera ludikoen bitartez landuz euskaraz jarduteko haurren motibazioa eta hizkuntzarekiko atxikimendua areagotzen den ezagutzea.
- Haurren bizipenetatik abiatuz euskara sustatzeko eta lantzeko hizkuntza-estrategia egokienak zein diren antzematea.
- Haurren bizipenetatik abiatuz jolasaren bitartez landutako euskarazko hizkera informalaren jabekuntzak komunikazio-antsietatean eragina duen aztertzea.
- Ikastola testuinguru formala izanik, hizkera informala lantzeko irakasleek izan dituzten mugak, erraztasunak eta beharrak ezagutzea.

3.2. ikerketa-galderak

1. Hezkuntza formalean hizkera informala jolasa eta jarduera ludikoen bitartez lantzeak ikasleek euskara ikasteko eta hitz egiteko sentitzen duten motibazioa eta euskararekiko atxikimendua areagotu dezake?
 - 1.1. Ba al dago ezberdintasunik H1aren eta generoaren arabera bizipen eta pertzepzio horietan?
 - 1.2. Zein da haurrekin euskarazko hizkera informala lantzeko hizkuntza-estrategia eraginkorrena?
2. Zein da hizkera informalaren lanketa ludikoak, ezagutzak eta horren erabilerak euskarazko komunikazio-antsietatearekiko utzitako bizipenak eta haurren pertzepzioak?
 - 2.1. Ekintza-komunikatiboa garatzen den testuinguruak influentziarik badu hizkuntza-antsietatean?
 - 2.2. Ba al dago ezberdintasunik H1aren eta generoaren arabera bizipen eta pertzepzio horietan?
3. Ikastola hezkuntza-testuinguru formala izanik, zein dira horren lanketarako

irakasleek izan dituzten zailtasun eta erraztasun handienak?

- 3.1. Eremu formalean hizkera informala lantzeko beharrezkoa al da irakasle eta hezitzaileentzako prestakuntza espezifikoak garatzea?

4. Metodologia

Ondorengo orrialdeetan aurrezarritako helburuak erdiesteko paradigma pragmatikoaren aterkipean garatutako ikerlan bat aurkezten da. Hau da, arazo edo fenomeno baten analisisa egiteko erabiltzen diren metodologia-estrategia ezberdinetan oinarrituz, ikerketa-arazoaren ulermen zabalagoa errazten duen paradigman (Pereira, 2011; Bernales et al., 2015). Izan ere, metodo kualitatiboak eta kuantitatiboak uztartuz, horiek bakarka izan ditzaketen hutsuneak bakoitzaren indarguneekin osatzen dira (Forni eta De Grande, 2019; Campos, 2021).


Hala, metodo kualitatiboak ikuspegi fenomenologikoa eman dio ikerketari, modu horretan, besteen ikuspuntua ulertzeko aukera zabalduz eta parte-hartzaileen bizipenetara gerturatuz (Habermas, 1988). Gainera, jarrera kritiko eta emantzipatzailearekin ikerketa bera hezitzailea bihurtzen denez, landutako gaiaren inguruan parte-hartzaileak ahalduntzea ere izan da xedea (Cotan, 2016). Metodo kuantitatiboak, aldiz, jasotako informazioa hain sakonekoa ez izanik ere, unibertso zabalago batera iristeko eta jasotako datuak estatistikoki aztertzeke aukera ematen du (Lukas eta Santiago, 2016), eta hain justu, horretarako baliatu da, hots, emaitza sendoagoak eta zabalagoak eskuratzeko.

Ikerketa diseinuari dagokionez, jarraitutako eredua konkurrentea¹⁰ izan da. Diseinu hau metodoen konkurrentziagatik ezaugarritzen da. Izan ere, metodo honen bitartez, fenomeno berdin baten baitako dimentsio ezberdinen inguruan, aldi berean egiten dira azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa. Hala, diseinu horren baitan datuak eta informazioa bananduta jasotzen dira eta ondoren jasotako erantzunak konparatu egiten dira, bi metodoen triangulazio konparatiboa eginez eta metodo bat bestearen gainetik gailendu gabe (Escalante et al., 2020; Lukas eta Santiago, 2016).

¹⁰ konbergente edo paralelo gisa ere ezagutzen da.

2. Irudia

Triangulazio-estretagiaren irudi-adierazpena



Iturria: Lukas eta Santiago, 2016. Noberak egina

Hala, informazio kualitatiboa jasotzeko hurrekin egindako bi talde-elkarrizketa egin dira eta irakasleekin beste bat. Eta horrekin batera, ikerketan parte hartze duten pertsona guztiengana iristeko eta datu kuantitatiboak jasotzeko, galdetegiak prestatu eta *google forms* baliabidearen bitartez pasa dira.

Modu horretan, talde-elkarrizketetan jasotako erantzunetan egon litezkeen elkarren arteko eraginetatik eratorritako informazioa ekidinez eta bizipen horien nolakotasuna, orokorrean eta hautatutako aldagaien arabera antzekotasunik duten edo ez aztertzeko.

4.1. Parte-hartzaileak

Parte hartzaileak Euskaltzaindiak, Ikastolen Elkartearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin batera euskarazko hizkera informala lantzeko garatutako Arikala programa aplikatzen ari diren bi ikastolatako LH5eko ikasleak, irakasleak eta hezitzaileak dira. Hain justu, hezkuntza formalean aisialdi-antolatua eta jarduera ludikoen bitartez, Euskal Herri osoan, hizkera informala lantzen eta horrek haurren euskararen erabileran duen eragina neurtzen ari diren 10 ikastolatatik¹¹ Nafarroako testuinguruan kokatzen direnak. Programa 2022-23 ikasturtean jarri zen martxan eta 2023-24koa bigarren ikasturtea izan dute. Programak izandako eragina jolasgaraietan eta bazkalosteko aisialdi-uneetan gauzatzen diren elkarrizketak behatuz neurtzen da, esku-hartzea baino lehen eta ondoren.

Hala, ikerlan honetan, erabilera-neurketek emandako emaitzetatik harago jarri nahi izan da begirada. Horretarako, programa aplikatzen ari den bi ikastolatan garatu den ikas-irakaskuntza eta hezkuntza-prozesua haurren, irakasleen eta hezitzaileen bizipenetatik aztertuz.

¹¹ Programan parte hartze duten ikastolak lurraldeka: 2 Xilaban (Ipar EH), 2 Gipuzkoan, 2 Araban, 2 Bizkaian eta 2 Nafarroan.

Hautatutako bi ikastolen testuinguru soziolinguistikoari dagokionez, Euskararen Foru Legearen arabera, eremu mistoan kokatzen dira. Bada, ikastolak kokatzen diren testuingurua ez dago, euskarari dagokionez behintzat, eremu erraz batean. Izan ere, ikastola horiek euskaldunak soilik biztanleen % 12,6 diren eremu batean kokatzen dira¹² (Nafarroako Gobernua, 2021).

Parte-hartzaile guztietatik Nafarroako lurralde historikoan kokatzen diren ikastolak hautatzeko arrazoi nagusia, ikastola horietako batean programaren hartzaileak izan diren hurrek euren tutoreari egindako opari bat izan da (ikus 3. eranskina). Izan ere, egin ziren neurketen arabera, erabilerari dagokionez, ikastola horretan (eta baita bestean ere) oso eragin apala utzi zuen programak, baina ikasturtea amaitzean hurrek irakasleari bera agurtzeko hizkera informalez apaindutako opari bat egin zioten¹³. Hain justu, landutako euskarazko hizkera informaleko esapideak idatzirik agertzen diren poltsa bat. Beraz, aipatu bezala, euskararen erabilera-neurketak iritsi ezin diren horretara iristea izan da asmoa. Zein diren, testuingurua aintzat hartuta, haurren, hezitzaileen eta irakasleen bizipenak eta pertzepzioak.

4.1.1. Haur parte-hartzaileak

Ikerketan LH 5. mailako, hau da, 9-10 urte bitarteko $n=86$ haur izan dira parte-hartzaileak. Horietatik % 53,48 ($n=46$) neska gisa identifikatu¹⁴ dira eta % 46,51 ($n=40$) mutil bezala. Hala, eurak galdetegi bitartez emandako informazioaren arabera, ondorengo lerroetan aurkezten direnak dira osatzen duten hizkuntza-eskosistemaren eta inguratuak dauden testuinguru soziolinguistikoaren ezaugarriak eta informazioa.

Haurren H1ari dagokionez, H1 gisa gaztelania dutenak parte-hartzaileen % 30,2 ($n=42$) dira. H1 bezala beste erdara bat jaso dutenak % 5,8 ($n=5$). Euskara eta erdara dutenak % 48,5 ($n=26$); eta, % 15,1ek ($n=13$) euskara dute jasotako lehen hizkuntza.

Etxeko hizkuntza ohiturez erreparatuz, % 47,7 ($n=41$) gaztelaniaz mintzo da bere etxean; % 4,7 ($n=4$) beste erdara batean; % 40,7k ($n=35$) euskaraz eta gaztelaniaz; eta, soilik, % 7 ($n=6$) da etxean euskaraz mintzo dena. Ikastolaz kanpoko jardueri dagokionez % 81,4k ($n=70$) gaztelaniaz garatzen diren jardueretan parte hartzen dute. Eta aisialdian

¹² Eremu euskaldunean: % 62,3 euskalduna da. Eremu mistoan % 12,6. eremu erdaldunean 1,6 (Nafarroako Gobernua, 2021).

¹³ Ikastolako arduradunek esan dute haurren inizatiba izan dela eta euren kabuz familiekin hitz eginda prestatutako oparia izan dela.


¹⁴ Galdetegian generoa identifikatzeko 3 aukera eman dira: neska, mutila eta beste bat. Modu horretan, xedea izan da ikuspegi binarioa baztertu eta identitate guztiak aitortzeko eta ikerketan aintzat hartzeko bide ematea, hala, sexua eta identitate ezberdinen bazterketa ekidinez.

lagunartean egiten duten euskararen erabilera adierazteko aldiz, 1etik 5erako eskalan $\bar{x}=2,6$ koa izan da ($dt=,813$), beraz, baxua. Soilik parte-hartzaileen % 3,5ak baloratu bere erabilera 4 (nahikoa) eta 5aren (asko) artean.

Ikerketan parte hartzen dute haurren ekosistemaren profil linguistikoa deskribatzeko asmoz, euren hizkuntza-hautuaren zergatiaren inguruan ere galdetu zaie. Zenbateraino den ohituragatik, erraztasunagatik edo hautu kontziente batengatik galdetuz, hain zuzen ere. Hala, ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala, hizkuntza-ohitura ($\bar{x}= 4,01$) eta erraztasuna ($\bar{x}= 3,35$) dira kasu honetan hizkuntza-hautua egiteko arrazoi nagusia; ohitura izanik gailentzen dena.

3. Irdia

Haur parte-hatzaileen hizkuntza-hautuaren arrazoiak



Iturria: Norberak egin.

Euskarari haurrek ikusten dioten funtzioari dagokionez %53,3ak ($n= 45$) euskara ikastolarekin lortzen du. % 32,6k ($n= 28$) ikastolarekin eta familiarekin, eta soilik % 15,1ak ($n= 13$) kaleko lagunekin, ikastolarekin eta familiarekin.

Bada, esan daiteke Nafarroako eremu mistoaren barruan testuinguru soziolinguistiko erdaldunetan kokatzen diren ikastoletako haurrak direla ikerketan parte hartzen dutenak. Orobat, testuinguruak baldintzatuta, gaztelaniaz nagusiki ohituraz edo erraztasunagatik hitz egiten dutenak. Eta euskarari, batik bat, eremu akademikoko funtzioa ikusten diotenak.

4.1.2. Irakasle eta aisialdiko hezitzaile parte-hartzaileak

Ikerketan parte hartu duten irakasleak ($n= 4$) eta aisialdiko hezitzaileak ($n= 2$) guztira $n=6$ izan dira. Kasu honetan, irakasleak ikasle-taldeentzako tutoreak izan dira, beraz, ingelera eta gorpuz heziketa izan ezik beste ikasgai guztien irakasleak. Aisialdiko hezitzaileak, aldiz, beren beregi esku-hartzea bideratzera joan direnak.

Ondorengo taulan parte-hartzaile guztien laburpena aurkezten da (ikus 8. taula).

7. Taula

Haur, irakasle eta hezitzaile parte-hartzaileak

	1.IKASTOLA	2.IKASTOLA	GUZTIRA
Haurrak (n)	A gela: n= 20 B gela: n= 19	A gela: n= 24 B gela: n= 23	n= 86
Haurren profil linguistikoa	H1 gaztelania: n= 16 H1 beste erdara bat: n= 3 H1 euskara eta gaztelania: n= 21 H1 euskara: n= 4	H1 gaztelania: n= 23 H1 beste erdara bat: n= 4 H1 euskara eta gaztelania: n= 11 H1 euskara: n= 6	
Irakasleak (n)	n= 2 Tutoreak dira, beraz ingelera eta gorputz heziketa izan ezik beste ikasgai guztien irakasleak dira.	n= 2 Tutoreak dira, beraz ingelera eta gorputz heziketa izan ezik beste ikasgai guztien irakasleak dira.	n= 4
Hezitzaileak (n)	n=1	n= 1	n= 2
			n= 92

Iturria: Norberak egina.

4.2. Datuak biltzeko teknikak, eta instrumentuak

Ikerketa honetan datu kualitatiboak eta kuantitatiboak jasotzeko teknikak erabili dira. Teknika kualitatiboa izan da ikasleen sentimenduak, jarrera, emozioak, hau da, bizipenak jasotzeko eta interpretazio sakon bat egiteko modua (Santos, 2023). Eta teknika kuantitatiboa gainontzeko ikasleengana iristeko modua izan da, jasotako datu kualitatiboetatik abiatuz euren bizipenen eta pertzepzioen inguruan galdetzeko bidea, alegia.

Datu kuantitatiboak eta kualitatiboak biltzeko bi instrumentu erabili dira. Kualitatiboak jasotzeko aurretik prestatutako gidoi batez osatutako elkarrizketa erdiegituratua erabili da, eta, kuantitatiboak jasotzeko, aldiz, *google-forms* galdetegiak.

- *Elkarrizketak*: datu kualitatiboak jasotzeko talde-elkarrizketa erdiegituratuak gauzatu dira. Ikasleei zuzendutako elkarrizketa 16 galderekin prestatu da, irakasleena 6 galderekin eta hezitzailearena beste 6 galderekin (ikus 5,6 eta 7 eranskinak).

Elkarrizketatuak hautatzeko prozesua honako hau izan da:

- *Haurrak*: Lehen eta bigarren hizkuntzaren baldintza ikasgeletan azaldu eta elkarrizketatutako haurrak boluntarioak izan dira.
- *Irakasleak*: Oparia jaso zuen irakasleari hots egin zaio eta bestea boluntario azaldu da elkarrizketan parte hartzeko.
- *Hezitzailea*: Elkarrizketatuak izan diren herri berekoa den hezitzaileari egin zaio elkarrizketa. Parte hartzen duten bi ikastolak dinamizatzen dituen hezitzaileetako bat da.

Elkarrizketatu diren pertsonak 1. ikastolako 8 haur, 2 irakasle (tutoreak) eta aisialdiko hezitzaile 1 izan dira. Hau da, guztira 11 elkarrizketatu.

Elkarrizketak egiteko haurrak 4ko 2 taldetan banatu dira; euren H1aren (ama hizkuntza) arabera. Genero aldetik 4 haur eta 4 neska izan dira haur parte-hartzaileak.

Irakasleak, aldiz, emakumezko bat eta gizonezko bat. Hezitzailea, ordea, gizonezko 1 (ikus 9. taula).

8. Taula

Elkarrizketatuak

HAURRAK	H1 euskara eta gaztelania	n= 4 3 (neska) + 1 (Mutil)
	H1 erdara: - Arabiera - Gaztelania. - Gaztelania/Alemaniera	n= 4 3 (Mutil) + 1 (Neska)
IRAKASLEAK	n= 2 Gizonezko 1 (55-60 urte bitarte) eta emakumezko bat (30-35 urte bitarte)	
HEZITZAILEA	n= 1 Gizonezko 1 (25-30 urte bitarte)	

Iturria: Norberak egina.

- *Galdetegiak*: Programan parte hatzen duten bi ikastoletako gainontzeko ikasleei, irakasleei eta hezitzaileei iristeko "ad hoc" galdetegiak sortu dira, ondoren, *google forms* baliabidearen bitartez digitalizatuak izan direnak. Ikasleen kasuan 29 itemenekin osatzen da galdetegia, ekarpen kualitatiboak egiteko amaieran ematen den aukera aske batekin. Bertan jasotako galderak, oro har, haurrek elkarrizketetan emandako informazioa eta Martinez de Luna eta bestek (2023) egindako ikerketa-lanean aintzat hartutako aldagaiak erreferentzia gisa hartuz prestatu dira. Hala, 29 item horietatik 8k

ikerketan hau egiteko sortua izan den EEAMA¹⁵ galdetegi-eskala osatzen dute. Hain justu, programak euskararekiko motibazioan, atxikimenduan, eta komunikazio-antsietatean haurrengan utzitako bizipenen pertzepzioak jasotzeko sortutakoa. Hezkuntza esku-hartzea aztertzeko mikro-instrumentu bat (Jornet et al., 2012), alegia. Hori, marko teorikoarekin koherentzia eta hurrek elkarrizketetan erabilitako hizkera aintzat hartuta izan da garatua. Itemak 1-5 baloreen arteko eskalan oinarrituak prestatu dira.

Hala, galdetegia hurrek ongi ulertzen zutela eta horren barne-sendotasuna, fidagarritasuna zein baliagarritasuna ahalik eta gehien bermatzeko asmoz, hiru urratseko prozesua egin da:

- 1) Lehenik, galdetegia osatzen duten itemen edukiaren baliotasuna bermatze aldera, prestatutako galdetegia 3 ikastolako $n= 82$ hurrek erantzun dute eta hurrek ulertzeko zailtasunak izan dituzten itemak birformulatuak izan dira.
- 2) Bigarrenik, galdetegia doitu, programaren hartzaileak diren beste 4 ikastolako $n= 158$ hurrei pasa zaie. Hala, programak komunikazio-antsietatean, motibazioan eta atxikimenduan utzitako bizipenen hurren pertzepzioak jasotzeko, IBM SPSS Statistics programaren 26. bertsioa erabiliz (IBM Corp., Armonk, NY, EE.UU.), galdetegi-eskalaren analisi faktoriala egin da (oro har eta dimentsioka), baita baliagarritasun froga ere. Eta, ondoren, fidagarritasuna bermatzeko, Alfa de Cronbach ($\alpha= ,848$; 1Dim: $\alpha= ,785$; 2Dim: $\alpha= ,702$) koefizientea kalkulatu da¹⁶ (ikus 13. eranskina).
- 3) Ikerketaren parte-hartzaile zuzenak diren ikasleei ($n= 86$) galdetegia pasa zaie eta horien erantzunak estatistikoki aztertu dira. Hemen ere, baliagarritasun froga egin da eta Alfa de Cronbach koefizientearen kalkuluekin galdetegi-eskala osoaren eta dimentsio bakoitzaren fidagarritasuna neurtu da (ikus 14. eranskina).

¹⁵ *Esku-hartzeak sustatutako Euskararekiko komunikazio Antsietatea, Motibazioa eta Atxikimendua*. Programak aldagai horien baitan haurrengan utzitako bizipenak eta hurren pertzepzioak jasotzeko galdetegi-eskala.

¹⁶ Lan honen helburua ez da izan eskala horren balidazio-prozesua egitea. Aldiz, eskura izandako baliabideekin, batez ere denbora aldetik, ahalik eta fidagarritasun-maila altuena bermatzea izan da xedea. Horregatik, egindako prozesuaren emaitzak aurkeztea erabaki da, balidazio prozesu batean aditu-batzorde baten balorazioa faltako lukeela jakinda ere..

Eta, esan daiteke, oro har, $\alpha = ,885$ ko balorearekin fidagarritasun-maila altua ¹⁷ dela (ikus 9. taula).

9. Taula

EEAMA galdetegiaren Alfa de Cronbach koefizientearen emaitzak osotasunean eta dimentsioka

Eskala osoaren Alfa de Cronbach	$\alpha = ,885$	Itemak	Alfa de Cronbach
1. Dimentsioa: motibazioa eta atxikimendua		11, 13, 14, 15	$\alpha = ,825$
2. Dimentsioa: komunikazio antsietatea		12, 27, 28, 29	$\alpha = ,765.$

Iturria: norberak egina.

Irakasle-hezitzaileen kasuan galdetegiak 1-5 eskala jarraituz garatutako 11 item ditu. Kasu honetan ere, amaieran, ekarpen kualitatiboak egin nahi dituztenentzat erantzun askeko item bat egonik.

4.3. Datuen prozedura eta analisisa

Elkarrizketetan jasotako informazio kualitatiboa ordenatu, galdetegiak osatu eta emaitzak aztertzeko kategorizazio-sistema mistoa erabili da, hau da, induktibo-deduktiboa. Hala, emaitzak dimentsio edo kategoria ezberdinetan banatu dira eta horien abiapuntua marko teorikoa eta elkarrizketetan jasotako informazioa izan dira (ikus 10. taula):

10. Taula

Informazioaren tratamendua egiteko sortutako kategoriak

META-KATEGORIA	KATEGORIAK	AZPI-KATEGORIAK
Euskarazko hizkera informala	Atxikimendua eta motibazioa	Hizkuntza-estrategiak
	Komunikazio-antsietatea	Testuingurua
		Jolasak eta jarduera ludikoak
	Irakasleen bizipenak eta pertzepzioak	Erraztasunak
		Zailtasunak
		Beharrak

Iturria: norberak egina.

¹⁷ Alfa= Zalantzakoa $0,6 \leq \alpha < 0,7$; onargarria $0,7 \leq \alpha < 0,8$; altua $0,8 \leq \alpha < 0,9$; oso altua $\alpha \leq 0,9$

Datu kuantitatiboen prozedura eta analisia egiteko, kasu honetan ere, IBM SPSS Statistics programaren 26. bertsioa erabili da (IBM Corp., Armonk, NY, EE.UU.). Hala, lehenik, datuen emaitzak parametrikokoak diren edo ez kontrastatzeko beharrezkoak diren analisi estatistikoak egin dira. Horretarako, Kormogorov-Smirnoven estatistikaren $p = <,05$ ¹⁸ maila-kritikoa analizatu da, izan ere, lagina 50 parte-hartzaitetik gorakoa da. Hala, datuak ez direla normaltasunez banatzen ikusi da ($p = ,005$). Beraz, premisa hori jarraituz, emaitzen eta generoaren zein H1aren aldagaien artean estatistikoki esanguratsuak diren ezberdintasunak dauden aztertzeko U de Man-Whitney probak gauzatu dira, hau da, proba ez parametrikokoak. H1aren kasuan, elkarrizketatutako haurren taldeak banatu ziren gisan multzokatu dira haur parte-hartzaileak, hau da, H1 euskara edo euskara eta erdara bat dutenak eta H1 bat erdara dutenak, hain justu. Eta, azkenik, emaitzak bi dimentsioetan banaturik (motibazioa eta atxikimendua eta komunikazio-antsietatea) item by item datu estatistikoak jaso dira.

Galdetegian osatzen duten beste itemen artean erlaziorik dagoen jakiteko, Chi Karratuaren (χ^2) kalkulua egin da.

Irakasleek eta hezitzaileek elkarrizketetan eta betetako galdetegiaren bitartez emandako datuak, kategorien eta ikerketa-galderen hurrenkera jarraituz, modu interpretatibo batean aurkeztu dira.

4.3.1. Estandar etikoak

Campsen (2013) arabera etika moralaren gaineko hausnarketa filosofikoa da. Ikerketan, baita hezkuntzaren arloan ere, garrantzitsua da ikerlana zuzenduko duten printzipio etikoak argi izatea. Horretarako, noski, ezinbestekoa da horien inguruan hausnartzea eta lanketa horretatik abiatzea. Parrilak (2010) garrantzia handia ematen dio kultura etikoaren inguruan hausnarketa-espazioak irekitzeari, inklusiboa izan nahi duen ikerketak garatzea asmoa bada behintzat. Bada, hezkuntzaren ikerketan etika funtsezkoa da (Paz, 2018) eta, horregatik, ikerlan hau egiteko horren inguruan hausnartzeko eta egikaritutako diren praktikak zehazteko konpromisoa hartzen da. Oinarrizko elementu gisa hartuz, eragozteko ikerketan parte hartuko duten haurrak ikertutako objektu soil bat izatea. Hala, aintzat hartuko dira CIOMS¹⁹ek funtsezkotzat hartzen dituen hiru printzipio hauek (Pazek, 2018, 47.or):

¹⁸ Normaltasunez banatzen dira: $p = >,05$ ez dira normaltasunez banatzen: $p = <,05$.

¹⁹ CIOMS: Medikuntza-Zientzien Nazioarteko Erakundearen Kontseilua.

- *Errespetua*: ikerketan parte hartzea boluntarioa izango da eta parte-hartzaileei behar den informazio guztia emango zaie, kasu honetan bai gurasoei eta baita parte hartzen duten haurrei ere. Halaber, haurren tutoreei baimen informatua (ikus 3. eranskina) emango zaie, adostasunez, informazio guztia eskura jarri ostean, euren haurrek ikerketan parte hartu nahi izanez gero sinatu dezaten. Berdin jokatuko da adinez nagusi diren eta ikerketan parte hartuko duten irakasle eta hezitzaileekin.

- *Onura*: parte-hartzaileak babestuko dira ikerketak eragin dezakeen edozein minetik. Hala, helburua izango da ikerketa bera guztiontzako hezitzailea izatea

- *Justizia*: Injustiziak eragin daitezke pertsona batzuk, kasu honetan haurrak, onartu eta beste batzuk kanpoan uzten badira. Horregatik elkarrizketatuak boluntarioak izan dira.

Ikerketa honetan parte hartuko duten subjektu gehienak adingabeak izanik, bereziki une oro ikertzaileen egintza eta ekintzak errepasatuak eta hausnarketa batera bideratuak izango dira. Ikerketa hasi aurretiko prozesutik txostena amaitu eta horren zabalkundea egiteraino.

5. Emaitzak

Ondorengo atalean bi ikasturtez euskarazko hizkera informala ikastola kanpoko eta ikasgela barruko eremuetan, aisialdi-antolatua eta ludikotasunaren bitartez, landu duten Nafarroako ikastolatako parte-hartzaileen (ikasle, irakasle, hezitzaile) elkarrizketetatik eta erantzundako galdetegiak eratorritako emaitzak aurkezten dira.

Hala, ikerketa-galderak ipar hartuta eta ezarritako kategoriak aintzat hartuz, elkarrizketetan jasotako informazio kualitatiboa eta lagin zabalago batetik –programan parte hartzen duten ikasle ($n= 86$) irakasle ($n=4$) eta hezitzaile ($n= 2$) guztiak– eskuratutako datu kuantitatiboak dira ondorengo ataletan jasotzen direnak. Halaber, azaltzen dira generoa eta H1 aldagai gisa aintzat hartuz jasotako datuen azterketa estatistikoek emandako emaitzak.

5.1. Programak ikasleengan sustatutako euskararekiko atxikimendua eta motibazioa

Ikerketa-galderak azaltzen diren atalean aurrezarritako hurrenkera jarraituz, lehenengo ikerketa-galdera programan erabilitako metodologiak haurrengan euskararekiko motibazioaren eta atxikimenduaren baitan sorrarazitako bizipenei zuzentzen zaio. Halaber, hori sustatzeko haurren pertzepzioaren arabera hizkuntza-

estrategia eraginkorrenak zein diren jakiteko azpi-galdera batek jarraitzen dio eta H1aren eta generoaren arabera hizkera informala lanketa egin bitartean bizipenek utzitako pertzepzioetan egon daitezkeen ezberdintasunen inguruan beste bat. Hala, lehenik, ikerketa-galdera orokorrari eta lehengo azpi-galderari erantzuten dion informazioa aurkezten da, eta, bigarrenik, azken azpi-galderari erantzuten diona.

Programak hizkera informala aisialdi-antolatua eta jardura ludikoak metodologia pedagogiko gisa erabilia sustatutako motibazioaren eta atxikimenduaren inguruan elkarrizketatuak izan diren haurrek honako bizipen hauek deskribatu dituzte:

Programaren inguruan jardutean burura zer etortzen zitzaien galdetzean H1 gisa euskara ere badutenek esamoldeak, jolasa eta euskaraz hitz egitea izan da eman duten erantzuna, eta Ariakala egiteko gogoz egoten direla. Kuriosoa da gaztelania lehen hizkuntza bezala jaso dutenek: "euskara!", "euskara eta esamoldeak!", poz batean (hala adierazi zen jasotako notetan eta hala jaso da grabaketako ahotsaren tonuan).

Hizkuntza-estrategiei dagokionez, programan parte hartu baino lehen euskara H2 gisa dutenek liburuak eta irakurketak aipatzen dituzte, baita gurasoek telebista soilik euskaraz jartzearen garrantzia. Interesgarria da irakaslearen rola ere nola azpimarratzen den:

H1erd: Ikasle2: Ni liburuekin, irakurtzen, bueno ez nekien irakurtzen, baina ikusten nituen hitzak eta gero irakasleak nola hitz egiten zuen euskaraz, ohitu nintzen.

H1erd: Ikasle1: Nik zuekin, zuekin, eta batzuetan bideotxo batzuekin, gainera ez nuen ikusten telebistan...Ikusten...telebista programak ikusten nituen euskaraz ikasteko horrela.

Ikasleetako batek programaren baitako bere bizipenak azaltzean honela deskribatzen ditu:

H1 eus: ikasle1: Niri jolasten dugunean gustatzen zait, zeren ariketa fisikoa ere gustatzen zait eta esatea esamoldeak ere oso gustuko ditut eta jolasten garen bitartean ba, gehiago...

Besteek ere ildo beretik erantzun dute euskara ikasteko eta lantzeko metodologia honek ikasteko dakartzan erraztasunak eta bien bitarteko gozamina. Gainera, haurretako batek euren artean hori nola aipatzen duten azpimarratzen du:

H1eus: Ikasle4: Bai hori da, hori esaten dugu beti.

H1eus: Ikasle3: Niri gustatzen zait gehiago zergatik sentitzen naiz libreago

Jasotako informaziori so eginik, esan behar da, atxikimendu eta motibazioari dagokionez, jolasa eta horrek dakartzan onurei begira, motibazioa eta atxikimendua baino, komunikazio-antsietateari metodologia honek egiten dion ekarpenari egin diotela aipamen gehien H1 gisa gaztelania dutenek.

Hala, programaren lanketak euskarara hurbildu eta horrekiko motibazioa eta atxikimendua garatzen dutela adierazten duten bizipenak ere jaso dira haurren erantzunetan, azpimarra eginez soziolingustikaren ikuspegitik euskararen bilakaera historikoa lantzeari:

H1erd:Ikasle2: irakasleak kontatu zigun ke zeukan lagun bat Leitzan, Lizarran lehenengo ikastola irekitzen lagundu zuena, euskeraz hitz egiten zena..eta joan ziren frankoren lagunak eta esan zioten itxi egin behar zuela euskaraz hitz egiten zelako. Orduan joan behar izan zuten gazteleraz hitz egiten zen ikastetxe batera.

Eta euskararen bilakaera historikoa ezagutzeko egindako jarduera ludikoaren balioagatik edo eraginagatik galdetzean elkarrizketatu guztiek aho batez baietz erantzun dute.

Jolasak euskararekiko eragindako motibazioa ere atzeman daiteke programa bitartean bizitakoa kontatzean:

H1eus:Ikasle4: urte honetan erakutsi digute esamolde ezberdinak eta berriak, eta ez dira zailak, nik gustuko ditut gehiago erakutsi digutelako.

H1eus: Ikasle2: Hitz gehiago ezagutzen dituzulako,

H1eus: Ikasle3: bai eta esamoldeak eta euskaraz haserretzen eta pozten, eta hori ikasten dugulako

Atxikimenduaz ere jardun dira, hizkera eta lagun-komunitatea lantzeko jolasak eta esamoldeak euskal herriko beste haurrekin partekatzen ari direla kontatu dute eta horrek haientzako duen garrantzia azaldu:

H1eus: Ikasle1: Inportantea da ze horrela euskera zabaltzen da eta hitz egiten da, hitz egiten dugu, eta ez zaigu ahazten lagun berriekin

H1eus: Ikasle2: Hori da handitzen da, ez galtzeko berriz

H1eus: Ikasle4: Bai inportantea da hori.

H1eus: Ikasle2: Eta lagun berriak ezagutzea inportantea dela uste dugu.

H1erd: ikasle1: Ni oso inpaziente nago joateko beste ikastola batera eta egiteko jolasak beste neska mutiko batzuekin eta entzutean gustatu zitzaidan...

Afera horren inguruan irakasleek eta aisialdiko hezitzaileek ere, haurren erantzunetatik jaso diren bizipenen pertzepzio positiboa berretsi egiten dute nolabait:

Irakaslea1: eta gaur zer egingo du Arikalan? Hori galdetzea ez nuen espero nik eta galdetzen dute. Noiz dugu hurrengoa? Hala baten batek eta kriston ilusioa egiten dit niri ere.

Irakaslea2: Motibatuta ikusi nituen iaz. Egia da beraien adinagatik askotan kezkatzen zirela ez, baina gero gustora egiten zituzten dinamikak, baita ere planteatua zegoen moduan (...) dena zegoen modulu modu ludikoan egiteko eta beraiek eskertuak zeuden. Horrela lan egiteaz ere ez dela hor eserita ez? Paper bat edo fitxa baten aurrean. Eta beste modu batean lan egitea beraiek eskertu zuten, eta nik ikusi nituen motibatuta (...) Eta ikusi zenuen kurtso amaieran oparia...

Hezitzaile1: Bai nik baietz. Eurak jolasari begiratzen diote, baina tartean, jolas horren atzean euskara dagoela eta horrek azkenean motibazio horrekin lotuta dago.

Halarik ere, aipatzekoa iruditzen da irakasle eta hezitzaileen partetik zalantza gehien iradoki dien lanketa, hizkera informala landuz soziolinguistikaren markotik abiatutako jarduerak izan dira:

Irakaslea: Soziolinguistikaren galderan, ez asko ez gutxi erantzun dut, batez ere ikasleen adina kontuan hartuz, gaztetxoegiak direla iruditzen zaidalako eragin naberramena izateko garaian.

Jasotako datu kuantitatiboei dagokionez, galdetegi-eskala erantzun duten parte-hartzaileek ($n= 86$) emandako erantzunen datu estatistiko deskribatzaileei so egiten badiegu, elkarrizketatuak izan diren haurrek adierazitakoa aztertutako laginaren baitan, oro har, orokorra dela ikus daiteke, baita irakasleen pertzepzioak ere. Hala, hurrenkera horretan aurkezten dira ondorengo lerroetan, bai haurren erantzunetatik egindako analisiak eta bai irakasleek eta aisialdiko hezitzaileek egindako balorazioak.

Haurrek emandako erantzunei erreparatuz honako hauek dira eskalak barnebiltzen dituen itemen mediak: 11. itema $\bar{x}= 3,52$ ($sd= 1,014$); 13. itema $\bar{x}= 3,53$; 14 ($dt= 1,070$). itema $\bar{x}= 3,97$ ($dt= ,900$); eta 15, itema $\bar{x}= 3,69$ ($dt= 1,009$). Bada, 1etik 5era baloratutako itemen erantzunen $\bar{x}= 3$ baino altuagoa da.

11. Taula

Motibazioa eta atxikimenduaren haurren pertzepzioak jasotzeko itemen emaitzen datu estatistikoak

Estatistikoak					
		11.Euskararekiko motibazioa jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez	13.Motibazioa euskaraz hitz egiteko jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez	14. Soziolinguistikaren lanketaren bitartez euskararekiko atxikimenduaren garapena	15.Hizkera komunitatearen parte sentitzeak euskararekiko motibazioa eta ardura
N	Baliozkoak	86	86	86	86


Media (\bar{x})	3,52	3,53	3,97	3,69
Des. tip.a (dt)	1,014	1,070	,900	1,009

Iturria: norberak egina.

Item bakoitzak jasotako erantzun zehatzak aztertuz atzeman daiteke, haurren pertzepzioetatik, hizkera informalararen lanketaren bitartez euskararekiko motibazioa eta atxikimendua sustatu direla. Izan ere, 11. itemaren (jolasaren bitartez euskara ikasteko motibazioa) erantzunen % 55,8 ($n=48$) biltzen da 4ko eta 5eko balioetan, 1 edo 2 balioetan % 14a barnebiltzen delarik ($n=12$). Beste % 30,2 ($n=26$) tarteko puntuak kokatzen da. 13. itemean ere, antzeko zerbaite jasotzen da. 4 eta 5eko balorazioa egin dute erantzuna eman dutenen % 52,3k ($n=45$), tartekoa % 30,4 ($n=27$) eta 1 eta 2 artekoa % 15,3k ($n=14$).

4. Irudia

11. eta 13.itemak: jolasaren bitartez euskara ikasteko eta euskaraz hitz egiteko motibazioa




Iturria: Norberak egina.

14. itemean, soziolinguistika ludikotasunez landuz euskarara hurbiltzeko eta atxikimendua garatzeko egindako lanketan, haurrek emandako erantzunetan horrek eurengan izandako eragina aurreko itemena baino handiagoa izan dela adierazten dute datuek ($\bar{x}=3,97$). Hala, % 73,2k ($n=63$) 4 eta 5 arteko puntuazioa eman dio horren eraginari, % 20,9 ($n=18$) kokatzen da tartean, eta soilik % 5,8 ($n=5$) dira 1 eta 2 arteko eragina izan duela adierazi duten haurrak. 15. itemeko erantzunen media 11. eta 13. itemek dutenetik gertu badago ere ($\bar{x}=3,69$), 4 eta 5eko eraginaren balorea eman diotenak parte-hartzaileen % 57 ($n=49$) izan da, tartean % 32,6 ($n=28$) egonik eta 1 eta 2ko eragina ikusi diotenak % 10,4 ($n=9$) izan direlarik.

5. Irudia

14. eta 15. itemak: jolasaren eta jardueren bitartez euskararen bilakaeraren eta komunitatearen parte sentitzearen eragina euskararekiko atxikimenduan eta motibazioan



Iturria: Norberak egina.

Beraz, 4 eta 5eko balorazioei erreparatzen bazaie, haurren erantzunen arabera, modu ludiko eta informalean soziolinguistikaren markotik euskararen egoera eta bilakaera lantzea izan da, euskararekiko atxikimenduari eta motibazioari dagokionez, bizipen esanguratsuena utzi duen lanketa (% 73,2). Eta, beraz, hizkuntzarekiko motibazioa eta atxikimendua sustatzeko hizkuntza-estrategia eraginkorrena. Bigarrenik, hizkera-komunitatearen parte sentitzeak (% 57). Eta hirugarrenik eta laugarrenik, euskararekiko motibazioa (55,8) eta euskaraz aritzeko motibazioa (% 52,3) jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez lantzea. Modu batera edo bestera, hizkera informalean lanketa ardatz izanik, guztiak ere $\bar{x}= 3$ tik gorako puntuazioarekin, egindako lanketak haurrek hizkuntza-estrategia egokitzen eta gustukotzen baloratu dituztela esan daiteke. Galdetegian eskalaren itemetik kanpo irakasleak betetzen duen rolaren inguruan ere galdetu zaie ikasleei eta elkarrizketatuek adierazitakoaren bidetik ikasleen % 61,6k erantzun du irakasleak ikasgelan eurekin erabiltzeak horiek ikasten eta barneratzen laguntzen ($n= 32$) edo asko laguntzen diela ($n= 19$). Haurren % 24,4k ($n= 21$) tarteko balorazio bat egin du eta % 11,7k pixka bat laguntzen diola erantzun du. Hala, soilik $n= 2$ (% 2,3) haurrek erantzun dute irakasleen esamoldeen erabilerak ez diela laguntzen.

H1 euskara edo euskara eta erdara bat eta erdara dutenen artean jasotako emaitzetan egon daitezkeen ezberdintasunei erreparatuz, nulua den hipotesia ezeztatzen da. Izan ere, U de Mann-Whitney probaren balorea 448,5 da ($Z= -4,082$) eta $p= <,001$ ($p= ,05$ baino txikiagoa). Beraz, ondorioztatzen da estatistikoki esanguratsuak diren ezberdintasunak daudela taldeen artean. Hala, batez besteko tarteari so eginik, esan daiteke, H1 euskara edo euskara eta erdara bat dutenek euskararekiko motibazio eta atxikimendu gehiago sentitu dutela (batez besteko tartea = 55,50) hizkera informala jolasa eta jarduera ludikoen bitartez lantzen zuten bitartean H1 erdara bat dutenek baino (batez besteko tartea = 33,54).

12. Taula

U de Mann-Whitney probaren datu estatistikoak: Motibazio eta atxikimenduaren itemen sumatorioarekin eta H1 aldagaiarekin.

Batez besteko tartea			Probaren estatistikoak	
H1	N	Batez besteko tartea	U de Mann-Whitney	448,5
Euskara edo euskara eta erdara bat	39	55,50	W de Wilcoxon	1576,5
			Z	-4,082
Erdara	47	33,54	Sig.asin .(bilateral) (p)	<,001

Oharra: taldekatze-aldagaia H1

Iturria: norberak egina.

Hala, ondorengo taulan jasotako datu estatistikoei erreparatzen bazaie, batez bestekoetan U de Mann-Whitney probak emandako emaitzak itemka jasotako mediekin interpretatu daitezke. Izan ere, batez besteko guztietan H1 euskara edo euskara eta erdara bat dutenek balore altuagoak ematen dituzte H1 erdara jaso dutenek baino. Dena dela, nabaria da bai batzuk zein bestek motibazio eta atxikimendua positiboki sustatu den pertzepzioa izan dutela programa landu bitartean, batez besteko guztiak $\bar{x}= 3$ tik gorako balorea eman baitute.

13. Taula

Atxikimendua eta motibazioa: itemka eta H1aren araberako mediak

Taldearen estatistikoak			
	H1	N	Media (\bar{x})
11. Euskararekiko motibazioa jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez	Euskara edo euskara eta erdara	39	3,85
	Erdara	47	3,26
13. Motibazioa euskaraz hitz egiteko jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez	Euskara edo euskara eta erdara	39	3,95
	Erdara	47	3,19
14. Soziolinguistikaren bitartez euskararekiko atxikimenduaren garapena	Euskara edo euskara eta erdara	39	4,33
	Erdara	47	3,66
15. Komunitatearen parte sentitzeak euskararekiko ardura	Euskara edo euskara eta erdara	39	4,13
	Erdara	47	3,32

Iturria: norberak egina.

Proba bera eta prozesu bera eginda, generoaren arabera analisiaren emaitzek ere datuen eta neska zein mutil gisa identifikatu direnen artean estatistikoki esanguratsuak diren ezberdintasunak daudela ondorioztatu da (U de Mann-Whitney= 551; Z= -3,212; $p=$,001). Hala, bestez besteko tarteei erreparatuz (neskak= 51,52. Mutilak= 34,28), esan daiteke nesken kasuan programak euskararekiko motibazioan eta atxikimenduan eragindako bizipen positiboen pertzepzioa handiagoa dela mutilen kasuan baino. Alabaina, bai mutilek zein neskek itemen bakoitzaren arabera utzitako baloreen batezbestekoak $\bar{x}= 3$ tik gorakoak dira. Beraz, esan daiteke, betiere haurren pertzepziotik abiatuta, bi taldeengan eragin positiboa izan dutela euskararekiko motibazioa eta atxikimendua sustatzeko hizkera informala bitartez egin diren lanketek.

14. Taula

Atxikimendua eta motibazioa: itemka eta generoaren arabera mediak

Taldeen estatistikoak			
	Generoa	N	Media (\bar{x})
11. Euskararekiko motibazioa jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez	Neska	46	3,72
	Mutila	40	3,30
13. Motibazioa euskaraz hitz egiteko jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez	Neska	46	3,72
	Mutila	40	3,33
14. Soziolinguistikaren bitartez euskararekiko atxikimenduaren garapena	Neska	46	4,33
	Mutila	40	3,55
15. Komunitatearen parte sentitzeak euskararekiko ardura	Neska	46	4,04
	Mutila	40	3,28

Iturria: norberak egina.

Irakasleei eta hezitzaileei dagokionez, galdetegiaren bitartez jasotako erantzunek ere, elkarrizketatuen pertzepzio bertsua adierazten dute. Izan ere, ikerketan parte hartu duten hezitzaile eta irakasleen ($n= 8$) % 75aren arabera, haurrekin euskarazko hizkera informala aisialdi-antolatua eta jarduera ludikoen bitartez lantzeak motibazioan eragin (%62,5) edo asko eragin du (% 12,5). Beste % 25ak ez duela eragin handirik ez txikirik izan baloratu duelarik.

Ikasgela barruko jardura ludikoetan, modu informal batean ikuspegi soziolinguistikoa txertatuz euskararen egoera eta bilakaera historikoa lantzeak izan

duen eraginari, ordea, irakasleek aho batez (% 100) tartekoa izan dela erantzun dute, 1etik 5era 3ko balorea emanaz.

5.2. Euskarazko hizkera informala: aisialdi-antolatua eta jardura ludikoaren bitartez egindako lanketa eta haurren komunikazio-antsietatearen pertzepzioa

Ikerketa-galderak aurkeztu diren ataleko hurrenkerari jarraituz, ondorengo atalean aurkezten diren emaitzak hizkera informaleko lanketa ludikoak haurrengan utzitako bizipenak eta pertzepzioak jasotzera bideratuta daude; zehazki komunikazio-antsietateari zuzentzen zaion ikerketa-galderari erantzunez. Ikerketa-galdera orokorrari ordea, ondorengo bi azpi-galdera lotzen zaizkio, alde batetik testuinguruari so egiten diona, eta bestetik, H1aren eta generoaren arteko ezberdintasunik ba ote dagoen jakiteko galdera zuzentzen duena. Bada, galdera bakoitzari erantzunez antolatu dira ondoren aurkezten diren datuak; lehenik, eskuratutako informazio kualitatiboa eta ondoren lagin guztiak emandako erantzunen analisi interpretatiboa eta estatistikoa.

Programak hizkera informala aisialdi-antolatua eta jardura ludikoak metodologia pedagogiko gisa erabili haurrek bizitako komunikazio-antsietatearen inguruan honako hauek dira azaldutako bizipenak eta horien gainean egindako irakurketak:

Komunikazio-antsietatearen inguruan, antsietatea sentitzea zer den badakitela adierazi dute elkarrizketatuek, eta, oro har, afera horri dagokionez, bizipena positiboa izan dela adierazi dute. Programan lantzen dutenarekin jarraiki, helburua izanik hizkuntzen arteko alternantziaren erabileran eragitea euskarazko hizkera informaleko baliabideak emanaz, horren inguruan galdetu zaie ikasleei. Hau da, zergatik egiten ote duten erdararen erabilera hizkera informalean. Hala, haurrek, oro har erraztasunagatik egiten dutela adierazi dute hitz bat ez dakitenean diskurtsoa osatzeko:

H1eus:Ikasle1: batzuetan ez dakit, gelditzen zara pentsatzera pixka bat, eta ez zaizu ateratzen esaten duzun hori eta orduan ba erdara eta gero berriz euskara.

H1eus:Ikasle3: hori, hori, ez dakidanean hitz bat eta esaten badut gazteleraz.

H1erd:Ikasle2: Ba nik egiten dudanean hori da, ez dudalako edo ez zaidalako hitz bat edo frase bat euskeraz eta orduan hartzen dut, orain egin dudanez bezala?

H1erd:Ikasle3: Bai ni bera bezala, bai berdina. Ez dakit zergatik? Ez zait ateratzen hitz bat eta..

Hala, hain justu egoera horietan euskarazko hizkuntza baliabide informalez hornitzeko egindako lanketan, hasieran arrotza egin zaiela adierazi dute, lanketan sentitzen duten urduritasuna denborarekin batera jaitsi dela adieraziz. Bada, aho batez erantzun dute orain errazago egiten zaiela jolasean hizkera informalean aritzea, ez direla hain urduri jartzen.

H1eus: Ikasle3: Niri ere bai aurten gero eta errezagoa da

H1erd: Ikasle2: Bueno, horiek ez dakit, egiten zaizkit errazagoak ziren besteak. Zirenez nola arraragoak guretzako, ba ez dakit, hauek egiten zaizkit errazagoak erabiltzeko.

H1erd: Ikasle3: Bueno...egia da lehen esaten ziguten kontraktasuna adierazten dutenak, aldekotasunak, eta guk ez genekien zein ziren eta orduan jartzen ginen urduriago.

Jolasaren bitartez komunikazio-antsietate hori jaitsi egiten dela ere adierazi dute, tartean, hizkera eta testuingurua libreagoa delako edo dibertigarriagoa:

H1eus:Ikasle 3: Bai jolasak eta dena, dibertigarriago.

H1eus: Ikasle3: Bai bai, libreago delako.

H1erd: Ikasle1: Libreago jolasten kanpoan nahiz eta esamoldeekin urduriago jarri eta disfrutatzen dut.

Programak hizkera informalarari atxikitako esamoldeak lantzen ditu, ustez hizkuntzen arteko alternantzia gertatzen den une horretan. Hala, programa fenomeno hori gertatzen zaien ikasleekin aplikatu den jakiteko eta, hala izanik, euren ustez zergatik gertatzen den jasotzeko galderak ere zuzendu zaizkie. Hala, parte-hartzaileen % 86ak ($n= 76$), elkarrizketatuak izan diren haurren antzera, erraztasunagatik egiten duela adierazi du eta parte-hartzaileen % 11,6k ($n= 12$) tarteka gaztelania sartzeara "guaiagoa" delako. Alternantzia hori egiten dutenean hitz egiten duten hizkuntza identifikatzeko gai diren galdeztean % 88,4k ($n= 76$) erabiltzen duen hizkuntza zein den argi duela adierazi du, % 11,6k ($n= 10$), aldiz, ezetz. Garrantzitsua iruditzen da informazio hau, ondorengo emaitzen interpretaziorako abiapuntua ezartzen duela pentsatzen delako.

Galdetegi-eskalaren itemetan jasotako datuei erreparatuz, hori erantzun duten parte-hartzaileen ($n=86$) bizipenak eta elkarrizketatuek deskribatutakoak, oro har, bat datozela ikus daiteke. Izan ere, honako hauek dira eskalak barnebiltzen dituen itemen mediak: 12. itema $\bar{x}= 3,44$ ($dt= 1,014$); 27. itema $\bar{x}= 3,87$; 28. itema $\bar{x}= 4,10$ ($dt= ,900$); eta 29. itema $\bar{x}= 3,81$ ($dt= 1,009$). Bada, 1etik 5era baloratutako itemen erantzunen $\bar{x}= 3$ baino altuagoa da.

15. Taula

Motibazioa eta atxikimenduaren haurren pertzepzioak jasotzeko itemen emaitzen datu estatistikoak

Estatistikoak				
	12. euskara ikasteko erraztasuna (antsietatea behera) jolasaren eta jarduera	27. Gela barruan lanketa ludikoen bitartez komunikazio-antsietatea jaisten da	28. Gela kanpoan hizkera informala jolasen bitartez landuta komunikazio-	29. Komunikazio antsietatearen bilakaera. Ezagutza eskuratu ahala hizkera

		ludikoen bitartez, ohiko metodoekin alderatuz		antsietatea jaisten da	informalean lasaiago
N	Baliozkoak	86	86	86	86
Media (\bar{x})		3,44	3,87	4,10	3,81
Des. tip.a (dt)		1,014	1,070	,900	1,009


Iturria: norberak egina.

Item bakoitzak jasotako erantzunen batez bestekotik harago, horien erantzun zehatzak aztertuz ikus daiteke haurren bizipenen eta pertzepzioaren arabera, oro har, hizkera informala jolasa eta jarduera ludikoen bitartez lantzeak komunikazio-antsietatea jaisten duela eta haur askorentzako metodo horrekin euskara errazago ikasten dela. Izan ere, 12. itemaren (ohiko metodoekin alderatuz euskara ikasteko erraztasuna jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez) erantzunen % 48,8 ($n=42$) biltzen da 4ko eta 5eko balioetan, 1 edo 2 balioetan % 25,6 barnebiltzen delarik ($n=22$). Beste % 25,6 ($n=22$), aldiz, tarteko puntuak kokatzen da.

29. itemean nabariagoa da haurren arteko adostasuna. Izan ere, hizkera informalaren lanketak eragin dien komunikazio-antsietatea modu nabarmenean jaitsi da ezagutza eskuratu eta denbora pasa ahala, elkarriketetan parte-hartu dutenek erantzun duten gisan. Kasu honetan, erantzunen % 65,1 ($n=56$) 4ko eta 5eko balorazioen artean kokatzen da, % 22,1 ($n=19$) tartekoan, eta % 12,8 ($n=11$) 1 eta 2ko puntuazioa eman dutenen artean.

6. Irudia

12. eta 29. itemak: euskara ikasteko erraztasuna eta komunikazio-antsietatearen beherakada



Iturria: Norberak egina.

Programa garatzen den ikasgela barruko eta kanpoko testuinguruarekin lotuta, elkarriketetan H1 euskara edo euskara eta erdara jaso dutenen artean eta H1 erdara izan

dutenen artean nabaria izan da hizkera informala lantzeko testuinguruaz galdetzean bata edo bestea aukeratzeko ezberdintasuna.

Komunikazio-antsietatea sor dezaketen bi testuinguru garrantzitsu dira, ikasgela barruan eta kanpoko. Izan ere, baldin eta zein den ematen den egoera komunikatiboa ekintza-komunikatiboaren aurrean motu batean edo bestean aurkitzen gara. Hala, Arikala programak komunikazio-antsietatean izan duen eragina galdetzean, eta hori lantzean non sentitzen diren erosoan, nabarmena izan da H1 gisa euskara izan dutenen edo izan ez dutenen arteko ezberdintasuna. Izan ere, euskara etxean jaso dutenek nahiago dute kaleko lanketa, eta H1 gisa gaztelania edo beste erdara bat jaso dutenek gela barrua. Hitzartze hauek horren adierazgarri direla pentsatzen da:

H1eus: Ikasle1: Nik Arikalan, Arikalan gaudenean, jolasten.

H1eus:Ikasle3: Bai nik ere nire familiarekin eta Arikalan kalean gelan baino

H1eus: Ikasle1: Bai, baina ez da berdina. Eske klasean zaude...

H1eus Ikasle 4: Komo aspertuta...eta hemen zaude ikasten jolasten..

H1erd:Ikasle1: Gelan gehiago euskaraz hitz egin, errezago hitz egiten dut..

H1erd:Ikasle3: Bueno baino kanpoan libreago sentitzen zara...

H1erdIkasle4: Ni ere barruan.

Gela barruan programaren lanketa eta hizkera informalaren lanketa lasaiago egiten dutela adierazten dutenek, halarik ere, jarduera ludikoek transmititutako giro segurua eta lasaia azaltzen dute:

H1erdkasle1: a ver, da arraroa. Lasaiago barruan, baina libreago jolasten kanpoan nahiz eta esamoldeekin urduriago jarri eta disfrutatzen dut.

Hizkera informala lantzen hasi zirenetik hona komunikazio-antsietateak izandako bilakaera ere aipatu dute, nolabait, ikasleek hasiera batean kosta egiten zitzaizela adierazi dutelarik:

H1eus: Ikasle2: Ba hasiera zelako eta ez genekien esta esamolde bat.

H1erd: Ikasle1: Ni bai, batzutan bai. Eske ez geunden oso ohituta eta esamoldeak ateratzean kosta egiten zitzaigun, urduriago jartzen ginen.

H1eus: Ikasle3: Ateratzen zitzaigun zerbait erderaz.

H1erd: Ikasle2: Bai, bai zen hezitazileak jartzen zigun, nola ez genekien esamolde asko eta geunen oraindik ikasten eta esaten zigun egiteko (...) Guretzat presio asko zen, zeren ginen berriak eta ez genizkigun eta guretzat ziren pixkat arraroak.


Hala, horren inguruan zuzenean galdetzean H1aren arabera emandako erantzunak aztertuz, galdetegia erantzun duten haurrek tendentzia hori jarraitzen dutela ikus daiteke. Izan ere, hizkera informalaren lanketa egiteko eta euskaraz lasai aritzeko

nahiago dute gela barruko espazioa H1 erdara dutenen % 25,5ak ($n= 12$), H1 euskara edo euskara eta erdara dutenen % 12,8aren ($n= 5$) alboan. H1 euskara edo euskara eta erdara dutenen % 69,2ak ($n= 27$), aldiz, nahiago du hizkera informala jolasen bitartez kanpo espazioetan landu, H1 erdara dutenen % 51,1ekin ($n= 24$) alderatuz. Eta barruan lasaigo sentitu baina jolasen bitartez urduritasuna jaisten zaienen artean H1 erdara dutenak gailentzen dira (% 23,4) H1 euskara edo euskara eta erdara dutenen ondoan (% 17,4). Beraz, esan daiteke, oro har, H1 erdara dutenak lasaigo aritzen direla gela barruko espazioan elkarrizketan agerian geratu den gisan, eta gahiago dira ere barruan lasaigo sentitu arren kanpo espazioa nahiago dutenak. Halarik ere, ez da estatistikoki esanguratsua den asozioaziorik topatu Chi karratuaren proba egin ostean ($\chi^2= ,199$). Generoaren arabera egindako proban ere ez ($\chi^2= ,233$).

EEAMA galdetegi-eskala osatzen duten 27. eta 28. itemetan ere hizkera informala lantzeko eta jolasten euskaraz modu informalean aritzeko ekintza komunikatiboa gauzatzen den testuinguruaren inguruan galdetu zaie haurrei. Horren xedea izan da bai gela barruan eta bai gela kanpoan hizkera informala lantzean zenbateraino egiten duten lasaitasunez jasotzea. Hala, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, hizkera informala ikasgela kanpoko testuinguruan lantzean sentitzen dira haurrak lasaien, 4 eta 5eko balorazioek erantzunen % 74,4 ($n= 64$) barnebiltzen baitituzte. Halarik ere, % 69,8ak ($n= 60$) programaren lanketa gela barruan egitean lasaigo sentitzen dela adierazi du. % 20,9k ($n= 18$) tarteko balorazioa egin du eta % 9,3 ($n= 8$) izan da 1 eta 2ko puntuazioetan kokatu den parte-hartzaile kopurua. Beraz, elkarrizketetan parte hartu duten haurren antzera, bi multzotan banatzen dira parte-hartzaileak, ikasgela barruan euskaraz hitz egiten erosoago sentitzen direnak eta ikasgela kanpoan lasaigo aritzen direnak.

7. Irudia

27. eta 28. itemak: komunikazio-antsietatea hizkera informala lantzen den testuinguruaren arabera.



Iturria: Norberak egina.

H1 euskara edo euskara eta erdara bat eta erdara dutenen artean jasotako emaitzetan egon daitezkeen ezberdintasunei erreparatuz, nulua den hipotesia ezeztatzen da. Izan ere, U de Mann-Whitney probaren balorea $U = 562$ koa da, $Z = -4,082$, eta $p = <,002$ ($p = ,05$ baino txikiagoa). Beraz, ondorioztatzen da estatistikoki esanguratsuak diren ezberdintasunak daudela taldeen artean. Hala, batez besteko tarteari so eginik, esan daiteke, H1 euskara edo euskara eta erdara bat dutenek (batez besteko tartea = 52,59) lasaitasun gehiago sentitu izan dutela programaren euskarazko hizkera informala lanketarekin H1 erdara dutenek baino (batez besteko tartea = 35,96).

16. Taula

U de Mann-Whitney probaren datu estatistikoak: Motibazio eta atxikimenduaren itemen sumatorioarekin eta H1 aldagaiarekin.

Batez besteko tartea			Probaren estatistikoak	
H1	N	Batez besteko tartea	U de Mann-Whitney	562,00
Euskara edo euskara eta erdara bat	39	52,59	W de Wilcoxon	1690,00
			Z	-3,094
Erdara	47	35,96	Sig.asin.(bilateral) (p)	,002

Oharra: taldekatze-aldagaia H1

Iturria: norberak egina.

Hala, ondorengo taulan jasotako datu estatistikoei erreparatzen bazaie, batez bestekoetan U de Mann-Whitney probak emandako emaitzak itemka jasotako mediekin interpretatu daitezke, eta, bide batez, hobeto ulertu probak emandako esanguratsuak diren ezberdintasun horiek. Izan ere, batez besteko guztietan H1 euskara edo euskara eta erdara bat dutenek balore altuagoak ematen dituzte H1 erdara jaso dutenek baino. Halarik ere, ikus daitezkeen gisan item guztiek $\bar{x} = 3$ tik gorako balorea adierazten dute. Beraz, bai H1 euskara edo euskara eta erdara dutenentzat, eta bai H1 erdara dutenentzat programak euskarazko komunikazio-antsietatearen aurrean euskaraz lasai aritzeko eta hori antsietate gutxiagorekin ikasteko espazio bat eskaintzen duela adierazi dute. Kasu honetan, haurren bizipenak aintzat hartuz hori sustatu duela iradoki daiteke behintzat.

17. Taula

Komunikazio-antsietatea: itemka eta H1aren arabeko mediak

Taldearen estatistikoak			
	H1	N	Media (\bar{x})
12. Ohiko metodoekin alderatuz euskara ikasteko erraztasuna (antsietatea behera) jolasaren eta	Euskara edo euskara eta erdara	39	3,62

jarduera ludikoen bitartez.	Erdara	47	3,30
27. Gela barruan lanketa ludikoen bitartez komunikazio-antsietatea jaisten da	Euskara edo euskara eta erdara	39	4,26
	Erdara	47	3,55
28. Gela kanpoan hizkera informala jolasen bitartez landuta komunikazio-antsietatea jasiten da	Euskara edo euskara eta erdara	39	4,33
	Erdara	47	3,91
29. Komunikazio antsietatearen bilakaera. Ezagutza eskuratu ahala hizkera informalean lasaiago	Euskara edo euskara eta erdara	39	4,23
	Erdara	47	3,47

Iturria: norberak egina.

12., 27., 28., eta 29. itemetan jasotako datuei dagokionez eta generoaren arabera analisi estatistikoak eginda, neska zein mutil gisa identifikatu direnen artean estatistikoki esanguratsuak diren ezberdintasunak daudela ondorioztatu da kasu honetan ere ($U=665$; $Z=-2,221$; $p=,026$). Hala, bestez besteko tarteei erreparatuz (neskak= 49,04. Mutilak= 37,13), esan daiteke jolasen bitartez bideratutako hizkera informalean lanketan neskek komunikazio-antsietate gutxiago sentitu dutela. Hala ere, bai mutilek zein neskek itemen bakoitzaren arabera utzitako baloreen $\bar{x}=3$ tik gorakoak dira. Beraz, emaitzek iradokitzen dute bi taldeei euskarazko hizkera informalean lasai aritu eta ikasteko espazioa eskaini diela programak, hau da, komunikazio-antsietatea jaisteko testuinguruak eraiki direla parte-hartzaile gehienentzat.

18. Taula

Atxikimendua eta motibazioa: itemka eta generoaren arabera mediak

Taldearen estatistikoak			
	Generoa	N	Media (\bar{x})
12. Ohiko metodoekin alderatuz euskara ikasteko erraztasuna (antsietatea behera) jolasaren eta jarduera ludikoen bitartez.	Neska	46	3,72
	Mutila	40	3,13
27. Gela barruan lanketa ludikoen bitartez komunikazio-antsietatea jaisten da	Neska	46	4,04
	Mutila	40	3,68
28. Gela kanpoan hizkera informala jolasen bitartez landuta komunikazio-antsietatea jasiten da	Neska	46	4,26
	Mutila	40	3,93
	Neska	46	3,98

29. Komunikazio antsietatearen bilakaera. Ezagutza eskuratu ahala hizkera informalean lasaiago	Mutila	40	3,63
--	--------	----	------

Iturria: norberak egina.

5.3. Hizkera informala programaren bitartez lantzeko irakasleek eta aisialdiko hezitzaileek topatu dituzten erraztasun eta zailtasunak

Atal honetan, azken ikerketa-galdera erantzutera zuzendutako emaitzak aurkezten dira. Hain justu, hezkuntza formalean hizkera informala lantzeko irakasle eta hezitzaileek izandako zailtasun eta erraztasun handienak zein diren ezagutzeko. Horretarako, egindako elkarrizketetatik eratorritako informazioa eta galdetegi-bidez jasotako datuak aurkezten dira.

Irakasleei dagokionez ondorengo taulan aurkezten dira hizkera informala ikastola-testuinguruan lantzeko izan dituzten erraztasunik handienak.

1. irakaslea lehengo ikasturtean izan zen tutore (2022-2023), 2. irakaslea, aldiz, 2023-2024 ikasturtean. Halere, ikastolan hizkera informala lantzeko erraztasunik handiena azaltzean, bat egin dute elkarrizketatuak izan diren bi irakasleek, biek ala biek aipamena eginez jasotako unitate didaktikoen zehaztasunari, helburuen argitasunari eta hori gida gisa izandako balioari so eginik:

Irakaslea1: Erraztasunengatik hasiko naiz. Egia da zuek prestatutako unitate didaktiko hoiak edo nola deitzen ziren ziren. Dena oso ongi azalduta zegoela, orduan zein pixkat lehenago hori begiratu, irakurri, beste materialen bat behar bazen prestatu eta egia da hori gelaratzeko ere erraza egin zitzaidala.

Irakaslea2: Ba nik ere berak esan duen bezala, hasiera batean, kezka bat banuen ez? ba lan bat suposatu zuelako, honek gure programazioaren barruan sartu behar... baina behin Donostian formakuntza jaso ondoren, ba ikusi nuen dena oso bideratua zegoena ez zela nahiko erreza izango zela hori aurrera eramatea, ez? unitate didaktikoak ongi osatuak, saioen banaketa oso ongi egina ere, dena zehaztua, helburu guztiak garbi saio bakoitza aurrera nola eraman oso garbi adierazita zegoen, eta bestetik, arazorik ez dut ikusi ez erreza? izan da, eta han ohartu nintzen ba, beno, berez denbora bat eskaini behar zitzaiola, baino pisu gehiago zuela ba ikasleek jasoko zutenak.

Horrez gain, elkarrizketatutako hezitzaileak euskara lantzeko programan jasotzen diren jolasek sortzen duten motibazio edo gogoaz azpimarratzen du esku-hartzea bideratzeko erraztasun bezala:

Hezitzailea1: Beste aldetik, errazena esango nuke, ba Arikala proiektuarekin, programa berak dakarrena. Esate baterako, ba ikastola hezkuntzaren logitetatik at egiten den programa bat dela, hau da ez dela klase magistral bat

edo klase barnean egiten dugun zerbait eta umeek gogoz hartzen dutela eta gogo hortatik abiatuta ba lana egitea haiekin esango nuke errazagoa dela, azken finean, eskatzen badiezu esamolde eta esaera ezberdinak esatea ba gogoz hartzen dute.

Irakasleek eta aisialdiko hezitzaileek hizkera informala ikastolan lantzeko unitate didaktikoek eta programek suposatu duten laguntzaren inguruan - 1-5 arteko eskalan - parte-hartzailek emandako balorazioaren $\bar{x}= 4,83$ izan da. Eta formazio-mintegien kasuan, aldiz, $\bar{x}= 4,83$. Bada, erantzunek iradokitzen dute programa aplikatu duten irakasle eta aisialdiko hezitzaileek, elkarrizketatu direnen iritzi bertsuarekin, aho batez bat egiten dutela horien balioarekin jolasak, jarduerak, dinamikak eta hizkera informala bera lantzeko garaian..

19. Taula

Irakasleek eta hezitzaileek programazioak eta formakuntza-mintegiak suposatu duten erraztasunaren inguruan egindako balorazioen mediak

	N	1. Erraztasun handienak: programaren kasuan	2. Erraztasun handienak: Mintegien kasuan
Media (\bar{x})	6	4,83	4,5

Iturria: norberak egina.

Zailtasunei dagokionez, ondorengo lerroetan jasotzen dira bai elkarrizketetatik eratorritako bizipenak, iritziak eta pertzepzioak eta bai galdetegietatik jasotako datuak.

Hurrengo hitzartzeak irakasleek izan dituzten zailtasunen inguruko bizipenak dira. Argi dago irakasle baten eta bestearen artean ezberdintasuna, izan ere, batek etxean eta lagunartean erabiltzen duen euskararen hizkera informalean landutako esamoldeak daude eta bestearen kasuan ez.

Irakaslea1: Zailtasuna izan zen, non txertatu, jeje ze badakizu azkenean hemen badaukagula, kurrikuluma landu beharreko arloak, gaiak eta honek beste denbora bat eskatzen zuen. Orduan, non txertatu zerri kendu eta..ba hor bai ibili ginela pixkat "encage de bolillos" esaten dena egiten. Ze beste zailtasun aurkitu nuen...lantzen genituen esaldi horiek ba beraiei naturaltasunez ateratzea ez? Ni saiatzan nintzen ere, ba beste momentu batzuetan Arikala lantzen ez den momentu horietan, ba esaldi horiek sartzen... Ba esaldi horiek beraiek ere ikusteko ze erabilgarritasun zutenez, baina hori bai, gelan sartzea beste momentu batzuetan bat zaila zen. Gero egia da beraiei grazia egiten ziela, eta orduan ja hasi ziren erabiltzen; baina...

Gainera, 1. irakasleak esfortzu kontziente bat egin behar zuela adierazi du jarduerak bideratzeko:

Irakaslea1: egia da hori kontzienteki egin behar nuela, ez zitzaidan horrela naturaltasunez ateratzen. Nire ama hizkuntza erdara da. Ni Euskara ikastolan ikasi nuen eta ez neukan ohiturarik horrelako esaldiak erabiltzeko, agian oso sinpleak zirenak, ez ditut orain juxtu gogoratzen e, iaz egin nuelako nik. Oso sinpleak zirenak, ba bai, ez erabiltzen zenituen, baina beste batzuk, agian entzunak, beste batzuk berriak ziren ere...Orduan, bueno, ni bizi izan nuen niretzako ere euskara beste modu batean ikasi nuela.

Arestian azaldu bezala 2. irakasleak berak etxean eta lagunartean erabiltzen dituen esamoldeak direla adierazi du. Halere, ikastola testuinguruan hizkera formala lantzerako ohitu dela aipatzen du, eta hori garrantzitsutzat hartzea aipatu du zailtasun gisa.

Irakaslea2: Nik egia esateko, nire bizitzan erabiltzen ditut lagunekin, familian, erabiltzen ditut, baina ikasleekin ezetz esango nuke. Behin bat ikastolan hasten denean, ba horko lanean murgiltzen zara, eta bueno, ba garrantzi gehiago ematen diozu, agian ba eztaikit; ba gaiak lantzeari, edukia lantzeari, eta euskarari ere bai, baina euskera formalari, gela barruko euskarari.

Gainera, ikasleen gaztelararako joera eta gaztelaraz hitz egiteko erraztasuna handiagoa dela ere azaltzen du 2. irakasleak hori ere zailtasun erantsitzat adieraziz. Izan ere, bere esanetan umeak errazera jotzen du, gaztelaniara, alegia:

Irakaslea2: Horregatik da, dudarik gabe, gure ikasleak euskara ikasten ari dira, ikasle gehienek ama hizkuntza gaztelera da. Gaztelaraz duten maila euskara maila baino askoz altuagoa da, askoz ere altuagoa. Orduan, zer egiten du umeak errazera jotzen du, gaztelaraz errazago esan baldinba badezaket.

Afera horren inguruan aisialdiko hezitzaileak ere, argi bereizten ditu euskara mailaren arabera, aipamena eginez, euskara maila altuagoa dutenak errazago aritzen direla Arikalako lanketetan eta gehiago egiten dutela euskara kanpo espazioetan jarduerak egiten diren bitartean. Halere hezitzailearen kasuan, hizkuntza-maila baino testuinguru informaletan haurrek dituzten hizkuntza-ohiturak aipatzen ditu:

Hezitzaile1: Ba nik uste, zailena, inporta zaiena dela ba haurrek euskara eta aisialdiaren arteko lotura zuzena hori egitea. Ba euskara ikusten dutela, neri berdina gertatzen zitzaidan, ba haurrek ikusten dutela euskara ikastolako zozer bezala eta ez dute euskaraz hitz egiteko ohiturarik.

Hizkera informala lanketa bideratzeko sentitutako zailtasuna, irakasleen eta hezitzaileen estimazioaren arabera - 1etik 5era-, tartekoa izan da. Hau da, $\bar{x}=3$ izan da. Halarik ere, elkarrizketetan jasotako informazioari so eginez, agerian geratu da hizkera informala lantzeko zailtasuna ez duela soilik hezkuntza formalaren testuinguruak ekartzen. Izan ere, arestian aurkeztutako aipamenetan, irakasleek euren hizkera informala mailari eta ohitura faltari ere egiten diote erreferentzia.

20. Taula

Irakasleek eta hezitzaileek hizkera informala lantzeko izandako zailtasunaren balorazioaren media

	N	3. Esku-hartzea bideratzeko zailtasuna
Media (\bar{x})	6	3

Iturria: norberak egina.

Formakuntza-mintegien inguruan egindako aipamenak ikusita, etorkizunean irakasleentzako eta hezitzaileentzako hizkera informala lantzeko formazioak eskaintzea beharrekoa ikusten duten ere galdetu zaie. Hala, elkarrizketatuek aho batez erantzun dute baiezkoa.

Irakaslea2: Nik baietz pentsatzen dut, zalantzarik gabe (...). Eta guk ere irakasleok ere, pentsa orain hasi ohartzen...hainbeste urte ikastolan pasa ondoren, gehiago erabili beharko genituzkeela guk ere gela barruan.

1. irakasleak, gainera, etxetik dakarren hizkera informalaren hutsunea aipatzen du, azalduz, ziurrenik beste gurasoek bere antzera dakitena transmititzen dietela bere txikiei:

Irakaslea1: Horrekin lotuta, gehitu nahiko nuke, hemen ditugun ikasle askoren...hau da ikasle askok bere ama hizkuntza euskara dutela ez? Zer gertatzen da, agian gurasoek ere ikastolan ikasi dutela euskara...Niri gertatzen zaidan bezala, eta guri, edo niri, ez zidaten irakatsi esamoldeak, ez zizkidaten irakatsi esamolde hauek edo hizkuntza ez formal hau. Orduan, zuk zure seme alabei transmititzen diozuna da dakizuna. Nire kasuan nire alabari euskaraz hitz egiten diot, baina transmititzen diot nik dakidana. Orduan, honekin zer esan nahi dut, nahiz eta hemen eduki ikasle asko beraien gurasoek euskara dakitela, ziur nagoela guraso haiek parte hau ez dietela transmititu ez dakitelako. Horrekin noa garrantzitsua iruditzen zaidala ez? Ikastolatik hau lantzea.

Hezitzaileak esku-hartzeak euskara informala sustatuz modu kontziente batean egiteko prestakuntza horrek duen garrantziari egiten dio so bere ekarpenean:

Hezitzailea1: nik uste dut baliagarria dela formazio hori, batez ere modu kontziente batean lan egiteko euskararen lanketa hori egiteko.

Hala, gainontzeko hezitzaile eta irakasleek ere aho batez erantzun dute formazio horren beharra eta garrantzia, 1etik 5erako eskalan jasotako erantzunen $\bar{x}= 4,67$ izanik.

21. Taula

Irakasleek eta hezitzaileek hizkera informala lantzeko formazioaren inguruan egindako balorazioa

	N	4. Prestakuntzaren beharra
Media (\bar{x})	6	4,67

Iturria: norberak egina.

6. Eztabaida eta ondorioak

Lehengo ikerketa galdera programa garatzen den hezkuntza formalaren testuinguruan hizkera informala jarduera ludikoen bitartez lantzeak ikasleen euskara ikasteko eta hitz egiteko gogo eta horrekiko atxikimendua areagotzen duen jakitera zuzenduta dago. Izan ere, ikerketa ezberdinek erakutsi dute hizkuntza bat ikasi eta erabiltzen den espazioetan sentitzen diren emozioek berebiziko garrantzia dutela hizkuntzarekiko garatzen den atxikimenduan (Ivaz eta Duñabeitia, 2016; Guirado eta Rua, 2023b) eta motibazioan (Vilches et al., 2019; Baraindiaran, 2023). Hala, parte-hartzaileen testuinguruan eta haurren pertzepzioetatik abiatuz programak euskararekiko motibazioa eta atxikimendua sustatu duela ondorioztatu da. Izan ere, hainbat ikerketa-lanek adierazten duten gisan (Dosil et al., 2023; Gutierrez, 2024) elkarrizketatuek programak eskaintzen dituen jolasek eta jarduera ludikoek sorrarazten dizkieten gozamen eta bizipen positiboak adierazi dituzte, baita euskaraz aritzeko eta ikasteko gogo ere (Esnaola eta Egibar, 2007; Guirado, 2019; Baraibar eta Bereziartua, 2023; Guirado eta Rua, 2023a; Guirado eta Rua, 2023b; Barandiaran, 2023).

Halarik ere, lehenengo ikerketa-galderaren hurrenkeran, bi azpi galderak osatzen dute jaso nahi den ezagutzaren mamia. Lehenak ea H1aren eta generoaren arabera hizkuntzarekiko sentitzen den eta garatzen den motibazioan eta atxikimenduan ezberdintasunik badagoen jakitea izan du helburu. Hala, elkarrizketatu ziren haur-taldeetan – H1aren arabera antolatuak – jasotako erantzunetan ezberdintasunak daudela ikusi ahal izan da. Eta era berean, datu kuantitatiboekin egindako analisi estatistikoetan ezberdintasun esanguratsuak topatu dira. Beraz, marko teorikoan jasotako ekarpenekin koherentzian (Cenoz eta Santos, 2017; Martinez de Luna et al, 2023). Santos, 2017; Yan eta Horwitz, 2008), kasu honetan behintzat, nabaria izan da H2 gisa euskara jaso dutenek motibazio eta atxikimendu urriagoa adierazten dutela programak eragindako bizipenen pertzepzioei dagokionez H1 euskara edo euskara eta erdara dutenek baino. Izan daiteke, bigarren ikerketa-galderaren erantzunen analisisian ikusiko den gisan, eta hainbat adituen ekarpenek diotenari jarraituz, testuinguru informalean euskaraz aritzean sentitzen duten komunikazio-antsietatearekin lotuta egotea (Jimenez Catalán eta Ruiz de Zarobe, 2009). Izan ere, hizkuntza batean eroso hitz egiteak zeresan handia du garatzen den atxikimenduan (Ramos, 2023). Generoen artean euskararekiko motibazioan eta

atxikimenduan egon daitekeen arrakalari dagokionez, hemen ere emaitzek erakutsi dute ikerketan parte hartu duten nesken eta mutilen artean (eurak horrela identifikatu dira) ezberdintasun esanguratsuak daudela. Hala, Oruetasagasti eta bestek (2024) azaltzen duenaren ildo beretik, neskek programaren bitartez euskararekiko sentitutako eta garatutako motibazioa eta atxikimendu handiagoa adierazi dute. Bada, programak oro har haur parte-hartzaileen euskararekiko motibazioa eta atxikimenduan eragina izan du, baina ezberdintasuna nabaria izan da H1aren eta generoaren arabera.

Hurrengo azpi-galderak, aldiz, hizkera informala ezaugarritzen duten esamoldeak, aisialdi-antolatua bitartez garatu diren jolasak eta horiek guztiak lantzeko programaren ardatza izan diren lanketa zehatzei erreparatzen dio, hots, programan erabilitako hizkuntza-estrategia eraginkorrenak zein diren aztertzea zuzentzen da. Hala, haurrek adierazitakoaren arabera, hizkera informala garatuz, euskararen bilakaera historikoa lantzea izan da hizkuntzara gehien hurbildu dituen lanketa, hots, Ramos eta Olasagarrek (2022) dioten gisan, berretsi da pedagogia soziolinguistikoaren markotik abiatzeak hizkuntzarekiko motibazioa eta atxikimendua garatzeko eskaintzen duen tresna. Azpimarratzekoa da, ordea, lanketa soziolinguistikoa izan dela irakasleek aho batez zalantzan jarri edo gutxien baloratu duten lanketa, halaber, irakasleetako batek halako jarduerak egiteko haurrak txikiegiak direla iruditzen zaiola adierazi duelarik. Horregatik, haurrek eta irakasleek dituzten pertzepzio ezberdin horiek aztertzeko eta arreta jartzeko modukoak direla baloratzen da. Izan ere, pedagogia soziolinguistikoak eta ekolinguistikoak hizkuntzara beste modu batera hurbildu eta sentitzeko aukera ematen du (Antero, 2007; Antero et al, 2023; Camadornsek, 2011; Du, 2020; Erize, 2016); eta hori zenbat eta lehenago egin, euskara minorizatutako hizkuntza bat dela jakinda, hizkuntzarekiko atxikimendua eta jarrerak hobetzeko bidea zabaldu daiteke. Izan ere, ikerketa ezberdinek frogatu dute txikitatik hasten dela hizkuntza batetik sentimendua eta atxikimendua garatzen (Martinez de luna et al., 2023).

Bestalde, hizkera informala partekatuz eta jolasaren bitartez programan parte hartzen duten haurren komunitatea garatzeko lanketak, hots, komunitate horren parte sentitzeak sorrarazi dien motibazioak eta atxikimenduak ere azpimarra berezia egitea merezi duela baloratzen da. Berretsiz, Guirado eta Ruak (2023a) euren lanean azaldu bezala, esanguratsua dela hizkera-komunitate jakineko kide izatearen, erabiltzen den hizkeraren eta talde-sozial horrekiko atxikimenduaren elkarrekikotasuna. Halaber, ikus daitekeelarik jolasaren bitartez sustatzen diren bizipen positiboek (Esnaola eta Egibar, 2007; Guirado eta Rua, 2023b; Dosil et al., 2023) Taustek (1998) eta Travaliak (2008) azaltzen

duen hizkera informalak duen ezaugarri afektiboarekin batera, aldagai horiek lotzen dituen haria iruteko aukerak zabaltzen dituela. Gainera, irakasle eta hezitzaileek erantzundako galdetegian ere, oro har, motibazioan eragin handia izan duela baloratu dute, nolabait, haurrek euren pertzepzioetatik adierazitakoa berretsiz programak euren utzitako bizipenen eta eragin positiboaren inguruan. Esanguratsua da ere, bai elkarrizketatutako haurrek eta bai galdetegia erantzun dutenen gehiengoak irakasleak hizkera informala eta landutako esamoldeak erabiltzeak horiek barneratzen laguntzen edo asko laguntzen diela adierazi dutela. Beraz, emaitzek oinarri teorikoan jasotako ekarpenek diotena berresten dute (Antero et al., 2023; Baraibar eta Bereziartua, 2023; Etxeberria, 2003; Elorza et al., 2009; Martínez de Luna et al., 2023). Hau da, irakasleak hizkuntzaren jabekuntza-prozesuan eta horren erabileran duen rola garrantzia handia da, hurrengan horrek duen eragin positiboarekin batera.

Bigarren ikerketa-galderak hizkera informala jarduera ludikoen bitartez lantzeak, horren ezagutza garatzeak eta horren erabilerak, haurrek senti dezaketen komunikazio-antsietatean eta horrekin loturiko bizipenetan jartzen du begirada. Izan ere, antsietatea hizkuntzaren ikaskuntzan eta horren erabileran eragiten duen aldagai afektibo bat da (Marcela, 2019). Horri, bi azpi-galderek jarraitzen diote: lehenak, lanketa egiten den testuinguruak komunikazio-antsietatean izan dezakeen eraginari egiten dio so; eta bigarrenak, aldiz, H1aren eta generoaren arabera egon daitekeen ezberdintasunari.

Hala, esan daiteke, aisialdi-antolatua eta jarduera ludikoen bitartez euskararen lanketa egiteak haurrak euskarazko hizkera informalean aritzean sentitzen duten komunikazio-antsietatea murriztea sustatu duela. Izan ere, horren ikas-irakaskuntza prozesua jolasaren bitartez egiteak euskara ikasteko eta lantzeko erraztasuna ematen die. Hala adierazi dute elkarrizketatuak izan direnek eta, oro har, galdetegia erantzun duten haurrek. Bada, Ramosek eta Mayak (2023) edo-eta Rodríguezek (2021) azaltzen duten gisan, agerian geratu da jolasek, batez ere bigarren hizkuntzaren jabekuntzan, horrek sor dezakeen frustrazio eta antsietateari aurre egiteko eta ahozkotatzea lantzeko erreminta pedagogiko egokiak direla. Izan ere, hizkera informalak jolasarekin batera harremanetarako eta elkarrekintzarako testuinguru askeak eskaintzen dizkie haurrei (Olasagarre eta Ramos, 2021).

Hizkuntza baten ezagutza-mailak ere ekintza-komunikatiboa garatzean eragina dauka (Santos, 2023). Kasu honetan, programak aurrera egin ahala eta haurrek baliabide linguistikoak eskuratu bezala, oro har, komunikazio-antsietate hori dezente edo asko jaitsi dela adierazi dute. Beraz, Vanen eta Horwitzek (2008) lanaren ekarpenarekin bat

eginez, motibazioak gora egin duen bezala (lehenengo ikerketa-galderaren erantzuna) komunikazio-antsietatea jaitsi egin dela ikus daiteke.

Ikastola-testuinguruan ekintza komunikatiboa garatzen den testuinguruak influentzia dauka hizkuntzaren erabileran (Baraibar eta Bereziartua, 2023; Etxeberria, 2003; Ramos, 2023) eta horrekiko sentitzen den komunikazio-antsietatean (Cenoz eta Santos, 2017; Santos, 2023). Hala, lehenengo azpi-galderak programa garatu den testuinguruetan (ikasgela barrua eta kanpo-espazioak) haurrek izan duten komunikazio-antsietatearen pertzepzioa ezagutzera zuzenduta egon da. Esanguratsua iruditzen da, kasu honetan, testuinguru bakoitzean haurrek euskarazko hizkera informala lantzean eta erabiltzean sentitzen duten urduritasuna (komunikazio-antsietatea) ezberdina izan dela. Izan ere, haur batzuek gela barruko lanketan lasaiago aritzen direla adierazi dute. Eta beste batzuek, ordea, aisialdi-antolatuen bitartez hizkera informala kanpo-espazioan lantzean. Bada, testuinguruak komunikazio-antsietatean eragina duela ikus daiteke jasotako emaitzetan, hemen ere oinarri teorikoan jaso diren ikerketa-lanek adierazitakoa berretsiz (Martinez de Luna et al., 2023; Jiménez Catalán eta Ruiz de Zarobe, 2009; Yan eta Horwitz, 2008).

Oro har, ikerketa gehienak komunikazio-antsietatearen ondorio negatiboez mintzo dira (Santos, 2017). Eta kasu honetan ere, haur gehienak komunikazio-antsietate gutxien sentitzen duten testuinguruan sentitutako bizipenen baitan egin dituzte haien balorazioak, eta horren arabera adierazi dituzte une batean edo bestean sentitutako urduritasunak nola eragin dien euskarazko hizkera informalaren lanketan eta horren erabileran. Kasu horretan, elkarrizketatutako haurrak oso modu nabarian ezberdindu dira, izan ere, H1 euskara jaso dutenek hizkera informala lantzeko kanpo-espazioetan egiten diren jolasetan euskaraz lasaiago aritzen direla adierazi dute eta euskara H2 gisa jaso dutenek, ordea, gela barruan sentitzen dutela lasaitasun hori. Galdetegian jasotako erantzunetan, aldiz, ikerketa-lan honetan parte hartu duen laginaren baitan, ez da taldeen arteko erlazio esanguratsurik topatu. Dena dela, Youngek (1990), Ruedak eta Chenek (2005) edo Marcelak (2019) argitaratutako lanek antsietatea neurrian sentituta hizkuntzaren jabekuntzan eta motibazioan eragina positiboa izan dezakeela diote eta ikerketa honetan parte hartu duten haur batzuek, bai elkarrizketetan eta bai galdetegian utzitako erantzunetan hori antzeman daiteke. Bada, adierazi dute nahiz eta ikasgela barruan euskaraz lasaiago jardun, jolasaren bitartez euskara lantzean nahiago dituztela ikasgela kanpoko jarduerak egin, horrek, nolabait, sentitzen duten komunikazio-antsietatea erregulatzen baitu. Beraz, modu batera edo bestera, aldagai horren baitan ere,

emaitzek jolasek eta jarduera ludikoek hizkuntza baten ikaskuntza-prozesuan eta horren erabileran sustatzen duten motibazioa eta komunikazio-antsietateri jaisteko balioa berretsi egiten da, Ramosek eta Mayak (2023) euren lanean adierazitakoarekin bat eginez.

Alabaina, komunikazio-antsietatean eragiten duten faktoreak ez dira isolatuak eta generoak eta hitz egiten den hizkuntza H1a izan edo ez zeresan handia dute (Van eta Horwitz, 2008; Cenoz eta Santos, 2017). Ikerketa-lan honetan horri erreparatzera zuzentzen da bigarren ikerketa-galderaren azken azpi-galdera. Hala, egindako probak bai H1aren arabera eta bai generoaren arabera estatistikoki ezberdintasun esanguratsuak erakutsi dituzte, H1 euskara edo euskara eta erdara dutenak izanik programa bitarte komunikazio-antsietate gutxien sentitu dutenak edo horren bilakaera positiboa handiagoa adierazi dutenak. Nesken kasuan ere gauza bera erakutsi dute emaitzek. Halarik ere, emaitzek iradokitzen dute aisialdi-antolatua eta ikasgela barruan landutako jarduera ludikoek euskarazko hizkera informalean aritu eta ikasi eta komunikazio-antsietatea jaisteko espazio egokiak eskaini dizkiela, oro har, parte-hartzaile ia guztiei. Haurrek euren bizipenak adieraziz eta horien balorazioak eginez hori adierazi baitute.

Hirugarren ikerketa-galderak irakasleengan eta hezitzaileengan jartzen du begirada. Modu horretan, jakiteko zein izan diren euren jardun profesionalean hizkera informala lantzeko izan dituzten erraztasun eta zailtasun handienak. Izan ere, ikastolek euren jardun pedagogikoan zehaztutako lan-ildo garrantzitsuenen artean jasota dute mintzoaren adierazkortasunaren eta ahalmen espresiboaren lanketa txertatzea (Antero et al., 2023). Eta, gainera, euskararen erabilerari dagokionez erreferente dira (Etxeberria, 2003), bai ikasgela barruko zein kanpoko eremu pedagogikoan (Elorza et al., 2009).

Hala, irakasleek eta hezitzaileek, bai elkarrizketatuak izan direnek zein galdetegia erantzun dutenek, programa eta esku-hartzea bideratzeko mintegiak baloratu dituzte euskarazko hizkera informalaren ikas-irakaskuntza prozesu honetan izandako erraztasuntzat. Elkarrizketatuek bereziki egin diote azpimarra, halaber, programak izan dituen zehaztasunei, egoki zehaztutako helburuei eta mintegietan jardueraren sortzaileak izan direnen aholkularitzari edo orientazioari. Beraz, Baraibar eta Bereziartuak (2023) edo-eta Elorza eta bestek (2009) adierazi bezala, egikaritutako den hezkuntza-esku-hartzean aurrezarritako eta zehaztutako hizkuntza-helburuek irakasleen rola duen garrantziarekin hertsiki loturik daude.

Zailtasun nagusitzat esku-hartzea bera bideratzea izan dela baloratu dute. Halaber, elkarrizketatuak izan diren irakasleek curriculum orduetan txertatzeko egin behar izan duten esfortzua ere aipatu dute. Modu berean, esanguratsua iruditzen da esku-hartzea bideratzeko esamoldeak ikasi eta horiek erabiltzeko egin beharreko esfortzua. Izan ere, jasotako datuetan ere adierazkorra da irakasle batek dioena, berak ere ez dituela landutako hizkuntza-baliabide horiek eta ez dituela erabiltzen. Gainera, aipamena egiten dio ikastolako gehiengo familiei eta gurasoei gauza bera gertatuko zaiela, besteak beste, ikastolan eurak ikasitako euskara formala izan delako eta ez dutela inoiz euskarazko hizkera informal hori ez ikasi ez erabili. Kasu honetan, bistakoa da hezkuntza formalean lagunarteko euskarazko hizkera informalaren transmisioan egon den hutsuneak, Alemanek (2023), Amonarrizek (2015) edo-eta Antero eta bestek (2023) euren lanetan adierazi duten bezala euskal hiztunen baliabide linguistikoen garapenean eragina izan duela, horrek, halaber, belaunaldi arteko etena ekarriz.

Hala, eremu formalean irakasleek eta hezitzaileek hizkera informalaren ikas-irakaskuntza aisialdi-antolatuaren eta jarduera ludikoen bitartez bideratzeko prestakuntza beharrezkoa ikusten duten galdetean guztiz beharrezkoa dela aipatu dute elkarrizketatuek, eta baita galdetegi bitartez emandako erantzunetan ere. Beraz, Díazen (2021) lanean egiten den ekarpenarekin bat eginez, curriculumaren diseinuan hizkuntzaren –kasu honetan euskararen– ikas-irakaskuntzan jolasa ekintza pedagogiko gisa kontua hartzea premiazko zerbait dela esan daiteke, eta, orobat, mintzoaren adierazkortasuna eta baita ahalmen espresiboa lantzeko hizkuntza-estrategiak garatzea eta irakasleak zein hezitzaileak horiek bideratzeko ahalduntzea (Antero et al., 2023).

7. Mugak, indarguneak eta etorkizuneko erronkak

Hurrengo atalean ikerketa-lan honetan atzemandako muga zein indargune esanguratsuenak eta etorkizuneko erronkak aurkezten dira.

7.1. Mugak eta indarguneak

Ikerketa-lanaren muga handiena, gure ustez, bere indargune nagusia ere izan da, hots, ikerketan parte hartu duten haurren adina. Horregatik, kontrastatuz, eta azken hartzaileei bidali baino lehen pilotaje bat eginez prestatu den prozesu bat izan da. Era berean, haurrek duten adina eta horrek eskatzen duen prozedura morala eta etikoa errespetatuz.

Beste muga esanguratsu bat, galdetegi-eskala sortzeko prozesua izan da. Izan ere, lan honen helburua ez da izan eskala balidatzea, eta, beraz, horren prestaketan tenporizazioa

bera zailtasuna izan da. Halarik ere, kasu honetan, galdetegiaren barne-sendotasuna, eta eskala bitartez jasotako datuen fidagarritasuna ahalik eta altuena izateko egindako pilotajeak eta proba estatistikoak ikerketa-lan honen indargune ere badirela baloratzen da. Nolabait, ikerlan honek aurrezarritako denborari, helburuei eta ikerlariaren arloaren inguruko ezagutzei egokituta.

Bada kasu guztietan aldebiokoak dira, indargune berak muga ere izan baitira eta alderantziz.

7.2. Etorkizuneko erronkak

Etorkizuneko erronka nagusia, ateratako ondorioei erreparatuz noski, hezkuntza formalaren testuinguruan hizkera informala lantzea dela pentsatzen da; bai haurrei zein irakasleei eta hezitzaileei zuzendutako lanketa espezifikoeekin. Betiere, bertako testuinguru informalak probestuz, ikasgelako euskararen ikas-irakaskuntza ludikoa bideratuz, eta, horrekin batera, euskarazko hizkera informalaren lanketa kontzientea eginez; hizkuntza batek horretara hurbiltzeko barnebiltzen dituen aldagaiak aintzat hartuz. Arikala zabaltzeak eta egonkortzeak horretarako bidea ireki dezake.

Etorkizuneko ikerketa-lerroei so eginez, halaber, egindako lanarekin jarraitzeko aukera ikusten da. Euskal Herriko testuinguru soziolinguistiko ezberdinetan kokatzen diren eta programa aplikatzen ari diren ikastolak baliatuz, horretan parte hartzen duten ikasleengan utzitako bizipenetan ezberdintasunik ba ote dagoen aztertzeko. Modu horretan, euskarazko hizkera informala tokian tokiko (testuingurua eta hizkuntza-profila) berezitasunak aintzat hartuz prestatu ahal izateko emaitzak lortzeko aukera egongo litzateke, haurrengan bizipen ahalik eta positiboak utzi, komunikazio antsietatea ekidin eta euskararekiko motibazioa eta atxikimendua sustatzeko.

Azken hitza

Atxikimendua eta motibazioa kontzeptu irristakorrak dira, antsietatea bezala; zalantzarik gabe. Norbanako bakoitza ezberdina den unetik, ezberdin eragiten baitio pertsona bakoitzari. Halarik ere, modu positiboan edo negatiboan mugitzen gaituenaren galbahea identifikatzen ikasten gabiltza, zorionez. Eta ikerketa-lan honetan hurrek hori ere irakatsi digute.

Beraz, pentsa genezake, sentimenduen gisan hizkuntza bat ere irristakorra dela, bere baitan sortzen diren askotariko harreman-munduetan.

Nolanahi ere, esatera ausartzen gara Arikalak hezkuntza formalean hizkera informalaren ikas-irakaskuntza ez ezik, horren hezkuntza-prozesua garatzeko abagunea topatu duela, irristakorra bezain zabala eta ederra den euskararen unibertsoan. Era berean, topatu du, testuinguru erdaldunek izan ditzaketen zailtasunen gainetik, hizkera informalaren lanketa ludikoak berarekin dakartzan onurak azaleratzea. Eta gure ustez garrantzitsuena, euskararen biziberritze-prozesuan ezagutzatik harago jauzi egiteko esku-hartzeak bideratu ditu; euskara ikasteaz gain, horretarako gogoia (motibazioa) eta berarekiko hurbiltasuna (atxikimendua) sustatuz.

Jakin badakigu Sanchezek Carrionek (1991) azaldu zituen ezagutzatik motibaziora eta hortik erabilerara jauzi egiteko hizkuntza-testuinguru zaila dutela ikerketa-lanean parte hartu dutenek. Alabaina, ezagutzaren eta motibazioaren pitxerrak bete dira, atxikimendua sustatzearekin batera, eta araututako eremu batean euskararen erabilera informalarik gozamenetik eragin zaio.

Olasagarre eta Ramosek (2021) diote, motibazioa ezagutza eta erabileraren arteko erregaia dela, eta Guirado eta Ruak (2023) aisialdiak motibaziotik erabilerara dagoen zubia eraikitzen duela gehitzen diote horri, testuinguru emozional positiboek duten garrantzia azpimarratuz. Euskarako hizkera informalaren ezagutza areagotzearekin batera, behar den tokian euskararen sugarra bizirik mantentzeko ezinbesteko ekarpena Arikalarena, beraz.

Esker ona

Master amaierako lan honi amaiera eman nahi nioke bidean lagundu nauten guztiei eskerrak emanez, eta bereziki: Alaitz Santos nire zuzendariari, hankak lurrean helduz nire lana bikain bideratzeagatik, izandako pazientziagatik eta beti hor egoteagatik nire ilusioa zuketuz. Ikastolatak irakasleei eta hezitzaileei, euren denbora niri interesez zein pasioz eskaintzeagatik. Ikerketan parte hartu duten hurrei, euren denbora, gogoia eta zintzotasunagatik; asko ikasi dut zuekin eta zuei esker. Maria Dosili beti erakusteko eta laguntzeko prest egoteagatik. Aritz Bereziartuari elkarrekin egindako bideagatik; ikasitako guztiagatik. Euskaltzaindiari pedagogiako graduako amaierako lanetik hona emandako babesagatik eta ikerketa hau egiteko aukera emateagatik. Eta, nola ez, Jone Ruari, bidaia hau nirekin partekatzeagatik, beti nire ondoan egoteagatik eta bere indarra eta sosegua transmititzeagatik. Bihotz bihotzez guztiei eskerririk asko.

Bibliografia

- Aizencang, N. (2005). *Jugar, aprender y enseñar. Relaciones que potencian los aprendizajes escolares*. Manantial.
<https://www.emanantial.com.ar/archivos/fragmentos/AizencangJAFragmento.pdf>
- Aire, Xan. 2023. Elkarrekintzaren eragina euskararen erabileran: lehen pistak Ipar Euskal Herriko ikastoletan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (126), 11-31. <https://doi.org/10.55714/BAT-126.1>
- Aleman, S. (2023). *Euskarzako ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoan artean: egoera eta aukera berriak*. Euskaltzaindia, Jagon saila.
- Altuna, O., Iñarra, M. eta Basurto, A. (2021). Kale-erabileraren neurketa. Laburpen txostena. *Soziolinguistika Klusterra, euskara biziberritzeko ikergunea*.
https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2022/05/hekn21_emaitzen_laburpen_txostena.pdf
- Altuna, J. (2015). Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 97(4), 39-65.
https://soziolinguistika.eus/files/jaime_altuna_bat97.pdf
- Anduaga, E. eta Kasares, P. (2018). *Kale-erabilera: Nafarroako datuen irakurketa. Bat soziolinguistika aldizkaria*. 106(1), 65-78
- Antero, A., Artolazabal, A., Garaialde, E., eta Ibarzabal, Z. (2023). Bazatuz? Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra. Ikastolen Elkartea.
- Antero, A. (2007). Hizkuntza jarreraren lanketa eskolan: eduki eta metodologia bateranzko hurbilpena (ikerketa gaitasunerako lana). *Euskal Herriko Unibertsitatea*.
https://drive.google.com/file/d/1_Ae9z5udBK4K7oYp9BFIMM70tPkjdgwq/view?usp=sharing
- Amonarriz, K. (2019). Euskararen bidegurutzetik. Elkar.
- Amonarriz, K. (2015). Ahozkotasuna Soziolinguistikaren Behatokitik. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (96), 103-127.
<https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/ahozkotasuna-soziolinguistikaren-behatokitik/>
- Apodaka, E., eta Morales, J. (2017). hiztun kategorietatik hizkuntza praktiken erregistroetara: erabilera sustatzeko neurriaren bila. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 104(3), 95-137.
https://soziolinguistika.eus/files/apodaka_et_al_104.pdf
- Arratibel, N., Garcia, L. eta Irastorza, J. (2021). Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKo ikasle hasiberrien hizkuntza-hautuak eta arrazoiak. Uztaro.

(119), 143-165. <https://doi.org/10.26876/uztaro.119.2021.8>

- Arruti, I. eta Prieto, S. (2021). Hezkuntza soziolinguistikoa. Euskal Herrian han eta hemen dauden material eta baliabideen bilketa, azterketa eta sailkapena. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 123(1-2), 11-38. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/txillardegia-hausnartu-sariak-2021/>
- Artola, I. (2013). Euskararen aingurlekuak Arrasateko hizkuntza-portaeran. Zergatik eta non hitz egiten duten euskaraz. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 89(4), 61-83. <https://soziolinguistika.eus/files/Itxaro%20Artola.pdf>
- Baraibar, H. eta Bereziartua, A. (2023). *Ikastolen aisia markoa*. Ikastolen Elkarte
- Barandiaran, A. (2023). Hezkuntza ez-formala euskal eragileak sorteko bide. in Aleman, S. (ed) *Euskarzako ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoaren artean: egoera eta aukera berriak*, (61-69. or). Jagon saila, Euskaltzaindia.
- Barrios, M., Osa, E., Muñoa, I., Elortza, I. eta Boan, K. (2008). *Zenbait orientabide erregistroen tratuaz*. Jagon saila, Euskaltzaindia.
- Benítez, M. (2009). El juego como herramienta de aprendizaje. *El Cuervo de Sevilla* pág. 6. https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_16/MARIA%20ISABEL_BENITEZ_1.pdf
- Berastegi, N., Arribas, A., Alonso, I. eta Alonso, H. (2017). Aisialdia, jardura soziokulturala eta inklusio soziala: Abusuko ikastola. *Uztaro*, (103), 27-39. https://aldizkariak.ueu.eus/public/journals/3/uztaro/27_40.Hezkuntza.Uztaro.103.pdf
- Bereziartua, A., Guirado, O. eta Alonso, I. (2023). Lehen Hezkuntzako haurren lagunarteko hizkera aisialdian: erdaren eragina bat-bateko adierazkortasunean. *Euskera ikerketa aldizkaria*, 68(2), 11-39. <https://doi.org/10.59866/eia.v2i68.263>
- Bereziartua, G. (2013). Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 89(4), 25-42. <https://soziolinguistika.eus/files/Garbi%C3%B1e%20Bereziartua.pdf>
- Bernales, M., Cabiases, B., Obach, A. eta Maturana, A. (2015). Investigación traslacional en salud: un camino para la investigación pragmática e interdisciplinaria. *Revista Médica de Chile*. (143), 128-129. <http://dx.doi.org/10.4067/S0034-98872015000100020>
- Bertalanffy, L.V. (1976). *Teoría general de los sistemas: fundamentos, desarrollo, aplicaciones*. Fondo de Cultura Económica.
- Bigdeli, S. eta Bai, H. (2009). The triunal model of anxiety and its application to anxiety reduction in learning and teaching environments. *TESL Canada*

- Journal*, 27(1), 103-114.
<https://teslcanadajournal.ca/index.php/tesl/article/view/1029/848>
- Bogdan, R. eta Knoppen, S. (1998). *Qualitative research for Education*. Allyn & Bacon.
http://math.buffalostate.edu/dwilson/MED595/Qualitative_intro.pdf
- Brofenbrenner, U. (1877). Toward an experimental ecology of human development. *American Psychologist*, 2(7), 513-531.
<https://scottbarrykaufman.com/wp-content/uploads/2019/07/a4f4a4545519d84c5c57095b4bcc685d7dd9.pdf>
- Bruzal, R. (2007). Fundamentos teóricos y metodológicos para la enseñanza de la lengua materna (L1) y segundas lenguas (L2) en contextos bilingües. *Argos*, 46(24), 46-65.
http://ve.scielo.org/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0254-16372007000100006&lng=es&nrm=iso
- Camardons, J. (2011). Irudimen eta heziketa soziolinguistikoa. Herrialde Katalanetan heziketa soziolinguistikoa dibulgatzea eta lantzea. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (2-3), 281-300.
<https://soziolinguistika.eus/files/J%20Sol%C3%A9%20Irudimen%20eta%20heziketa...pdf>
- Campos, A. C. (2009). *Métodos mixtos de investigación*. Magisterio.
- Camps, V. (2013). *Breve historia de la ética*. RBA.
- Canagarajah, S. (2012). *Translingual Practice: Global Englishes and Cosmopolitan Relations*. Routledge. <https://doi.org/10.4324/9780203073889>
- Cattell, R.B. eta Scheier, I. H. *The meaning and measurement of neuroticism and anxiety*. Ronald.
<https://archive.org/details/meaningmeasureme00catt/page/n9/mode/2up>
- Cenoz, J. (2009). *Towards multilingual education: Basque Educational Research from an International Perspective*. Multilingual Matters.
<https://doi.org/10.1017/S0047404511000777>
- Cenoz, J. (2022). Hacia una perspectiva holística en el aprendizaje del inglés en contextos educativos: el enfoque plurilingüe y "translanguaging". *Revista iberoamericana de educación*, 90(1), 191-205.
<https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/242237/Documento%2011.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Cenoz, J. (2021). La enseñanza del español desde una perspectiva multilingüe. *Internacionalización y enseñanza de español como LE L2*, 21-31.
https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/asele/pdf/30/30_0001.p

df

- Cenoz, J. eta Gorter, D. (2021). *Pedagogical translanguaging*. Cambridge University Press.
https://web.archive.org/web/20211213222915id_/https://www.cambridge.org/core/services/aop-cambridge-core/content/view/67802C1E5AE4A418AE3B8E2DEFBAD30A/9781009014403AR.pdf/pedagogical-translanguaging.pdf
- Cenoz, J. eta Santos, A. (2017). Komunikazio-antsietatea euskara bigarren hizkuntza dutenengan. *Fontes Linguae Vasconum, studia et documenta*, (124), 369-387. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6330567>
- CSDU (1998). Declaración Universal de los Derechos Lingüísticos. *Comité de seguimiento de la Declaración Universal de Derechos Lingüísticos*. https://www.pencatala.cat/wp-content/uploads/2016/02/dlr_espanyol.pdf
- Cortés, A. (2004). La herencia de la teoría ecológica de Bronfenbrenner. *Innovación Educativa*, (14), 51-65. https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/67390/pg_053-068_inneduc14.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Cotán, A. (2016). El sentido de la investigación cualitativa. *Escuela abierta*, (19), 33-48. <https://ea.ceuandalucia.es/index.php/EA/article/view/37/21>
- Coyos, J. B. eta Baxok, E. (2011). Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian. *Euskera ikerketa aldizkaria*, 55(2), 627-647. <https://doi.org/10.59866/eia.v2i55.209>
- Cummins, J. (2017). Teaching for transfer in multilingual school context. in Garcia, O., Lin, A. eta May, S., (ed), *Bilingual Education: Encyclopedia of Language and Education* (103-115. or), Springer. <http://www.cana1.com/uploads/1/2/0/8/120881056/bilingual.pdf#page=121>
- Daniel J. (2002) Open Learning: Transforming Education for Development. Pan-Commonwealth Forum on Open Learning. *UNESCO*. <https://www.col.org/about/pan-commonwealth-forum/second-pan-commonwealth-forum-open-learning-pcf2/>
- Delgado de Colmenares, F. (2002). La educación contemporánea entre la racionalidad técnico instrumental y la emancipación: un intento de aproximación a la obra de Jürgen Habermas. *Acción pedagógica*, 11(2), 4-12. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2972978>
- Dewaele, J. M. (2005). Investigating the psychological and emotional dimensions in instructed language learning: Obstacles and possibilities. *The Modern Language Journal*, 89(3), 367-380. [10.1111/j.1540-4781.2005.00311.x](https://doi.org/10.1111/j.1540-4781.2005.00311.x)

- Díaz, I. G. (2012). El juego lingüístico: una herramienta pedagógica en las clases de idiomas. *Revista de lingüística y lenguas aplicadas*, (7), 97-102. <https://doi.org/10.4995/rlyla.2012.947>
- Dosil, M., Alonso, I., Morata, T., Iglesias, E., Mencía, L., eta Celaá, E. (2023). Impulsar el desarrollo comunitario desde el ocio educativo: algunas claves, dificultades, oportunidades y retos. *Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria= Revista de servicios sociales*, (80), 101-110. <https://doi.org/10.5569/1134-7147.80.07>
- Du, W. (2020). Las lenguas minoritarias de China: consideraciones desde la perspectiva ecolingüística. *Círculo de Lingüística Aplicada a la Comunicación*, (82), 107-118. <https://dx.doi.org/10.5209/clac.67934>
- Elorza, I., Boan, K., Muñoa, J., Urruzmendi, A., Barrios, M., Osa, E. (2009). *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa.
- Erize, X. (2016). Euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 99(2), 113-177. https://soziolinguistika.eus/files/xabier_erize_bat99.pdf
- Escalante, E. L., Herrón, M., Aguirre, C. E., eta Ferrer, M. A. (2020). Métodos mixtos en la investigación socioeducativa. Del Pozo, F.J. (ed), *Intervención educativa en contextos sociales: Fundamentos e investigación, estrategias y educación social en el ciclo vital*(133-149. or). Universidad del Norte.
- Eснаоla, A. eta Egibar, M. (2007). Euskal ludikotasuna erabiliz, euskara indartu. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 63(3), 67-72. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/euskal-ludikotasuna-erabiliz-euskara-indartu/>
- Euskaltzaindia (2023ko martxoaren 9a). ARIKALA, ikasleen artean lagunarteko euskara sustatzeko ikerketa-ekintza berritzailea. *Euskaltzandia. Real Academia de la Lengua Vasca - Académie de la Langue Basque*. 2023ko urriaren 29an hemendik eskuratua: <https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/komunikazioa/plazaberri/6852-arikala-ikasleen-arte-an-lagunarteko-euskara-sustatzeko-ikerketa-ekintza-berritzailea>
- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua (2009). *Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta*. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua.
- Eusko Jaurlaritza. (2016). Eta hemendik aurrera zer? Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. *Hezkuntza Saila*. https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/noticia/eta_hemendik/eu_def/adjuntos/Eta%20hemendik%20aurrera%20zer_2016-05-03.pdf
- Etxeberria, F. (2003). Hizkuntzaren psikopedagogia. Elhuyar edizioak.

- Extremera, A. B. eta Montero, P. J. R. (2016). El juego motor como actividad física organizada en la enseñanza y la recreación. *EmásF: revista digital de educación física*, (38), 73-86. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5351993>
- Eizmendi, I., Uriarte, A., Zubillaga, O. eta Errasti, A. (2007). Hezitzaileek asko egin dezakete euskararen erabilera sustatzeko, *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (63), 117-129. <https://soziolinguistika.eus/files/I%C3%B1aki%20Eizmendi,%20Aitor%20Uriarte,%20Olatz%20Zubilaga%20eta%20Arantzazu%20Errasti.pdf>
- Falcattoni, N. G. (2020). El valor educativo del juego en la construcción ciudadana. *Lúdica Pedagógica*, 1(32), 7-14. <https://doi.org/10.17227/ludica.num32-12178>
- Fantini, A.E. (1982). *La adquisición del lenguaje en un niño bilingüe*. Herder.
- Ferguson, C. A. (1959). Diglossia. *Word*, 15(2), 325-340. <https://www.tandfonline.com/doi/epdf/10.1080/00437956.1959.11659702?needAccess=true>
- Fishman, J. A. (1993). Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, (10), 37-46. <https://soziolinguistika.eus/files/04%20Fishman.pdf>
- Fishman, J. A. (1967). Bilingualism With and Without Diglossia; Diglossia With and Without Bilingualism. *Journal of Social Issues*, 23(2), 29-38. 10.1111/j.1540-4560.1967.tb00573.x
- Forni, P. eta De Grande, P. (2019). Triangulación y métodos mixtos en las ciencias sociales contemporáneas. *Revista Mexicana de Sociología*, 82(1), 159-189. <https://doi.org/10.22201/iis.01882503p.2020.1.58064>
- García, O. eta Li, W. (2014). *Translanguaging: Language, Bilingualism and Education*. Palgrave Macmillan.
- Gardner, R. C. (1985). *The attitude/motivation test battery*. Retrieved from <http://publish.uwo.ca/~gardner/docs/englishamtb.pdf>
- Gartziarena, M. eta Altuna, J. (2022). Eleaniztasuna eta euskara: hegoaldeko haur eta lehen hezkuntza irakasleen usteak eta jarrerak. *Euskera ikerketa aldizkaria*, (67), 11-31. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/83504.pdf#page=1>
- Gartziarena, M., eta Altuna, J. (2021). Hegoaldeko Haur eta Lehen Hezkuntza graduetakoko ikasleen eleaniztasun-ustekak. *Tantak. EHUko Hezkuntza Aldizkaria*, 33(1), 165-181. <https://ojs.ehu.es/index.php/Tantak/article/view/22244>

- Gorter, D., eta Cenoz, J. (2016). Language education policy and multilingual assessment. *Language and Education*, 31(3), 231-248. <https://doi.org/10.1080/09500782.2016.1261892>
- Guirado, O. eta Rua, J. (2023a). Pulunpa (e)ta Xin! Erdal jatorria duten ikasleentzako harrera- eta murgiltze-plana. Esku-hartze pedagogikoaren ekintza-ikerketak. *Euskera ikerketa aldizkaria*, 68(2), 41-86. <https://doi.org/10.59866/eia.v2i68.265>
- Guirado, O. eta Rua, J. (2023b). Aisialdia, hezkuntza ez-formala, bizipen positiboak eta euskara: Eman Hegoak udaleku irekien ebaluazio-ikerkuntza. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 127(2), 59-79. <https://doi.org/10.55714/BAT-127.3>
- Guirado, O. (2021). Pulunpa! Emozioetatik euskaraz. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 120(3), 119-133. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/gazteak-eta-euskara/>
- Gutierrez, M. (2014). Relaciones entre el clima motivacional, las experiencias en educación física y la motivación intrínseca de los alumnos. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física Deporte y Recreación*, (26), 9-14. <https://doi.org/10.47197/retos.v0i26.34387>
- Gregory, M. eta Carrollek, S. (2019). Language and situation: language varieties and their social context. Routledge, *Taylor & Francis group*. DOI:10.4324/9780429436185
- Habermas, J. (1988). *La Lógica de las Ciencias Sociales*. Tecnos. <https://docs.google.com/file/d/0B8goafEliOzMTnQ4RkZwcFdTV1U/edit?resourcekey=0-2JXnoGC3qJTKeAaA-D269g>
- Hamui, A. eta Varela, M. (2012). Metodología de la investigación en educación médica. La técnica de los grupos focales. *Investigación en Educación Médica*, 2(1), 55-60. <https://www.redalyc.org/pdf/3497/349733230009.pdf>
- Horwitz, E. K., Horwitz, M. B. & Cope, J. (1986). Foreign language classroom anxiety. *The Modern Language Journal*, 70(2), 125-132. <https://www.ling.ohio-state.edu/research/groups/lacqueys/readings/horowitz.pdf>
- Igarzabal, I. (2014). *Kode-Alternantzia Eta Hizkuntza Ohiturak Gabiriako Bi Belaunalditan*. Asmoz Fundazioa. https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/HIZNET_Inigo_Igartzabal.pdf
- Isasi, X. (2019). Haur euskaldunen hizkuntza-garapen simetrikoa. *Rev. int. estud. vascos*. 64(1-2), 152-173. https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/riev/64/RIEV_64_152-173.pdf
- Iurrebaso, I. (2022). *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indaberritzea neurtzeko demolinguistikako tresna metodologikoak garatzen Euskal Herrirako aplikazio praktikoa* (Euskal Herriko Unibertsitateko Doktorego-

- tesia). <http://hdl.handle.net/10810/60061> Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ivaz, C. eta Duñabeitia, A.J. (2016). The emotional impact of being myself: Emotions and foreign-language processing. *Journal of Experimental Psychology: Learning, Memory, and Cognition*, 42(3), 489–496. <https://doi.org/10.1037/xlm0000179>
- Iztueta, I. (2014). *Euskal kultura eta hizkuntzak: diskurtsoak eta hego euskal herriko liburue-koizpena euskal/espainol ardatzaren argitan* (Euskal Herriko Unibertsitateko Doktorego-tesia). https://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Ibai_Iztueta_TESIA.pdf: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2018). Eusle metodologia: gaztelanian finkatutako hizkuntza-ohituretatik euskarazkoetara lan-munduan. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 107(2), 97-131. https://soziolinguistika.eus/files/06_pello_jauregi_eta_al_107.pdf
- Jaqueira, A.R., La Vega, P., Lagardera, F., Aráujo, P., eta Rodrigues, M. (2014). Educando para la paz jugando: género y emociones en la práctica de juegos cooperativos competitivos. *Educatio Siglo XXI*, 2(32), 15-32. <https://doi.org/10.6018/j/194071>
- Jornet, J. M. J., Gonzalez, J. eta Perales, M. J. (2012). Diseño de cuestionarios de contexto para la evaluación de sistemas educativos: optimización de la medida de constructos complejos. *Bordón: Revista de pedagogía*, 64(2), 89-110. [file:///Users/odeigirado/Downloads/Dialnet-DisenodeCuestionariosdeContextoParaLaEvaluaciondeS-3960804%20\(1\).pdf](file:///Users/odeigirado/Downloads/Dialnet-DisenodeCuestionariosdeContextoParaLaEvaluaciondeS-3960804%20(1).pdf)
- Juaristi, P. (2008). Nola sortu zerbait berria, baina zerbait gurea. Askoren artean (ed) *Atzotik etzira* (127-149). Mendebalde. <http://mendebalde.eus/jardunaldiak/2008/Nola%20sortu%20zerbait%20berria%20baina%20zerbait%20gurea%3F.pdf>
- Jiménez Catalán, R. M. eta Ruiz de Zarobe, Y. (2009). The receptive vocabulary of EFL learners in two instructional contexts: CLIL versus non - CLIL instruction. In Y. Ruiz de Zarobe eta R. M. Jiménez Catalán (Ed.), *Content and language integrated learning: Evidence from research in Europe* (81-92). Multilingual Matters.
